

ZU HEMEN ZAUDE goiena



Etxe kaltetuena barrutik.



Sustoa, tristura eta kezka

Etxera sartu ezin diren bizilagunetako batzuk, eta euren senideak, atzo eguena / 2

Lourdes Rubio, beste aldera begira, Bixen Uribesalgo, Denis Armeñdariz, Dolores Santos eta Carmen Zafrá, Bolu auzoan, trenbidean.

XABIER URZELAI

Aretxabaletako Udalak zehaztu du herritarren parte-hartzea, ordenantza bitartez / 16

Orain dela urtebete hil zen Oier Bernal gazte aretxabaletarra gogoan izango dute musika jaialdian / 18

Bikoiztu egin ditu diru-sarrerak azken bi urteotan Leintz Gatzagako Gatz Museoak / 21

30 urte literaturazaletasunari bultzada emanez, literatur lehiaketen bidez / 15

SINADURAK



ANARTZ AGIRRE / 8



ITSASO ERRETOLATZA / 12



MARIA IZAGA / 22



IGOR OIARBIDE / 26



IDOIA ETXEBERRIA / 48



Olatz Etxabe, Iñaki Etxabe zenaren alabari elkarrizketa

+

Suhiltzaileak: larrialdiei aurre egiten

SEAT ATECA BERRIA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT

U. Madera / L. Kortabarría BERGARA
 "Nahiz eta zazpi familia izan etxetik kanpora geratu direnak, horietatik lau dira epe ertainerako etxe beharrea daudenak. Gainontzeko hiru familiak euren kabuz moldatu dira. Beste lau kasuei dagokienez, erakundeek –Eusko Jaurlaritzak...– utzitako hiru etxebizitza ditugu lagatzeko moduan, eta laugarren bat bideratu nahian gabilta; guztiak ere Bergaran dauden etxebizitzak dira. Ildo horretan, herri-tarrendik hiru etxebizitza eskaintza jaso ditugu; benetan eskertzekoa da erakutsitako eskuzabaltasuna. Hori horrela, hurrengo pausoa da etxeetara joatea ikustera zelan dauden ekipatuta: izarak, mantak... eta ea, ba, astebururako edo astelehenerako lau familia horiei ostatu emateko moduan gauden", esplikatzen zuen atzo, eguena, Maite Agirrek, Bergarako udal ordezkariak, kalean geratu diren familien azken ordukoari dagokionez.

Izan ere, horixe da Bergarako Udalaren lehentasunetako bat, Boluko lur-jausiaren ondoren etxe barik dauden familien premiak asetzera.

Hiru lagun, bakoitza leku batean

Ostatua iritsi bitartean, familia horiek ahal duten moduan dabilta bakoitzaren egoerari irtenbidea ematen. "Neu, momentuz, amaren etxean nago, andrea amamaren etxean dago, eta alaba tiarekin. Eskaini digute Arrasateko etxe batera joateko aukera, baina txarto etortzen zaigu, alaba eskolara eraman behar dugu...", esplikatzen du, adibidez, Asier Arenazak, lur-jausiak kalte gehien eragin duen 59. atariko familietako bateko kidea.

"Dena doa ondo"

Bergarako Udalaren bigarren lehentasuna, jakina, lur-jausia bera kontrolpean izatea, haren eraginak garbitzea eta ondoren magala egonkortzea da. Eta zeregin horretan ere buru-belarri dihardu egunotan.

Hain zuzen ere, Elurlan enpresako bost langile dabilta garbiketara lanak egiten, eta, haiek batera, beste hiru udal langile ere badabilta, enborrak mozten eta garraiatzen. "Trenbidea eta atzeko kanala garbitzea da lehentasuna, eta hori egin ostean hasiko gara etxeen kontrara dauden enborrak bertatik



Trenbidea gainditu, hormigoizko hesia apurtu eta etxeetaraino ailegatu zen lur-jausia, 57-63. atarien pareraino. GOIENA

Eguraldia lagun, bizkor eta bide onetik doaz garbiketara lanak

Etxetik irten izan behar duten zazpi familietatik lau daude etxe beharrea; haien premiak asetzeko ahaleginetan dabil Bergarako Udala; lehentasuna da guztie Bergaran eskaintzea etxebizitza; magalean, berriz, ez da mugimendu gehiagorik izan

ateratzen –hori guztia goitik, trenbidetik egin behar dugu–. Behin enborrak aterata, hasiko gara lurra kentzen. Oraingoan, dena doa ondo. Lortu dugu menditik zetorren ura ez jaistea kaleraino, eta teoriarik, behintzat,

"EZ DA MUGIMENDU GEHIAGORIK IZAN, ETA HORI OSO INPORTANTEA DA"

LANDER ARREGI, OBRETAKO ZINEGOTZIA

badirudi denbora izango dugula trenbidekoa libratzeko, ze eguraldiaren aurreikuspenaren arabera, datorren astean ere ez da prezipitaziorik izango. Gainera, nahiko azkar doaz lanak eta oso garrantzitsua dena: harriak ez dira gehiago mugitu, ezta beste ezer ere, ez da mugimendu gehiagorik izan; hori oso inportantea da", kontatu du garbiketara lanen jarraipena bertatik bertara egiten diharduen Lander Arregik, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Mingaina zaintzapean

Lur-jausiaren mingainari dagokionez, berriz, hura ere zaintzapean dute adituek, Bilboko Ingeku, Ingeniaritza, Geologia eta Geoteknikako enpresakoek eta Donostiako Sestra Ingeniaritza eta

"GEOLOGOEN ETA INGENIARIEN JARRAIPENA IZANGO DUGU UNEORO"

ELENA LETE, BERGARAKO ALKATEA

Arkitektura enpresakoek. "Eguazteneko azterketa luiziaren muturretik, burutik, hasi zen, baloratzeko zer gertatu den eta zelan ekidin behar den", adierazi du Elena Lete alkateak.

"Geologoek eta ingeniariak jarraipena izango dugu uneoro. Hori da, nire ustez, inportantea. Gertatu da gertatu dena. Aurrera begira badugu talde tekniko bat guri laguntzen eta talde tekniko hori egongo da jarraipena egiten momenturo: mugimendu desberdinak –eguraldi aldetik zein geologia aldetik– baldin badaude, eurek baloratuko dute (...) Astelehen iluntzean bertan etorri ziren, baina prozesu osoa bizi izan dute. Zuzenean deitu genien etortzeko, Udalak badu harremana haiekin, baina, horretaz gain, Ondarroako lur-jausiaren egoera bizi izan dute lehen eskutik, eta pentsatu genuen benetan lagungarri izango zela han hartutako esperientzia. Zer esanik ez, honek ez du zerikusirik han gertatu zenarekin, baina esperientzia hori dago eta lagungarri izango delakoan deitu genien", esplikatzen du alkateak.

Lur bolkanikoa

Haiek aztertuko dute, besteak beste, zein izan den halako lur-jausi handia gertatzeko arrazoia. Ze txikiago batzuk gertatu izan dira inguruan lehenago ere, bertako bizilagunek zein udal ordezkariak esandako moduan.

"Lur piloa busti da, eta aldapa handia dago. Historikoki beste mugimendu batzuk ere izan dira gunean, erorketa txikiak asko; handiago bat ere bai, baina beste aldera gertatu zen hura. Inguruko lur hori bolkanikoa da, ez da karea eta ez du buztinik. Oraingoan, ura terreno guztian sartu da, barrutik zein kanpotik", esplikatzen du Arregik.

Bide batez, lanek iraun bitartean, bidegorri zati horretan ipinitako seinaleak errespetatzeko eta bertara ez sartzeko eskatu die zinegotziak herritarrei. "Atzo, adibidez [eguztana] bi ume zebiltzan barruan; gainera, mendira igota zebiltzan", esan du Arregik.

Bestalde, alkateak bizilagunei eta herritarrei eskerrak eman gura dizkie "lehen momentutik" erautsitako elkartasunarengatik. "Horrek esan nahi du gizarte moduan balio batzuk zaintzen ditugula eta eskertu behar ditugula", esan du Letek.

Tentsioa, amorrua, pena, beldurra, elkartasuna...

Emozioz betetako hiru egun bizi izan dituzte Bolua auzoko bizilagunek eta, oro har, bergararrek. Astelehen eguerdian lur-jausi txiki bat izango zela zirudiena iluntze partean burrunbaka hasi, eta ura, lurra eta arbolak jausten hasi zirenetik

Astelehen iluntzean okertu zen dena. Prezipitazio ugariak tarteke, Bergarako Bolua auzoan gertatutako lur-jausi txiki bat garbitzen zebiltzan Elurlan enpresako langileak. Iñigo Almorza enpresako ugazabak entzun zituen hasierako zaratak. Mendian behera zihoazen arbola bi justu-justu sailhestu zituzten langileek eurek. Eta orduan, auzotarrei zein Bergarako Udalari zerbait larria zetorrela abisatu zieten.

Suhiltzaileak, Ertzaintza, udal ordezkariek... bertaratu ziren orduan Bolu ingurura. Bi burrunbaren lekuko izan ziren eurak eta bertan ziren bizilagu-

nak, ordurako, 18:00 inguruan, bizilagun guztiak ere etxeetatik kanpo zeuden. Eta bigarren burrunbaren ondotik menditik ura, lurra eta arbolak jausten hasi ziren. Trenbide zaharra gainditu, hormigoizko hesia apurtu eta Boluko etxeetaraino ailegatu zen lur-jausia, urduritasunak eta beldurrak airean zituzten bertako bizilagunen inpotenziaren aurrean. Malkoak, kezka aurpegiak, beldurra... nagusitu ziren orduan. Emozioz betetako orduak izan ziren haiek eta baita ondorengoak ere. 21 familia etxetik kanpo. Eta etxetara bueltatu zirenek ez zuten lasai lo egin hartan.



Iñigo Almorza. OIHANA ELORTZA

IÑIGO
ALMORTZA
ELURLAN ENPRESAKO UGAZABA

"Beldurtu egin nintzen, eta jaitsi ginen jendeari etxetik irteteko esatera"

"Udalak deitu zigun eguerdi inguruan lur-jausi bat egon zela esanez, ez handia, normala, eta hura garbitzera etortzeko. Etorri ginen, hasi ginen garbitzen eta sei bat kamioi atera genituenean -ze gero eta gehiago zetorren menditik, kendu eta gehiago etortzen zen, kendu eta gehiago etortzen zen...-, arbola bat jausi zen. Gero, makinan zebilen langileak eskapada egin zuen, haren atzeko aldera jausi zen beste arbola bat, korrika mugitu ginen... eta *moskeatu* egin ginen, zarata handia entzuten genuen goian, eta orduan igo nintzen mendira eta ikusi nuen oso urrutitik zetorrela. Beldurtu egin nintzen orduan,

eta udaltzainei deika hasi ginen, Udaleko jendeari... Etxetara jaitsi ginen jendeari irteteko esateko, zetorrena oso handia zela. Anekdotak moduan, akordatzen naiz andre bat zegoela galdezka: 'Pero tenemos que dejar la casa?'. Eta nik esaten nion: 'Ba ni ez naiz inor esateko, ze ni ez naiz autoritatea, baina nik neuk laga egingo nuke etxea; gero sartuko zarete sartu behar zaretenean, baina orain momentuan irten zaitetzte, faborez'. Eta hark ezetz, hura ez zihoala txakur barik kanpora. Azkenean, txakurra ere guk hartu eta atara genuen... eta eskerrak dena ondo irten zela, jendea kanpoan zegoela... Gero, lur-jausiaren lehen aldi bat etorri zen; ez zen etxeetaraino ailegatu, lokatza bai, baina arbolarik ez; hori 17:00 aldean izan zen. Eta bigarren txandan, 18:00 aldean edo, goian geunden, beste aldean, eta berriro entzun genuen bazetorrela. Zarata entzuten zen, arbolak jausten... *bra, bra, bra...* nola zetorren, eta berriro abisatu genien behekoie. Ordurako suhiltzaileak hemen zebiltzan lanean, eta orduan lur-jausia

DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"GUZION ESKOLA, GUZION ARTEAN"



URTARRILAREN 30ETIK OTSAILAREN 10ERA



605 77 39 92 goieskola@gmail.com

goieskola
erregionala euskaraz
eskolak publikoak



baikara
Euskararen Baita
Euskararen Baita

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH INFORMAZIO BILERAK eta ATE IREKIAK

ARAMAIO, San Martin Eskola

ELGETA, Herri Eskola

ANTZUOLA, Herri Eskola

Informazio zuzena eskolan bertan

BERGARA

San Martin Agirre Eskola

Ipintza Institutua

Urtarrilaren 31n, 18:00etan Haur Hezkuntzako eraikinean

Otsailaren 4an, 11:45ean Haur Hezkuntzako eraikinean Ate Irekiak

Urtarrilaren 31n, 18:00etan

ESKORIATZA

Luis Ezeiza Eskola

Urtarrilaren 27an, 17:00etatik aurrera Ate Irekiak

ARETXABALETA

Kurtzebarri Eskola

Kurtzebarri Institutua

Urtarrilaren 26an, 18:00etan

Urtarrilaren 31n, 18:00etan

ARRASATE

Arrasate Herri Eskola

Arrasate Institutua

Urtarrilaren 26an, 18:00etan Musakolan

Urtarrilaren 31n, 18:00etan Bedoñaben

Otsailaren 2an, 18:00etan Erguinen

Urtarrilaren 30ean, 18:00etan Arrasaten

Urtarrilaren 31n, 18:00etan Aramaion

OÑATI

Errekalde Eskola

Zuazola - Larraña Institutua

Urtarrilaren 28an, 17:00etatik aurrera Ate Irekiak

Urtarrilaren 31n, 18:00etan

HHI-EPA ARRASATE

HHI-EPA BERGARA

Matrikula zabalik

sartu zen barruraino, teilatue-
taraino, etxeetaraino... (...) Orain
ikusita, oso goitik dator kontua.
Nik uste dut 100 bat metrotik
gora datorrela".



**JOSEBA
MOÑUX**
SUHILTAILEA

"Momentuan ez zegoen erantzunik"

"Sustoa hartu genuen eurek eta
guk, ze oraindik bizilagunak
etxetik ateratzen genbiltzan eta
bigarren luizia gertatu zen, za-
rata handia... Jendea beldurtu
egin zen, ze behin jausi da, bi-
garren aldiz jausi da, euriak
jarraitu egiten zuen... eta mo-
mentuan ez zegoen erantzunik".



**MAITE
SOTIL**
BIZILAGUNA

"Gaua pasatu dugu begi bat itxita eta bestea zabalik"

"Guztia ikusi nuen. Almortza
[Iñigo] zebilen garbitzen eta hark
susto handia hartu zuen. 19:00etan
gertatu zena, ilun zegoen eta
orduan ez zen ikusten, baina
atera zuen zaratarekin denak
irten ginen korrika. Gaua pasa-
tu dugu begi bat zabalik eta
bestea itxita, oso arduratuta;
esan ziguten, badaezpada, ma-
leta gertu izateko. Ez zutela uste,
baina, badaezpada...".



**LOURDES
RUBIO**
BIZILAGUNA

"Hiruzpalau hilabeterako kontua izango dela esan digute"

"Esan digute luze joko duela,
gutxienez, hiruzpalau hilabete-
ko kontua izango dela. Nire
etxebizitza -59. atariko lehen
solairuko ezkerrean- ondo dago.
Baina sukaldeko kristaleraren
kontrara dago lokatz guztia pi-
latuta. Eta horrekin oso kezka-
tuta nago. Ze harritxoren bat



Luizia Astelehen goiz partean hasi zen lurra jausten maldan behera, eta 16:30 aldera handitu egin zen jarraio. Udaltzainak bertaratu eta konturatu ziren uste baino handiagoa zela luizia eta handitzen zihoala. 18:30ean, goiko trenbide zahar gaineko mendi malda zati bat behera etorri zen.



Etxetik kanpo Gaua etxetik kanpo eman behar izan zuten 47. eta 63. zenbakien arteko bizilagunek; 21 familia, denetara. Etxera ezin izan zuten bueltatu, eta gehienek soinean zeramatanarekin egin behar izan zuten alde, artean berritasun gehiago jakin gabe.

jausi eta kristala apurtzen bada,
dena barrura sartuko zait...
Suhiltzaileekin egon naiz, eska-
tu diet egur bat jartzeko krista-
lera horretan eta beste bat sar-
rerran, eta euren zain nago, ea
laguntzen didaten. Ze beste au-
kera bat da arotzari deitzea,
baina ez dakit arotzari utziko
dioten lan hori egiten. Asegu-
ruarekin ere egon naiz eta esan
didate ez direla lur-jausien kar-
gu egiten. Orain, ezagun baten
etxean nago egunotan; bi txa-
kurtxo ere badituz, eta Udalean
esan didate gaur arratsaldean
-eguna- ez bada, bihar emango

didatela konponbideren bat zen-
tzu horretan. Baina oso kezka-
tuta nago pilatutako lokatzaren
kontuarekin".



**CELIA
GOMEZ**
BIZILAGUNA

"Etxebizitza eta ile-apaindegia ditut eta ez dute kalterik"




Ura ateratzen Udal langileak, ingeniari bat eta geologo bat batu ziren erabakitzeke zer egin bizilagunekin; ateraraztea erabaki zuten. Suhiltzaileak ura ateratzen hasi ziren. Minutu gutxian, kalearen zati handi bat menditik behera etorritako urak hartuta geratu zen.



Udala eta Foru Aldundia Biharamunean, diputatu nagusi Markel Olano eta bozeramaile Imanol Lasa eta Bergarako alkate Elena Lete joan ziren Bolura, azken ordukoak jakin eta elkartzuna adieraztera. "Lehentasuna bizilagunei arretea ematea" zela azpimarratu zuten.

"Ile-apaindegia dut auzoan, 51.
zenbakian. Luizia gertatu zen-
ean, ile-apaindegian sartu gin-
en, baina udaltzainak etorri
ziren eta irtenarazi egin gin-
tuzten. Soinean generamanare-
kin bakarrik alde egin behar
izan genuen. Gurasoen etxean
eman nuen gau hura. Artean
ez nekien nire etxebizitzak kal-
teak zituen edo ez; itzaropena
nuen ezetz. Hurrengo egunean,
arratsaldean udaletxean egin
genuen bileran, esan zidaten
ez etxea, ez ile-apaindegia ez
zeudela kaltetuta, eta bueltatu
egin ahal izan nintzen; etxebi-

zitzea 47. zenbakian daukat. Ile-a-
paindegia berriz ireki ahal izan
dut. Alde horretatik, behintzat,
lasai geratu naiz; izan ere, nahiz
eta gurasoen etxean egon, neu
gaizki nengoen: urduri, egone-
zinarekin, lekuz kanpo... Baina,
beste alde batetik, gertatu de-
naren tristurarekin gaude, eta
buelatu ezin izan direnengatik
penatuta ere bai; ile-apaindegian
beste berbagairik ez dugu egun
hauetan. Hala ere, Bolua oso
auzo jatorra da eta beti eraku-
tsi izan du hori; laguntasuna
behar dutenendako zerbait egin-
go dela ziur nago".



Kalteak 59. atarian Ze etxebizitza dauden kaltetuta zehaztu zen; zazpi familiak etxetik kanpo eman beharko dituzte hurrengo hilabeteak. Beste bizilagunak bueltatu egin ziren etxera. Behin-behineko bizilekuak bilatzen hasi ziren Bergarako Udala eta Aldundiko Gizarte Departamentua.



Garbiketa lanak Eguenean, oraindik ere, bistakoak ziren astelehenean gertatutako luiziak utzitako arrastoak. Geologoen eta ingeniariaren lanean ziharduten ingurua aztertzen. Bitartean, makinak lanean ziharduten enborrak eta oztopo nagusiak kentzen. Trenbidean, luiziaren bi aldeetan, makinak ibili dira egunotan. Udal langileek inguruak txukuntzen ibili dira. Lan handienak ateri zegoen bitartean egin nahi zituzten.



**JUANTXO
URBIETA**
BIZILAGUNA

"Euria hasten badu, agian, korrika hasi behar dugu berriro"

"55. atarian bizi gara. Bertan lo egiteko moduan gaude. Baina euria hasten badu, agian, korrika hasi behar dugu berriro. Gaua alabaren etxean pasatu dugu gaua. Ez dugu lorik egin, e! Egon egin gara".



**BIXEN
URIBESALGO**
BIZILAGUNA

"Amaginarrebaren etxean gaude, baina beste toki bat behar dugu"

"57. atarikoak gara. Atariko eskumakoak bai, baina ezkerrekoak ezin gara bueltatu, gure etxea ondo dago, baina justu-justuan hor dago lur-jausiaren mingaina eta, badaezpada... kanpoan geratu behar dugu, ikusi egin behar zenbat denborarako egon behar dugun. Seguru ez digute ezer esan, baina astebete seguru baietz, eta hortik gora izango da. Zain gaude, oraingoz, amaginarrebaren etxean, Irizar kalean. Emaz-

tea Luisa eta Igor semea bizi ginen etxean eta hirurak gaude emaztearen amaren etxean. Oraingoz, guretako irtenbidea da, urgentziakoa, baina, luzarorako daukagunez, ez da irtenbide egokiena, beste toki bat beharko genuke. Dena den, Udalak esan digu Arrasaten, Sorluzen edo Bergaran lor dezakeela etxea eta guretako Bergaratik kanpo ez da irtenbide egokia, semeak eta nik neuk Bergaran egiten dugu-eta beharra".



**DOLORES
SANTOS**
BIZILAGUNA

"Gure etxea da kaltetuena, eta oso gogorra da beste toki batera joan behar izatea"

"Oso ukituta nago. Gure etxea izan da kaltetuena, luiziaren mingaina parez pare daukagu eta. 15 zentimetrarainoko lokatzez beteta daukat etxea. Oso gogorra izan da niretzako hau guztiau; izan ere, etxean bakarririk bizi naiz eta neure ingurunera ohituta nago; horregatik, beste toki batera joatea oso gogorra da. Ea lehenbailehen konpontzen den. Dena den, alabaren etxean eta suhiaren etxean nago, eta, gaitz erdi; etxetik gertu, gainera, etxe-bloke berean bizi dira eta".

erabili euskarara

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskarra klaseak

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@
udaleuskaltegia.eus

**BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta,
18-behea, Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

**ARRASATEKO
UDAL
EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

**BERGARAKO UDAL
EUSKALTEGIA**
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

"Lurzoruak zehatzago aztertu beharko lirатеke"

AITZIBER SUAREZ EHU-KO GEOLOGOA

Geologian lizentziaduna da, EHU, eta orain doktoretza tesia egiten ari da Arrasateko aztarnategi bati buruz. Horrenbeste lur-jausi gertatzearen arrazoiei buruz jardun du

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Lur-jausiak albiste izan diren aste honetan, adituen iritzia jaso nahi izan du GOIENAK. Ondarroako Kamiñaldeko kasuak oihartzun mediatiko handia izan zuen, baina, Debagoienara etorrira, Gasteizko autobidean izandako arazoei, berriki Bergaran eta Aramaion gertatukoak gehitu zaizkie.

Gero eta ohikoagoak al dira lur-jausiak? Zergatik?

Azken hamarkadetan etxebizitza eta eraikin askoz gehiago egin dira mendi magalen ondoan. Lehen, lautadak erabiltzeko joera zegoen, baina espazio faltagatik mendi magalen alboan eraikitzen da halabeharrez.

Eremu urbanoetan arrisku handiegia hartu izan dira?

Iraganean azterketa geoteknikoak apenas egiten ziren. Hauei esker, naturaren eraginez sor daitezkeen kalteak aurreikusten dira; lur-jausiak edo uholdeak kasu. Egun azterketa hauek beharrezkoak dira, baina kasu batzuetan ez dira behar beste sakontzen, eraikitzeari lehentasuna emanez. Lurzoruak zehatzago aztertu beharko lirатеke.

Era honetako ezbeharrak saihesteko komenigarria litzateke jada eginda dauden eraikuntzen berrazterka geoteknikoak egitea?

Nire ustez, kontrol bat egin beharko litzateke urtero, batez ere, eraikuntza zaharrekin. Arazoak gertatu eta ondoren konpondu beharrean, komenigarriagoa da hauek aurreikusteko eta eragozteko neurriak hartzea. **Zer egin daiteke berrazterketa horiek derrigorrezkoak izateko?**

Lege bitartez egin beharko litzateke, baina, horretarako, eraikinek gaur egun daukaten arriskuaz jabetu behar dugu lehenengo. Izan ere, kontzientziarioa falta da.

Zein neurri hartu daitezke arriskuan egon daitezkeen eraikinetan? Zeintzuk dira eraginkorrenak?



Suarezek eraikinen berrazterketa geoteknikoak urtero egitea defendatzen du. A.S.

"ERAIKINEN BERRAZTERKETA GEOTEKNIKOAK URTERO EGIN BEHARKO LIRATEKE"

Neurririk eraginkorrena azterketa geoteknikoak urtero egitea litzateke. Egia da azterketa horiek ez dutela ziurtatzen ezer gertatuko ez denik. Lurrikarekin ere berdina gertatzen da. Behin arriskua dagoela jakinda, hainbat neurri har daitezke. Landeredia sartu, euste-hormak eraiki, drainatzeak...

Nola egiten dira drainatzeak?

Drainatze makinekin. Tutu batzuk sartzen dira lurzoruan dagoen ura kanpora ateratzeko. Honen helburua lurra duen pisua gutxitzea da, horrela egonkorrago izateko.

Ezbeharrak gertatzen direnean, erantzukizuna geologoarena da, ala eraiki duen enpresarena?

Kasuak aztertu behar dira. Azterketa geoteknikoa ondo egin da badago, eta enpresak arrisku horiek kontuan hartu ez baditu, errua enpresarena izango da.

Baina frogatzen bada geologoak ez duela bere lana behar beste sakondu, kasu horretan ardura ez da enpresarena.

Magaletan dauden etxeetan lur-jausi arriskua txikitzeko, zuhaitzak landatzea aproposa da?

Landarediak lurrari egonkortasuna ematen dio. Sustrai handidun zuhaitzak dira aiposenak horretarako; pinua edo haritzia, adibidez.

Landa eremuetan, pinudiak kentzerakoan, ohikoak izaten dira lur-jausiak...

Aurreko galderan azaldu bezala, zuhaitzak kentzerakoan lurraren egonkortasuna ahulagoa da. Kanalizazio lanak egin daitezke, baina, hala ere, urak bere bide naturala bilatzeko joera du.

Eguraldia fenomeno kontrolaezina da. Baina lehorte baten ondoren euri jasa handiak egitea nahasketa arriskutsuegia da, ezta?

Hala da. Euri jasadak beti dira arriskutsuak, baina, batez ere, bat-batean izaten direnean. Lurra saturatu egiten da, ez daukalako ur emari handi hori xurgatzeko gaitasunik. Lurraren lehen geruza irristakor geratzen da, eta urak aurretik duen guttia eramaten du.

Diabetesa antzemateko testa egingo dute 9 farmaziatan

Debagoieneko bederatzi farmaziatan egin ahal izango da, doan, 2 motako diabetesa detektatzeko galdeketa

Leire Kortabarría DEBAGOIENA

Gipuzkoako 119 farmaziak hartzen dute parte, joan den martitzenetik aurrera, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarteak 2 motako mellitus diabetesa (DM2) izateko arriskua duten hiritarrak detektatzeko sustatu duen programan. Ekainera arte iraungo du. Arrasateko hiru farmaziak, Oñatiko hiruk, Aretxabaletako batek, Elgetako batek eta Bergarako beste batek hartzen dute parte programa horretan; baikoitzean, kanpoaldean, hori adierazten duen kartela dago.

40 urtetik gorako guztiak

Programa bi fasetan egingo da. Lehenengoa Findrisk galdeketa da, eta nahi duten guztiek bete ahal izango dute farmazian. Berziki dei egiten diete honako hauei: 40 urtetik gorakoak; eta 25-39 urte artekoak, arrisku-fak-

toreak badituzte, hala nola DM2 familia-aurrekariak, larregizko pisua, dieta ez osasungarria, ariketa fisikorik eza eta presio arterial handia. Findrisk testaren barruan, galdera batzuk erantzun beharko dituzte. Test horren erabilgarritasuna egiaztatuta geratu da erabili izan den herrialdeetan.

Findrisk testaren emaitzen arabera, DM2 izateko arrisku ertaina duten pertsonen kasuan, farmazialariak ohitura eta bizi-modu osasungarriko gomendioak emango dizkie, eta osasun-hezkuntzari buruzko diptiko zehatz bat ere bai. Testak DM2 izateko arrisku handia dagoela dioenean, erabiltzaileari dei egingo zaio gluzemia basaleko neurketa egiteko, odol lagin bat emanda. Gluzemia basala 110mg/dl-tik gorakoa dutenak medikuarengana bideratuko dituzte.

Sahararako biltza hasi da

Saharar Herriaren Lagunen elkarteek elikagaiak eta beste oinarritzko gauza batzuk biltzeko kanpaina dute martxan: 13. Piztu Itxaropena. Tindufeko kanpaleketako sahararrendako, honako hauek batzen dabilta: arroza, lekaleak, azukrea, pasta, atuna, sardinak, olio, helduendako pardelak eta konpresak. Urtarrilaren 21era arte har daiteke parte kanpainan bat egin duten establezimendu eta eskoletan.



GOIENA

Txernobilgo umeak hartzeko familia berriak behar dituzte

Gipuzkoako Chernobilen Lagunen elkarteak udan Ukrainatik etorriko diren umeak hartzeko familia berrien bila dabil. Helburua da janari osasungarria jan eta aire garbia arnastea, defentsak berreskuratuz. Kontakturako bideak: 689 58 62 77 telefonoa eta www.chernobilenlagunak.com webgunea.

Hondakinen informazio bulegoetan aldaketak

Hondakinen Informazio Bulegoetako aurreko arreta zerbitzuak lekuz aldatuko dira otsailaren 1ean. Leku eta ordu-tegi hauek izango dituzte: Aretxabaleta: Arkupe (10:00-13:00, 16:00-20:00); Arrasate: Mankomunitatea (09:00-14:00); Bergara: udaletxea (08:30-13:30); Eskoria: udaletxea (09:00-14:30).

Eskerrik asko!

ANGEL MARIA GARCIA

ARRASATEKO ERREGE KABALGATAKO
BATZORDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko Errege Kabalgatako Batzordeak eskerrak eman gura dizkie hauei guztiei: Udalari, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, SUDCi, Lurraldebusi, establezimenduei, banketxeei eta kabalgatan parte hartu duten herritar guztiei.

Horiei guztiei esker, beste urte batez, ilusioa banatu dugu umeen artean eta Iturbide egoitzan eta Debagoieneko Ospitalean daudenen artean.

'Atsedenen apologia'

LOURDES IDOIAGA URKIA ETA

JON KEPA GERRIKAGOITIA

OÑATIKO EAJ-REN UDAL ZINEGOTZIAK
OÑATI

Izen hori du Ararteko Manuel Lezertuak eta Nafarroako Herri Defentsariak Javier Enerizek argitaratu duten artikuluak (*Noticias de Gipuzkoa*, 2016-10-08). Idatzi horrek Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) iritzia jasotzen du "... kutsadura akustikoak pertsonen osasuna eta osorik izatearen oinarritzko eskubidea urratzen duela" esatean. Idatziak argi uzten du Giza Eskubideen Hitzarmenak "agintariei eskatzen diela pertsonen atsedeen-eskubidea bermatzeko, gauetako zalapartek sortutako zaraten aurkako neurri eraginkorrak hartuz; halaber, udal-agintariei zarata akustikoen aurrean geldotasunez jokatu dutela ere salatzen du.

Gainera, iritzi artikulu horrek jasotzen duenaren arabera, udal-agintarien eginkizuna da zarata sortzen duten jarduerak kontrolpean edukitzea, neurtze-tresneria erostea, herritarren kexei erantzun azkar eta eraginkorra eskaintzea; eta ofiziozko prozedura hastea. Idatzian ez da eztabaidan

jartzen aisialdi-jardueren interesa eta onura, baina horiek jasangarriak izan daitezela eskatzen du.

Ildo horretatik, EAJ-PNVren udal-gobernuak, herritarrekin eta ostalariekin egindako parte-hartze prozesuaren ostean, 2008an, indarrean zegoen ordenantza aldatzea onartu zuen.

Ordenantza-aldaketa horrek behartuta, mugagailuak ezarri behar izan ziren zirean musika-tresneria eta itxiera-ordutegia errespetatu behar izan zen Oñatiko tabernetan. Hala, zigorra jarri zitekeen Kale Zaharreko bizilagunak salaketa ezartzera behartu gabe. Araudi hori indar-indarrean dago oraindik, baina EH Bilduren udal-gobernuak ez du betetzen. Ez hori bakarrik, Kale Zaharrekoen kekek artxibatu ere egin izan dira!

Beraz, Kale Zaharreko bizilagunen eskaerari fundamentuz erantzuteko, EAJ-PNVk Hirigintza Batzordean hiru aldiz eskatu du dagoeneko (2015-09-22; 2016-05-19; 2016-09-15) guneko "zaraten mapa" urgentziaz egitea eta Kale Zaharreko bizilagunekin, ostalariekin eta Hirigintza batzordekideekin lan-mahai parte hartzailea eta iraunkorra osatzea ere exijitu du. EAJren iritzian, arazoa larria da. Ezin da konpondu bizilagunekin noizbehinkako batzarrak eginda!

Oñatiko EAJ-PNVk ostalaritzaren jarduera ekonomikoa babesten du, eta saiakera egin behar da alde guztien arteko adostasuna lortzeko, 2008an egin bezala, horrela bermatuko baita oñatiarren atsedeen-eskubidea.

Kulturolan Union Cerrajera deituraren alde!

JUAN RAMON GARAI

ARRASATE

Union Cerrajerako sarrerako eraikina, bertatik sartu eta irteten ginelako bertako langileak, urte batzuetatik hona, batez ere bertan jarrita zeuden *Union Cerrajera* hitzak kendu zirenetik,

Saiolan-enak jartzeko, Erlojuaren eraikina deitzen dio batez ere Arrasateko Udalak.

Deitura oso okerra, nire ustez, eta eraikin horren benetako historia estaltzen duena.

Eraikin hori 1939an eraiki zenetik, sekula ez da izan Erlojuaren eraikina. *Union Cerrajera* hitzak kentzean *Saiolan* jartzeko, gure herriko historiaren aurkako lehen ekimen bat izan zen; bigarrena Erlojuaren eraikina deitzea da; eta hirugarrena izango litzateke, orain proposatzen den moduan, *Kulturola* izendatzea, *Union Cerrajera* ahazturik...

Euskal Herritarrok Udalean zegoela, Industria Museoa jarri zuten bertan. Lehen urratsa izan zen azken errementeria zen Bixente Barandiaranekin akordio batera heldu eta bere laneko tresnak erakusketa batean jartzeko. Bigarrena Industria Museoa antolatzea, Union Cerrajerako sarrerako eraikinaren bigarren solairuan. Gure historia jasotzen zen bertan, lehen burdina-meatzaritik hasita, Iraultza Industrial, Bixente Barandiaranen tailerra, Union Cerrajera, ELMA, kooperatibak... Zabalik egon zen bitartean, urtebetean 3.000 lagun baino gehiago bertatik pasatu ziren. Bisita gidatuak egin ziren.

Baina alkatetzaren aldatzarekin, Lakuntza alkate zela, Udalak erabaki zuen Industria Museoa bertatik kentzea, bertara Arrasate Musikal joan behar zelako, eta sabaia aldatu zen *auditorium* bat jartzeko.

Udal berri batek ezin du, nire ustez, aurrekoek ondo egindakoak deuseztatu edo kontuan ez hartu.

Udalaren asmoa oraingoan da Aprendices eraikinean Arrasate Musikal jartzea eta sarrerako eraikinean Kulturola gauzatzeko, biak herriko eragileekin batera, txalogarria benetan.

Nire iritzi, oso beharrezkoa da herriko

eragileen artean gure historiaren aldeko eragileak ere kontuan hartzea.

Sarrerako eraikinean *Union Cerrajera* hitzak berriz jarri behar dira, gura baldin badugu kontsekuenteak izan Udalaren asmo honekin: "Eraikinaren jatorrizko izaera berreskuratzea planteatzen du, antzina zituen ezaugarri nagusiak berreskuratuz".

Eskumen kontua da

MANEX AGIRRE

HTTPS://GOO.GL/VNZJOM

Joseba Tapiaren *Real Politik hit* nire gusturako gutxietsi samarrak (udako kantua izan behar zuen argitaratu zen urtean; edukiz kargatuegia izan, ordea, ohituta gauden arinkerietarako) kantagai duena ederki bete dute Jaurlaritzaren bozeramaile gorenak, azken bi asteotan. Urkulluk eta Erkorekak, Iñigok eta Josuk, ulerkortasun neutroz erantzun dute dimentsio pertsonal-politikoaren puxika zuzen-zuzenean zulatu duten bi gertaeraren aurrean ("ados zegoen gurekin / doan eman zigun bostekoa"); baina gobernukide batek, kargua eskuratu eta hurrengo egunerako ederto ikasita izan behar duen mantra-kutsudun esaldiarekin etorri zaizkigu, dotore: "berak ezin zuen ezer egin / ez zen bere eskumenekoa".

Eskumena, berez, ondo definitutako zerbait da; edo badaukazu, edo ez daukazu. Ordea, noski, gauza bat da eskumena bera, eta beste bat daukazu edo ez daukazu eskumenaren gainean eraiki duzun diskurtsoa. Are gehiago, gainera, diskurtso hori bringatu egin badute gertu samar dituzun solaskideek: Fiskaltzak ikertu egingo ditu Juan Kruz Mendizabalen aurkako salaketak, eta hori ez dator guztiz bat (gutziz kontra doala ez esatearren) Iñigo Urkulluk "prozesua" Elizaren ardurapekoa soilik dela esatearekin. Eta, Josu Erkorekaren "hemendik

kanpora gertatutako egitateen" aurrean Jaurlaritzak ardurarik ez duela esatearekin ere ez dator bat (gutziz kontra doa, dena esan behar bada) bere alderdikide Eneko Goiak Sara Majarenas gerturatutako egindako eskaera.

Gertatu dena larria da, eta mina ematen du herritarron ordezkariak ezkutu gisa teknifikazio kronikoa erabiltzea.

Erkoreka eta Urkullu, jaunok, "salatu" edo "exijitu" lakoak gehiegitxo bazaizkizue, "elkartasun", "laguntza" ere hor dituzue. Baina egin zerbait, esan zerbait, babes itzazue zuen herrikideak.

Kontsolamendua

ANJEL LERTXUNDI

HTTPS://GOO.GL/VLOYWU

Aforismo asmatu berri baten arabera, "gero eta botere gehiago, orduan eta segurtasun gutxiago". Boteretsuak badaki etsaiez inguratuta dagoela, badaki bere inguruko lausengarien artean dagoela traizionatuko duen Judas, bere aulkia berotu nahi duen ipurtestua. Boteretsua ere halaxe egon zen itzalean, una egokiaren zain, bere aurrekoa noiz eroriko.

René Goscinnyk, Asterix edo *Lucky Luke* komiki ezagunen gidoilariak –komikia izango da gidoilarietako merezitako garrantzia ematen dien arte bakarra–, *Iznogud* izeneko pertsonaia asmatu zuen: "visirren tokian visirra" izan nahi duen pertsonaia iluna da Iznogud, ezti-ele ipurtzuria bezain azpijale satorra, zimarkuari zimarku dabilena visirren lekuan noiz jarriko.

Orain artekoak aski ez, eta bihartik hasita *ad nauseam* emango dituzte Trumpen inbestidurako irudiak. Goragaleari eusteko, entrenari gaitzen Iznoguden bila haren jarraitzaile kartsunen artean. Zerbaitekin kontsolatu beharra dago...



ZABALIK

ANARTZ AGIRRE

Gora ta gora Euzkadi

Olentzerok euskal selekzioaren ekipazio bana ekarri die aurten Unaxi eta Ametsi. Eta ekipazio hori luzitze aldera, han joan nintzen San Mamesera etxeko bi futbolariak eskutik hartuta.

Bai, gu izan ginen Katedraleko Gabonetako mezara joan ginen urteroko sinestunetako batzuk.

Lau katu harmailetan, politikariak palkoan, jokalaria ofizialtasuna aldarrikatzeko pankartarik gabe zelaira eta bozgorailuetatik *Gora ta gora Euzkadi, aintza ta aintza bere goiko Jaun onari*.

Jo du txistua epaileak eta hasi dira semeak galdezka: "Aita, zergatik ez du euskal selekzioak Eurokopen edo Munduko Txapelketan parte hartzen?"

"Aduriz, Iñigo Martinez eta Oiartzabal euskal herritarrak badira, zergatik jokatzan dute Ramos, Pique eta Casillasekin batera Espainiako selekzioarekin?"

"AITA, ZERGATIK EZ DU EUSKAL SELEKZIOAK MUNDUKO TXAPELKETAN PARTE HARTZEN?"

"Muniainek euskaraz jakin gabe jantzi dezake euskal selekzioaren kamiseta?" – eutsixok/n horri!!!–.

Eta ni isilik atsedenaldua noiz iritsiko amonak prestatutako bokadiloarekin ametsetan.

Baina bokadiloak ere ez zidan urteroko patxangaren zapore mikatza goxatu.

Bigarren zatian ere partidak ildo beretik jarraitu zuen.

"Español el que no bote" lotsati batzuk, independentziaren aldeko oihu otzanak eta halako batean piztu da Katedrala: "Ari, ari, ari, Tokero lehendakari!!!". "Besterik ez genuen behar", pentsatu nuen nire baitarako.

Amaitu da partida. Umeak pozik euskal selekzioak 3-1 irabazi duela eta.


Ni, ordea, triste eta pentsakor itzuli nintzen etxera. Noiz arte jarraitu behar dut semeei gezurretan gure selekzioa Mundialean ikusiko dugula sinistaraziz?

Bestela, datorren urtean Olentzerori edo Errege magoei *La Roja*-ren kamiseta ekartzeko eskatuko diet, semeentzat.

Eta Bernabeu edo Pizjuanera eramango ditut Aduriz, Oiartzabal eta Iñigo Martinez behingoz partida ofizial batean ikusteko. "Yo soy español, español!" kantatzen dugun bitartean...

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



ZEUK ESANA

Zer iritzi daukazu merkataritzaren liberalizazioaz?

IRONIAON

DEBAGOIENA

Oso egokia iruditzen zait; horrela, jabeek nahi dutenean zabaldu eta itxi dezakete denda edo dena delakoa. Inork ezer esan gabe. Eta igandeetan zabaldu nahi dutela? Ba, aurrera. Nori egiten dio kalte, ba? Ez duenak gura ez dezala zabaldu. [Ironia ON]

Nik uste dut erosleok zenbat eta aukera zabalagoa izan, orduan eta gehiago erosiko dugula. Total, igandeetan ere egiten dira erosketak ako: Internetez! [Ironia ON]

POLITIKARI IZAN NAHI DUT

DEBAGOIENA

Nire iritzia? Oso argia: irabazten irtetzen dira merkataritza-gune handiak eta galtzen, berriz, betikoak: denda ertainak eta, batez ere, txikiak.

Politikariek, lehengo lepotik burua.

IRATI

DEBAGOIENA

Denda txiki bat daukat nik, eta nahikoa lan izaten dugu astean zehar zabaltzearekin; lau katu ibiltzen dira...

Denda handiek igandeetan ere zabaltzen badute, non dago gure etorkizuna? Astean zazpi egunez lan egin beharko dugu denda handiei kompetentzia egin ahal izateko; bestela, esango didazue zer egin dezakegun!

Oraingoz, jendeak ez dauka ohiturarik igandeetan erosketak egitera joateko, baina, adibidez, Gasteizen dauden dendatzarrak astean zazpi egunez zabaltzen badituzte, gureak egin du!

Eta okurrizten bazaie urte osoan edukitzea merkealdia?

HURRENGO ZENBAKIAN: ERRUSIAN, 2014TIK AURRERA JAIOAKO EK EZINGO DUTE TABAKORIK EROSI; ZER DERITZOZU? Iritzia emateko posta elektronikoa: berriak@goiena.eus / Webgunea: goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Asko jota, hiru bildots, baina bost aldi berean, inoiz ez"

JULIAN ETXEBERRIA BASERRITARRA

A. Txinturreta/ M. Bikuña ARAMAIO Aramaioko Barajuen auzoko Euzkitza baserrian ardi batek bost bildots izan ditu. Julian Etxeberria da hango ugazaba. **Bos bildots eta guztiak bizirik. Ezusteko itzela izan duzue etxean.**

Bai, horixe. Ez da ohikoa ardi batek bost bildots izatea, eta, are gutxiago, bostak bizirik jaiotzea. Beste leku batzuetan ere egongo da halako kasurik, baina ez da ohikoa. Gure etxean lehen aldia izan da. Noiz edo noiz, hiru bildots jaio dira aldi berean.

Gure ardia intseminazio artifizialarekin geratu zen haurdun. Halakoetan, ume gehiago edukitzea normala izaten da. Bestela, bi bildots izaten dituzte.

Orduan, bostak bizirik egotea ere ez da normala?

Ez. Halakoetan bildotsak oso txikiak izaten dira. Indar eta gorpuzkera txikiarekin jaiotzen dira, eta, askotan, amaren sabelean ito egiten



Julian Etxeberria, bildotsetako batekin. AMAIA TXINTURRETA

dira eta hilda jaio. Oso bitxia da.

Jaioberriak izanik, amarekin batera dituzue. Artalde nagusitik aldentuta. Zergatik?

Bildotsak indartu arte, bananduta egoten dira.

Artaldean, pilan ipiniz gero, akaso, min hartuko lukete beste ardiekin. Komeni da lehen egunetan lasai egotea. Gainera, amak eta umeek marka berbera daramate belarrarian. Noren umeak diren

identifikatzeko erabiltzen dugun seinalea da.

Amaren ondoan egonda, amaren esnea nahikoa dute hazteko?

Lehen egunetan amaren esnea bakarrik hartzen dute, baina, laster, biberioia hartzen hasi beharko dute. Beste ardi batzuk jetzi eta haien esnea biberioian hartuko dute. Amarena ez da elikagai nahikoa eta ez dira ondo haziko.

Bildotsak indartu eta gorpuzten direnean, zer egingo duzue haiekin?

Ez dugu gaztarik egiten, baina esnea saldu egiten dugu Aramaion. Ikusiko dugu zer egin bildotsekin.

Jaioberriez gain, badituzue beste bildots batzuk ere. Orain da sasoi?


Askok Gabonetako otorduarentako erabiltzen dute bildotsa. Azaro bukaera sasoi ona izaten da, baina halakoetan ez dago data zehatzik. Ardi batzuk atzeratu egiten dira eta beste batzuk aurreratu. Horien menpe gaude.

Euzkitza baserrian baserritarrak zarete lanbidez.

Ni neu baserritarra izan naiz betidanik. Orain, iloba Julenen laguntza ere badut etxean. Arantzazuko Artzain Eskolan ikasi zuen eta hasi da etxeko martxa hartzen.

HAU BE BADOGU!

Boluko luiziak, oihartzuna sarean



Boluko luiziak oihartzuna izan du erabiltzaileen artean, eta baita atzerriko hedabideen artean ere:

@RTn euskadi: "#Euskadi Bergarako Udaleko teknikariak eta geologoak boluko luiziaren ostean egoera aztertzen ari dira" (itzulita).

@Sanfermin00: "Bergaran zortzi familia ezin izango dira euren etxeetara bueltatu" (itzulita).

#Arantzazu, elurpean gozatu dute



Arantzazu zurituta gozatzeko aukera izan dute. Goian, Joseba Elustondo erabiltzaileak ateratako argazkia:

@josebaelustondo: "#Arantzazu #Butreaitz #Urbia inguruak gaur goizean. Tarteka eguzkia ere, lujo bat! @Eguraldia".
@ekaitznafarrate: "Hemen elurra maite duen bat! #Arantzazu #Elurraazkenean" (itzulita).

#Energia traola 'trending topic' izan da

Argindarraren prezioaren bat-bateko igoeraren aurrean erabiltzaileak sutan jarri dira:
@davidetxe: "Hau amorrua! Sutan nago. Ederki saihestu zitekeen argindarraren prezio igoera, hainbat iruzurgilek lapurtutako dirutza horretara bideratuz gero".
@chemadueso: "Argiaren prezioaren igoera petrolioagatik dela diotenak eguzki energia zigortzen duten berberak dira" (itzul.).

ITURRI ONETIK

Aratusteetako zapatuan, bazkaria

Mozorro bazkaria antolatuta du lehen aldiz Bergarako Udalak Aratusteetara begira. Zapatuan egin nahi dute, hain justu ere, otsailaren 25ean. Txartelak otsailaren 1ean jarriko dituzte salgai, Pol-Pol eta Ariznoa tabernetan eta Bergarako Udaleko kultura zerbitzuan. Horrez gainera, jai bera antolatzen ere badihardu. Ez bakarrik Aratusteak. Pentekosteak, Bergarako jai nagusiak ere antolatzen hasteko bileretan hasi da dagoeneko bertako Udala herritarren partaidetzarekin.

GORA ETA BEHERA



IMANOL BELOKI

Ikusgaitasun eskasa zebra-bidera ailegatzean



Zebra-bidea baino justu lehenago aparkatuta dauden ibilgailuek eraginda batetik, eta iluntzen duenean inguruan dagoen argitasun eskasak eraginda bestetik, Eskoriatzako bizilagun batek abisatu gura du Aranburuzabala kalean dagoen zebra-bidea gurutzatzen dabiltzan pertsonak ezustean eta azkeneko momentuan ikusten dituela gidariak, horrek dakarren arriskuarekin.

Fokua, pertsonen begira aurten ere

2017ko aurrekontuan 550.000 euro inguru gutxiago izango du Udalak eta murrizketa horren aurrean Gobernuaren lehentasuna da herritarrendako zerbitzuak bermatzea; inbertsioen artean, Kulturola egitasmora eta Makatzenara bideratuko da diru gehien

Jokin Bereziartua ARRASATE

2016rako (32.078.733 euro) baino 550.000 euro gutxiago izango du Udalak 2017rako (31.520.472 euro). Diputazioak berriki egindako balio katastralaren egokitzapenak zuzenki eragin du Udaleko finantzian, sarrerak jaitzita. Era berean, Udal Gobernuak (EAJ-PSE-EE) erabaki zuen herritarren presio fiskala ez igotzea hainbat tasa eta zergatan, bereziki herritarren eragin zuzena dutenetan. Horregatik ere sarrerak behar bezala egin dute. Gainera, obra edo eraikuntzen gaineko zergatik Udalak jaso ohi zituen sarrerak murriztu egin dira -340.000 euro inguru-, orain bertan ez dagoelako inolako eraikuntza berririk.

Gobernuaren proposamenaren aurrean abstenitu egin zen EH Bildu, eta, osotasunerako emendakinek babes nahikoa jaso barik geratu ostean, kontra bozkatu zuten Baleikek eta Irabazik.

Etxezarreta: bilera jabeekin

Aurrekontua lantzerakoan oposizioak proposatutako aldaketa azpimarragarriena Etxezarreta eremua erosteko prozesua martxan jartzea izan zen. Arrazoi hori erabakigarria izan zen, adibidez, EH Bilduk abstentziora jotzeko. Gobernu urtarril hasieran jarri zen harremanetan eremuaren jabeekin: "Hitz eman genuen bezala familiako bozeramaileekin bildu ginen. Erosketa burutzeko borondatea erakutsi genuen eta mahai gainean jarri ziren horrelako erosketa bat burutzeak behar dituen azterketa eta tramitazio guztiak: eremuaren balioa justifikatzen duten txostenak, interesa, zergatia... Erosketa oso ondo oinarrituta egon behar da; guztiaren gainetik herriarentzat izan de-

zakeen interesaren gaineko balorazio sakona eta zintzoa behar du ezinbestean".

Kale garbiketa, obrak eta wifia

Udaleko pertsonal gastuez harago, diru gehien baliatuko duen saila izango da Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak (OZMA). Batzordeburu Oscar Garciak aurreratu duenez, kale garbiketarako kontratu berria sinatuko da 2017an: "Gobernura heltzerakoan konturatu ginen auzoek eta beste zenbait gunek ez zituz-

tela garbiketa maiztasun duinak; kontratu berriarekin zerbitzua asko hobetzea espero dugu".

Obren artean, aspaldian esku hartzerik izan ez duten zenbait kale berri urbanizatzekeko prozesuak irekiko dira 2017an, hala nola, Anboto kalea, General Garro, Errebelta kalea eta Uribarri kalearen atzealdea. Horrez gain, urtarril amaierarako doako wifia jartzea espero dute erdigunean, Portaltoitik Garibai etorbideko geltokiraino. Arimazubiri ere jarriko dute.

Gastuaren banaketa

Saila edo arloa	Euroak	%
Pertsonal gastuak	10.275.342	%32,60
Obrak, zerbitzuak, mantenua eta auzoak	6.942.907	%22,03
Kultura eta euskara	3.200.672	%10,15
Hondakinen kudeaketa	1.765.553	%5,60
Gizarte ongizatea	1.630.701	%5,17
Berdintasuna eta garapen komunitarioa	1.438.520	%4,56
Kirola	1.301.091	%4,13
Ur hornidura partzuergoa	1.000.000	%3,17
Hirigintza, ingurumena eta mugikortasuna	975.190	%3,09
Enplegua	880.619	%2,79
Pertsonal eta informatika saila	765.150	%2,43
Gobernu organoak	361.510	%1,15
Udaltzaingoa	260.590	%0,83
Toki garapena	202.297	%0,64
Ogasuna	188.469	%0,6
Guztira	31.188.611*	%100

* Aurrekontu osoa 31.520.472 eurokoa da; 331.868 euroko aldea. ITURRIA: ARRASATEKO UDALA gobernuaren arabera, udalak ordaindu beharreko mailegu bati dagokio.

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

"Ongizatean eta enpleguan gehiago inbertitu dugu, pertsona lehenetsita"

MARIA UBARETXENA ALKATEA

Zeintzuk dira aurrekontuaren giltzak edo lehentasunak?

Pertsonak dira gure lehentasuna. Horregatik, Gizarte Ongizaterako inbertsioa %7 igo da eta Enplegu Saila %9; langabeak eta gazteak kontratatzekeko programa 58.000 euro handitu da, besteak beste. Aurrekontua kudeaketarako tresna finantzario bat da, eta, kontuan izanik aurrekontuaren heren bat gastu pertsonalak direla, guk aurkeztutako proposamenak erantzuten dio, alde batetik, arrasatearrek jasotzen dituzten udal zerbitzuei erantzuna emateko behar diren baliabideak edota diru partidak jartzera. Bestetik, Udalera sartu ginenetik zehaztutako proiektu edo lehentasunak gauzatzeko

baliabideak jartzen dihardugu.

Nola landu duzue aurrekontua oposizioarekin?

Jarrera irekiarekin eta talde guztiekin adostasuna bilatzeko asmoarekin. Eskertzen ditugu oposizioaren lana eta proposamenak.

Nola baloratzen duzue EH Bilduren abstentzioa?

Politikan garrantzitsua da malgutasuna eta ezberdinekin akordioetara iristeko borondatea izatea, eta, hortaz, positiboki hartu dugu EH Bilduren abstentzioa.

Eta Baleikek eta Irabazik kontra bozkatu izana?

Emendakinak landu genituen talde guztiekin, gure borondate ona adieraziz, eta nahiz eta alde aurretik jakin osotasunera emendakina aurkeztuko zigutela eta gure aurrekontu proiektuaren aurka bozkatu, alderdi ezberdinek proposaturiko hainbat emendakin aurrekontuan txertatu genituen, ulertzen dugulako gure aurrekontua osatzeko balio lezakeela eta interesekoak badira kontutan hartu beharrekoak direla. **Ezer gaineratu nahiko zenuke?**

Proiektu konkretuez harago, bizikidetzeta eta bakea oso garrantzitsuak direla. Esparru konplikatua izan arren baikorrak gara etorkizunera begira, gure herrian ere aurrerapausoak ematen ari gara eta.

"Pozik gaude aurrekontuarekin, lanerako irrikaz"

OSCAR GARCIA ALDERDI
SOZIALISTAKO BOZERAMAILEA

Non jarri du fokua PSE-EEK?

Pertsonengan. Lehen helburua ongizate zerbitzuak bermatzea izan da; ez da gure arloa, baina gobernuak eskuzabal aritu da, eta bat etorri gara asmoetan. Bestalde, kontuan hartu behar da murrizketa garrantzitsua izan dugula, baina ez genuen nahi Arrasate berri murgiltzea dinamika pasibo baten; herria dinamizatzeke eta zerbitzu hobekuntza eskaintzeke proiektuak ditugu.



J.B.

Zein izan da EAJrekin izan duzun lan metodologia?

Prozesu naturala izan da. Gure artean asko hitz egin dugu, ordu askoko lana izan da. Gai batzuetan, erraz ulertu dugu elkar; beste batzuetan, zailagoa izan da akordioa heltzea. Hala ere, aurrekontu orekatua da eta argi dugu Arrasate aurrera egingo duela martxan jarriko ditugun proiektuekin. Pozik gaude aurrekontuarekin, lanerako irrikaz.



EH Bilduko Eneko Barberena. J.B.

"Lan egiteko era anbigua eta iluna dute"

"Udal Gobernuaren borondate eta koordinazio faltak aurrekontua zuhurtziaz begiratzera behartzen gaitu. 2016an gertatu moduan, prozedura ez da batere egokia izan; batzordeetako aurkezpenak eskasak eta aurrekontuen memoria egoki baten falta ditugu adibide. Horrek Udal Gobernuak parte hartzean egiten duen apustu ahula agerian uzten du, ez ditu-eta udal txekio bertako erabakitze esparruak behar bezain besteko maiztasunez erabiltzen. Bestalde, beste behin ere, borondateen titularrak eskaintzen dizkigu EAJ-PSE-EEren koalizio gobernuak, baina ez konpromiso eta egikaritzatza. Izan ere, aurrekontuetan adierazten diren partida asko ez dira bete; ondorioz, gauzatu gabeko proiektuak bilakatu dira. Zentzu horretan, EH Bildurekin akordioa egin zuen gobernuak Etxezarreta erosteko. Urtea hasia dugu eta arretaz jarraituko dugu gaia, harturiko konpromisoak bete daitezten. Gobernuaren lan egiteko modu anbiguoak gaia arretaz jarraitzea behartuko gaitu, baita aurrekontuen betetze maila jarraitzen. EH Bildutik gobernuaren lan egiteko modu ilunak, argiz eta gardentasunez bete nahi ditugulako".



Baleikeko Igor Urizar. J.B.

"Herritarren beharrak ez ditu asetzen"

"2017ko aurrekontuak erakusten du, berriro ere, Udal Gobernuak ez dituela Arrasateko arazoak ezagutzen eta ez zaizkiola axola. Gobernuak ez dabil herritarren beharrak asetzeko kudeatzen, interes alderdikoiak asetzeko baizik. Zaila egiten zaigu ulertzea Arrasateko ehunka langabe izanik, bailarako kopururik altuena, EAJK eta PSE-EEK aurrekontuko %2 erabiltzea enplegurako eta %10 hirigintza arlorako. 200 familiak baino gehiagok Eliakagai Bankura jo behar dutenean, Gizarte Zerbitzuetan %6 erabiltzea eta Obra eta Mantenuetan %28... Guk beste lehentasun batzuk identifikatzen ditugu; aurrekontu honek ez ditu arrasatearren behar nagusiak asetzen".



Irabaziko Juan Luis Merino. J.B.

"Pertsonak jartzen ditugu erdigunean"

"Udal Gobernuaren proposamenari 29 emendakin aurkeztu genizkion, eta, hasiera baten onartzeok baziren ere, zirriborroan ez ziren jasotzen. Gainera, e-postaz esan ziguten emendakin horietako batzuk onartuko zirela baldin eta ez bagenuen kontra bozkatzen. Hori xantaia egitea da, eta, horregatik, osotasunera aurkeztu genuen emendakina. Enplegua sustatzeak, gizarte zerbitzuek eta ingurumenak kezkatzen gaituzte; gobernu honek, berriz, erlojuaren eraikina eta Aprendices, Gabonetako argiak eta patinaje pistak ditu lehentasun. Irabazik pertsonak jartzen ditu erdigunean; Udal Gobernu honek, ez".

2017rako inbertsio aipagarrienak



Eraikinaren muntaia. Murala ez da hori izango, MuralArt-ek egingo du. UDALA

Kulturola (1.250.000 euro) Erlojuaren eraikina eta Aprendices zaharberri eta kultura taldeentzat "gune estrategiko" bihurtzeko proiektuaren barruan, Udalak Jovino Martinez Sierra enpresari esleitu dizkio erlojuaren eraikina zaharberriren idazketa eta zuzendaritza lanak (90.500 euro); sei hilabete izango ditu Martinez Sierrak behin betiko proiektua zehazteko. Eraikinak Zerrajera zenaren izaera berreskuratuko du eta Udalak espero du obrak aurten hasten ez badira, obren exekuzioa 2017an adjudikatzea, behintzat. Obren aurrekontua 3.500.000 eta 4.500.000 euro artekoa izango da.



Makatzenako frontoia eta ingurua berritzeko lanak aurten hasiko dira. UDALA

Makatzena (300.000 euro) Frontoia eraberritzea, jolas parke estali bat jartzea eta aparkalekuak egokitzea da asmoa. Uda ostean hasiko dira obrak. Igogailua jartzeko obrak 2018an hastea espero du Udalak.

Diru sarrerak eta irteerak 100 euro bakoitzeko

Sarrerak 100 euro bakoitzeko

- **48,81 euro** beste erakunde edo administrazio batzuen diru laguntza arruntetatik; horietatik 44,56 euro Udala finantzatzeko Foru Fondotik.
- **48,04 euro** udal zergetatik.
- **1,26 euro** zorpetzearen bidez. Hau da, mailegu berriaren bidez, "teorian". Izan ere, Udalak ez du espero aurten mailegurik sinatu behar izatea.

- **0,70 euro** ondareak saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamendutik.
- **0,46 euro** inbertsioak finantzatzeko kapital diru laguntzetatik.
- **0,44 euro** ondare sarreretatik.
- **0,29 euro** langileen aurrerakinak itzultzetik eta beste kontzeptu batzuetatik.

Irteerak 100 euro bakoitzeko

- **33,82 euro** pertsonal gastuei aurre egiteko.
- **33,16 euro** udal zerbitzuetarako: garbiketa, argiteria, lorezaintza, ludotekak eta gazte txokoak, kirol zerbitzuak...
- **15,67 euro** transferentzietarako edo diru laguntzetarako.

- **13,13 euro** inbertsioen zuzeneko exekuziorako.
- **2,44 euro** beste erakunde batzuen inbertsioak diruz laguntzeko edo elkarrekin finantzatzeko.
- **1,05 euro** banketxeekin hartutako konpromisoei aurre egiteko.
- **0,57 euro** finantza aktiboak erosteko.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

EITBn azpitoluak euskaraz

Zinemaldian gero eta pertsona gehiagok parte hartzen du. Ilusioz betetzen oi da zinemas zinema ibilian eta pelikula bat baino gehiago ikusiz egun bakoitzean. Zerbait berezia egin duzun sentsazioak biltzen zaitu, egunerokotik at. Eta osteko tertulietan, aipatuena, beste hizkuntza baten ikus-entzutearena gailentzen da. Zinema bertsiio originalean ikus-entzuteak zirrargarria bihurtzen baitu momentua. Honen harira, ideia bat datorrit: zer gertatuko litzateke Netflix-en beharrean, serie famatuetakoko bat, EITBn, gazteengana, bertsiio originalean eta euskarazko azpitoluekin helduko balitz? Inork esango luke bide horretatik euskararen erabilera ez dela bermatzen. Baina bai ulermena, kostuak gutxitzea eta handiena dena, ikuslegoa erakartzea, baita euskaldun berriak ere. Formula perfekturik ez da egonen, baina frogatu ezean aukera galdu besterik ez da egiten. *Azpitoluak.com* Luistxo eta lagun webmasterrak ahalbidetzen digu filmak bertsiio originalean ikustea, euskaraz irakurriz dialogoak. Iaz jaso zuen Interneteko Argia saria, eta, diotenez, horrek jendea animatu eta 2016an, webgune honek ekarpen berri gehien ikusi dituen urtea izan da. Bada, beraz, ikusle potentzialik!

Zuhaitz feria eta baserritarren azoka bihar Seber Altuben

Urtarrileko baserritarren azokarekin batera zuhaitz feria antolatu du Udalak biharko –Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara–. Euskal Herriko sei mintegi onenak etorriko dira; feriara joaterik ez dutenek enkarguz ere eskatu ahaliko dute: Zaldibarko Areitio (608 879 352), Igorreko Artadi (680 937 875), Zaldibarko Belar (629 484 151), Gatikako Etxebarria (646 514 154), Zarauzko Lurberry (657 719 685) eta Arrasateko Udalatx (690 610 822). Baserriko produktuez osatutako hamahiru postu egongo dira biharko azokan.

ARRASATE IRRATIA

Zozketa interesgarriak

Kooltur Ostegunak-en Sumision city blues taldeak eskainiko duen kontzerturako eta egubakoitzeko Francoren bilobari gutuna ikuskizunerako sarrerak zozketatuko dira hurrengo astean. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo *irratia@goiena.eus*.

Emakume Txokoa

Astelehenean, hilak 23, irekiko dira Emakume Txokoko eta Jabetze Eskolako ikastaroetarako izen-emateak. Emakume Txokoko Esther Lizarralde etorriko da *Igo autobusera!* saiora; ikastaro interesgarrienak izango ditu hizpide Lizarralde.



Jose Mari Unzueta, Maria Ubarretxena, Aintzane Oiarbide eta Mikel Urribetxebarria atzo, Bedoñarako errepedean. JOKIN BEREZIARTUA

Lana ingurua eta Bedoña, Diputazioaren lehentasun

Aldundiak ia milioi bat euroko inbertsioa egingo du aurten Lanan biribilgune berria egiteko eta aspalditik Bedoñako errepede inguruan ematen diren lur mugimenduak egonkortzeko; ekainean hasiko dira obrak eta espero da urte amaierarako bi proiektuak gauzatzea

Jokin Bereziartua ARRASATE

Udalaren eskaerei erantzunda, Gipuzkoako Diputazioak bi proiektu esanguratsu gauzatuko ditu aurten Arrasaten. San Andres auzoan kokatuta dagoen Lanako lotura –saihesbiderako edota Bedoñarako bidean dagoen bidegurutzeara– birmoldatu eta biribilgune bilakatuko dute eta Bedoña auzorako errepedean eskoilera bat eraikiko dute aspalditik ematen diren lur mugimenduak egonkortzeko. Errepidearen zabalera ere bost metrora handituko dute, bidearen segurtasuna bermatzeko asmoz.

Lanako bidegurutzearen gaur egungo konfigurazioaren ondorioz mugimendu gatazkatsuak sortzen dira ibilgailuen zein oinezkoen aldetik. Hori horrela, bi behar nagusi erantzutera dator proiektua: "Bide segurtasuna eta oinezkoena bermatu nahi ditugu", adierazi zuen atzo egingo prentsaurrekoan Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek. Bestetik, Fagor Eder-

lanen planta berria San Andre-sera datorrela jakiteak ere lehentasunezko izaera eman dio gaiari, Oiarbideren arabera, azpiegitura egokiak bermatzea enpresei lehiakorragoak izaten ere laguntzea badelako. "Jarduera ekonomiko berri horrek trafikoa ere handitu egingo du", gaineratu zuen. Lanako proiektuaren aurrekontua da 600.000 mila euro pasatxokoa; horietatik 400.000 euro inguru Diputazioak ordainduko du eta 200.000 euro Udalak.

Bidea ireki eta eremua egonkortu

Bestalde, Bedoñarako errepede inguruko lur mugimendua egonkortu egingo da. Gaur egun, Bedoñako auzo alkate Jose Mari Unzuetak lekuan bertan nabarmendu zuenez, lur mugimenduak errepidearen galtzadari zuzenean eragiten dio eta arriskutsua da bertako auzotarrentzat. Urte luzez egindako eskaera bati erantzungo zaiolako pozik dago Unzueta. Eremua egonkortzeko, alde batetik 78 metroko luzera

eta hamaika metroko altuera izango dituen eskoilera bat eraikiko da azpi aldean eta, bestetik, errepidearen gainaldean eusteko bi horma egingo dira. Bi hormek hiru metroko altuera izango dute, hamahiru eta 32 metroko luzerarekin, hurrenez hurren. Lan horietarako aurrekontua izango da ia 550.000 eurokoa. Errepidearen zabalera bost metrora handituko da, errepideko segurtasuna bermatzeko. Obrak ekainean hastea espero du Diputazioak. Lanako biribilgunerako ia sei hilabete beharko dira eta Bedoñako errepedea ireki eta egonkortzeko lanek hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten da.

Alkatearentzat "oso berri ona" da bi proiektuak Diputazioaren 2017ko lehentasunen artean egotea: "Bedoñako bide berria, urtetako eskaera izan dena, behingoz gauzatu egingo da. Bestetik Lanako biribilgunea dago, gaur egun bidegurutzeari arriskutsua dena gune seguru bihurtzeko".

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saiola Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Laguntza eskolarrak

Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak

Estimulazio goiztiarra

Logopedia

Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

arrasate Herri Eskola

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

HAUR HEZKUNTZAN ETA
LEHEN HEZKUNTZAN

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Bilera informatiboak:

- Urtarrilaren 26an, 18:00etan **Musakolan**
- Urtarrilaren 31n, 18:00etan **Bedoñaben**
- Otsailaren 2an, 18:00etan **Erguinen**

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala irailean, uztailan eta gorriz ez diren eskolako opor egun guztietan

**GUZTION ESKOLA,
GUZTION ARTEAN**



Lauko finalean 'dobletea' egin dute Ointxe!-koek

"Gozatzea", horixe zen joan den astean Iturripen jokaturako Lauko Finalean Arrasateko taldeei eskatu zitzaiena. Eta eskatutakoa ondo bete zuten MUko kadete mailako neskek eta gazte mailako mutilek; Euskal Ligan izango dira datorren urtean

Xabier Urzelai ARRASATE

Ez da kasualitatea izan, Lauko Finalak Arrasatera ekartzeko eskaera zerbaitengatik egin zuten Ointxe!-ko ordezkariak, bazekiten kadete mailako neskek eta gazte mailako mutilek aurrera egiteko aukerak zituztela, eta kantxan erakutsi zuten hori.

Ondo sufrirtuta, baina aurrera

Gazte mailako mutilek lehenengo finalerdia 61-60 irabazi zuten Loiola Indautxuren kontra. Hala, domekako finala geratzen zen, eta, ustez, kontrario gogorra gaudituta zegoen. Finalean, baina, markagailuak erakusten ez badu ere (67-53), Easok hortzak erakutsi zituen, eta lehia parekatua jokatu ostean lortu zuten MUko ordezkariak garaipena, eta Euskal Ligarako txartela.

Neskek ere sari berbera

Domekako ospakizuna, baina, bikoitza izan zen, kadete mailako nesken taldeak ere lorpen berbera egin zuten eta. Hasteko, zapatuan, Gipuzkoako txapel-duna (MU) eta Arabakoa (Araski) izan ziren aurrez aurre Musakolan, eta Arrasatekoek (79-45) nagusitasun handiz lortu zuten finalerako sailkatzea.

Finalean Iñaki Ogararen taldeak Cafes Aitona zuten zain, eta ligan bi talde horien artean izandako partiduek erakusten zuten lehia estua izango zela. Hor ere markagailuak ez zuten ondo erakutsi kantxan izandako parekotasuna, baina, Iturripeko harmailek bultzatuta, mailaz igotzea lortu zuten.

Mondragon Unibertsitateko bi talde horiek asteburuan bertan A1 multzoa hasiko dute. Horrek esan gura du EAeko talde onenen kontra neurtuko dituztela indarrak. Gazteek Electro Alavesaren kontra jokatu dute bihar (12:00, Iturripe), eta kadeteek Easo izango dute kontrario (18:00, Donostia).



Gazte mailako MU taldea, finala irabazi berritan. M.BIKUÑA



Kadete mailako MU taldeak sudur gorriarekin ospatu zuten igoera. M.BIKUÑA

Non egon da finalaren gakoa?



JOSE MARI BALTZATEGI
GAZTE MAILAKO ENTRENATZAI.

"Zapatuan puntu bateko aldearekin irabazi genuen, eta finalean, berriz, oso partidu borobila egin genuen. Gauza bakarra eskatu genien jokalariei, gozatzeko. Denbora asko daramate lanean, gauza asko ikasi dituzte, eta finalean garrantzitsua zen presioa alde batera utzi eta gozatzea".



IÑAKI OGARA
KADETE MAILAKO ENTRENATZAI.

"Denboraldiko helburu nagusia astero-astero hobetzen joatea izan da, eta Lauko Finalean gozatzea zen gura genuen gauza garrantzitsua, eta lortu dugu. Cafes Aitonakoak urtebete nagusiagoak ziren, eta, hala ere, aurre egiten asmatu genuen, besteak beste, hiruko marratik asmatuta".



Gaztediren kontrako partiduko une bat, artxibo irudian. IMANOL SORIANO

Lider sendo moduan hasi du urtea Arrasate Errugbi Taldeak

Funes taldearen kontra –Nafarroan– erraz irabazi ostean Bilboko Unibertsitatekoen bisita izango dute bihar

X.U. ARRASATE

Sendotasun handiz hasi du ARTk 2017a, Funesi errepasso ona emanda (12-59). Gainera, Nafarroa aldera egindako bidaiari Igor Isasik 15 jokalaria izan zituen eskura; hau da, ordezkari barik egon ziren. Hala ere, lehenengo zatirako zuri-moreek zazpi puntuko abantaila zeuka-

ten (12-19) eta bigarren zatian Funes-ek nabarmen egin zuten behera (12-59).

Asteburuan bilbotarren bisita

Asteburuan –ordua zehazteko dago– Bilboko Unibertsitatekoak izango dira Mojategin. Sailkapenean 9. postuan daude bizkaitarrak.

Zikloturista lizentziak eta bazkide berriak egiteko deialdia

Debagoiena Txirrindularitza Taldeak denboraldi hasierarekin batera zikloturista lizentziak berritzeko eta bazkide berriak egiteko kanpaina hasi du. Horretarako, klubeko atek zabalik egongo dira urtarrilaren 24an, 25ean eta 26an (19:00-20:00), eta e-postaz ere egin ahal izango da izenematea, debagoiena.tx.k@gmail.com helbidera idatzita.

Klubeko atek zabalik daude

Bestalde, zikloturista taldeak bazkide berriak egin gura ditu, eta interesa duenak Ignazio Zuloagan duten lokaleko atek zabal-zabalik daudela adierazi dute (10. zenbakia, behe). Izan ere, bazkideek bertako instalazioak erabiltzeko eskubidea dute –gimnasioa eta guzti dute bertan– eta instalazio horiek interesa duen edonori erakutsi gura dizkiote. Horrekin batera, klub moduan hainbat ekimen egiten dituzte urtero.

EBA mailako MUK Pas Pielagos hartuko du bihar Iturripen

Ezohiko ordutegian jokatu du MUK bihar, zapatua, Iturripen (16:00). Josu Larreategiren taldeak Pas Pielagos izango du aurrean, hain zuzen, sailkapenaren erdian dauden bi talde izango dira zein baino zein gehiago. Burgosen 70-75 galdu ostean, etxean garaipena behar dute zuri-moreek.

Ford Mugarri Arrasatek Basauri hartuko du domekan

Azken urteotan Iturripetik pasa den kontrario gogorretako baten bisita izango dute domekan arrasatearrek (11:00), lider dagoen Basauri izango dute-eta aurrean. Arrasateko taldea ez dago aurreko urteotako maila berean, baina oraindik erreferente dira Euskadiko Txapelketan. Bizkaitarrak estu hartu gura dituzte.

AEDren Arrasate Literatur Lehiaketan 30. urteurrena

Aurten hiru hamarkada beteko dituzte Arrasate Literatur Lehiaketek; nobedade gisa, 'Zurekin Arrasate Euskaldunago' kanpainaren barruan sari berezi bat banatuko zaio batxilergotik gorakoen artean 'Arrasate euskalduna' gaia jorrazten duen lanik onenari

Jokin Bereziartua ARRASATE

AED euskara elkartearen Arrasate Literatur Lehiaketek 30 urte bete dituzte aurten: "30 urte, Debagoiengan, euskarazko literatura, irakurtzeko zaletasuna eta sormena sustatzen". Urteurren borobila aitzakia hartuta, nobedade bat ere badago edizio berezi honetan, AEDk jakitera eman duenez: "Ekin Emakumeak, Txatxilipurdi eta AED elkarteek *Zurekin Arrasate Euskaldunago* kanpaina abian daukagula-eta, sari berezi bat emango zaio batxilergotik gorakoen mailan *Arrasate euskalduna* gaia jorrazten duen lanik onenari".

Azken eguna: martxoaren 31

Sari berezi horrez gain, ohiko hiru sailak izango ditu aurtengo edizioak: ipuina, poesia eta bertso-paperak. Horietan libreza izango da aukeratu beharreko gaia. Lehiaketetan Debagoiengan bizi, lan egin edo ikasten duen edonork har dezake parte, eta aur-

kezten diren lanak soilik euskarazkoak eta inoiz saritu edota argitaratu gabeak izan beharko dira. Parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez dezake eta idazlanak tarte bikoitzez eta ordenagailuz idatzita aurkeztu behar dira. Lanak lelo batez sinatu behar dira; bi modu daude lanak entregatzeko: posta elektronikoz (aed@aedelkartea.eus) edo ohiko posta zerbitzuaren bidez (Pablo Uranga 4, behea. 20500 Arrasate).

Lanak posta elektronikoz bidaltzea erabakitzen duenak bi dokumentu bidali beharko ditu; bi dokumentu horietako baten lehiaketara aurkeztutako idazlana joango da, lelo batez sinatuta eta egilearen izenik gabe. Bestean, berriz, honako datu hauek zehaztu beharko dira: idazlanari jarri zaion leloa, egilearen izen-abizenak –bat baino gehiago bada, guztienak aipatu–, jaiotza-data, ikasturte honetan zein mailatan dabilen, etxeko helbidea eta posta elektronikoa

zein kontakturako telefono zenbakia. Aldiz, postaz inprimatuta entregatzea gura duenak idazlanaren hiru kopia aurkeztu beharko ditu, lelo berarekin sinatuta hiruak. Horrekin batera gutun azal itxi bat aurkeztuko da, arestian aipatutako datu guztiak zehaztuz barruan. Lanak aurkezteko epea martxoaren 31n




lazio saridunen talde argazkia, Kulturareko areto nagusian. JOKIN BEREZIARTUA

amaituko da eta lanok AEDk aukeratutako epaimahai batek baloratu ostean maiatzaren 5ean kaleratuko dute finalisten zerrenda AEDren webgunean

(www.aedelkartea.eus) eta toki-ko komunikabideetan. Irabazleen izen abizenak, berriz, maiatzaren 11n egingo den sari banaketa ekitaldian jakinaraziko dira.

BASERRITARREN AZOKA ETA ZUHAITZ FERIA



Urtarrilak 21

zapatua

Arrasaten. Seber Altube
plazan (08:00 - 14:00)

Mintegiak:

Areitio, Artadi, Belar,
Lurberry eta Udalatz

Espezieak:

Fruta-arbolak, koniferoak,
baso eta lorategiko landare
autoktonoak, basoko fruitu
txikiak, landare ekologikoak...

Jai Zale tabernaren bigarren urteurrena ospatzeko asteburua

Hasteko, gaur, egubakoitza, Laurobaren kontzertua izango da, eta segidan Kamarheroia –Jai Zaleko tabernariak–. Bihar, berriz, 12:00etan bertso saioa Julio Sotoren eta Amets Arzallusen eskutik. Beñat Zamalloa izango da gai jartzailea. Horren ostean, 13:00etan, *Arrasateko gaziok euskaraz bizitzera goiaz!* kanpaina borobiltzeko, bideklipa grabatuko dute. Gero, luntxa izango da. 18:30ean, Etxezarretaren eta Garroren eskutik trikiti saioa izango da. Bukatzeko, domeka goizean pintxo-potea egingo dute eta arratsaldean, 18:30ean, Albiste Kaxkarrak taldearen kontzertua izango da (Berri Txarrak-en bertsioak).

Gaztelaniazko lehen literatura solasaldia, eguaztenean

Bibliotekan literatura solasaldiekin jarraituko dute aurten ere. Gazteleraazkoetan Ruben Angel Arias gasteiztarra arituko da koordinatzaile lanetan. Lehen hiruhilekoan literatura hegoamerikarra jorratuko dute, kontinente horretako hiru idazleren liburu bana hartuta.

Bada, lehen saioa datorren eguaztenean egingo dute, urtarriaren 25ean. Egun horretan, Samanta Schweblin idazle gaztearen *Distancia de rescate* liburu izango dute hizpide. 18:30etik 20:30era izango da saio hori.

Hurrengo liburuak Alejo Carpentierren *El reino de este mundo* eta Juan Carlos Onettiren *Los adioses* izango dira.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN





Udal ordezkariak, elkarteetakoak eta herritarrek eguaztenean egindako bilera irekian. MIRARI ALTUBE

Herritarren parte-hartzea ordenantzarekin zehaztua

Parte-hartze ordenantza zehazten dabilta azken hilabeteetan eta eguaztenean egindako bilera irekian adostu zituzten orain arte jasotako ekarpenak. Zirriborroa Udalaren webgunean zintzilikatuko dute hamabost egunez azken iritziak jasotzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Urriari jarri zuen abian Udalak parte-hartze ordenantza zehazteko prozesua eta udal ordezkariak eta langileak, herriko elkarte esanguratsuenetako ordezkariak eta herritarrek jardun dute horretan, Aztiker ikerguneak gidatuta. Orain arte egindako ekarpenak adostu zituzten eguaztenean eta datorren asterako zirriborroa gertu izango dute.

Adostasunak eta eztabaidak

Hainbat taldetan banatuta egin dute lan orain arte eta ekarpen asko jaso dituzte, baita aztertu ere parte-hartze ordenantza zertarako behar den eta zein kasutan erabili.

Zortzi ataletan banatu dituzte gaiak lanerako orduan, besteak beste, arreta zerbitzuak eta udal egitura ataletan; eta gai horietako batzuetan bat etorri dira gehienak, herritarrek informatzeari dagozkien kontuetan, esaterako: "Gardentasunari dagozkion gaitan adostasuna izan da

nagusi: zein informazio egon behar den herritarren eskura, webguneak zelan egon behar duen antolatuta... Zein eskubide bermatu behar dituen ordenantza honek eta herritarren parte-hartzea osoko bilkuretan ere

argi dago", jakinarazi du Arkaitz Martinez de Albenizek, Azतिकe-erako kideak.

Desadostasun handienak, ostera, prozesuaren antolaketak eragin ditu: "Nola antolatu, quorumik egon behar duen prozesua legitimoa izateko, udal batzordeak zeintzuk osatu behar duten eta zertarako..." Eta udal aurrekontuak ere eragin du eztabaida: "Herritarrek zelan hartu parte aurrekontuan, hain zuzen ere, eta hor iritzi asko daude; batzuek diote herritarrek modu zuzenean erabaki beharko lituzketela partida batzuk, eta beste batzuen ustez, lan hori politikariei edo udal teknikariei dagokie".

Zirriborroa webgunean

Eguaztenean adostutakoekin zirriborro bat egingo dute, ordenantzaren egitura izango dena. Datorren astean Udalaren webgunean jarriko dute hori, hamabost egunez, herritarrek irakur dezaten eta ekarpen gehiago egin behin betikoa onartu aurretik.

Ordenantzaren edukiak

Zortzi ataletan banatuta egin dute lantaldeek:

- Herritartasunaren definizioa.
- Herritarren eskubideak.
- Elkarten erregistroa.
- Gardentasuna eta informazio publikoa.
- Webgunearen edukia eta erabilera.
- Arreta zerbitzua.
- Parte hartzeko mekanismoak.
- Udal egitura.

'UDA Eguna'-rekin bazkideak izango dituzte gogoan domekan

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteko bazkideak gogoan izan gura dituzte domekan eta *UDA Eguna* antolatu dute ohorezko erregionalak etxean jokatzeko duela berriro aprobetxatuta: "Bazkideak eskertzeko modua da, 1.000 bazkide inguru oso elkartu gutxi du eta", dio Agurtzane Elkoro presidentek.

Jokalariekin argazkiak ateratzeko aukera izango dute umeek, 16:15ean. Gainera, ohiko zozketarekin batera beste bi berezi egingo dituzte; batean, 100 euroko bonua banatuko dute Belar Meta dendan gastatzeko, eta bestean, UDAko produktuekin osatutako sorta. UDAk Lesako Beti Gazte izango du aurrez aurre, eta "bazkideen animuak eta berotasuna" pozik hartuko dituela taldeak adierazi du Elkoro.

Argazkiak eskuragai

Bestetik, UDAk iragarri du gertu dituztela sail guztietako 2016-



Jokalarien aurkezpena. IMANOL SORIANO

2017 denboraldiko argazkiak. Iaz urriari egindako aurkezpen ekitaldian Ivan Valle argazkilaria aretxabaletarrek atera zituen argazki horiek, eta, eskuratu gura izanez gero, eskaera egin dezakete interesatuek –argazkia, 5 euro–. Horretarako, mezu bat bidali behar da UDARA –*udaretxabaletake@gmail.com*– edo eskaera egin Ibarrako tabernan –orri bat bete datuekin– urtarriaren 30a baino lehen.

Danborradak dituzte gaur Pausokakoek eta Kurtzebarrikoek

San Sebastian eguna da gaur, urtarrilak 20, eta Aretxabaletan ere danbor hotsak entzungo dira han eta hemen, Sarriegiren doinuei jarraituta.

Pausoka haur eskolako umeek 11:00etan astinduko dituzte danbor horiek, eskolan bertan. Hotz handia iragarrita dagoenez baliteke barruan egitea ekitaldia, eta, bestelakoan, pa-

tioan izango da, urtero lez. Guraso eta aitaita-amama guztiak gonbidatu dituzte, eta nagusienekin batera txikiek ere hartuko dute parte.

Kurtzebarri eskolako kideek, ostera, arratsaldean egingo dute ekitaldia, 15:45ean, hain zuzen ere. Euririk egiten ez badu Herriko Plazan elkartuko direla iragarri dute, eta bestela, Iturrigorri pilotalekuan. Senideak, lagunak eta herritarrek elkartuko dira horien inguruan, beste urte batez.

'Dantzatu' ikastaroa egiten dute eguazten guztietan Jaikikoek

Dantzatu izenarekin, eguaztenean elkartzen dira Jaiki elkarteko kideak kuartel zaharrean 18:15etik 20:15era bitartean: "Mugimenduaren bitartez behar duguna adierazteko eta gozatzeko espazio bat da", diote kideek. Alvaro Cuero Escarzaren gidaritzapean dantza, mugimendua eta sormena lantzen dihardute, Aste Santura bitartean.

Bestetik, Ecstatic Dance bigarren saioa egingo dute otsailaren 11n, Ibarra kiroldegian (10:00-13:00). Oskar Estanga Ezkurdia DJak gidatuko du: "Musikak gidatutako dantzaldi askea da, hitzik eta sustantziarik gabeko gorputz bidaia, gure beharrak sentitu eta adierazteko, bakarka eta taldean jolasteko, bizitzaren erritmo ezberdinetatik pasatuz".

Batean zein bestean izena emateko Jaikira jo behar da: *jaikielkartera@yahoo.es*; Facebook; eta 943-53 43 96.

Aratusteak gertatzeko motorrak berotzen

Hilabete pasatxo geratzen da otsailaren 26rako, baina aretxabaletarrak hasi dira lanean. Udalak horma-irudi lehiaketa deitu du eta Azbeko lokala eskaini die, beste behin, mozorroak gertatzeko; herri bazkarirako txartelak urtarrilaren 28an jarriko dituzte salgai

Mirari Altube ARETXABALETAK

Otsailaren 26an iritsiko dira Aratusteak, baina aretxabaletar asko dagoeneko hasi da jaiok gertatzen. Azbeko lokaleko giltzak gaurtik eska daitezke Arkupen eta Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak hurrengo zapatuan jarriko dituzte salgai.

Aurten ere lokala Azben

Mozorroak gertatzeko lokala utziko du Udalak, beste behin. Azbe lantegia zena erabili ahal izango dute herritarrek, baina aurten beste ate batetik sartuta; biribilgune alboan dauden garajeetatik, hain zuzen ere.



Kuadrilla mozorrotuta iazko Aratusteetako desfilean. IMANOL SORIANO

Giltza gaurtik aurrera eska daitezke Arkupen harreraren, eta horretarako zehaztutako arauak bete beharko dituzte kuadrillek: 20 euroko fidantza jarriko dute; talde bakoitzak arduradun bat izango du eta horrek hartuko du giltza, datuak eman eta dokumentua sinatu ostean; adin txikikoen arduraren nagusiren batek izango du, eta horrek ere dokumentua sinatuko du; eta adin txikikoak lokalean daudenean arduradunak ere egon beharko du. 21:00etan itxiko dute lokala eta gauean ezingo da erabili.

Bazkarirako txartelak

Aratustetako herri bazkarirako txartelak urtarrilaren 28an, zapatua, jarriko dituzte salgai. Arkupera jo beharko da erosteko, 09:00etan. Bazkaria, azken urteetan legez, Ibarra kiroldegian izango da eta 600 bat lagunendako egongo da lekua.

Kuadrillak emango da izena eta horretarako kide bakoitzaren izen-abizenak idatzita eroan beharko dituzte, baita kuadrilla horren izena ere eta haren arduradunaren telefono zenbakia. Pertsona bakoitzak kuadrilla

bakar baten izena eman ahal izango du.

Helduek 17 euro ordainduko dute eta menua izango da honako hau: patatak errioxar erara, solomoa piperradarekin eta goxua. Umeen menua 13 euro izango da, eta jateko izango dute: makarroiak tomate eta gaztarekin, hanburgesak saltsan patatekin eta txokolatezko pasteltxoak. Prezio barruan sartuta daude Errioxako ardo beltza, ardo gorria, sagardoa, freskagarriak, ura eta ogia.

Horma-irudi lehiaketa

Aratusteak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, eta aurkezteko epea bukatuko da hilaren 31n. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du.

Lehiaketan edozeinek har dezake parte eta teknika librean izango da. Lanak era digitalean edo DIN A3 batean aurkez daitezke. Eta irudiak derrigorrez honako testu hau izango du: *Aratusteak, Aretxabaleta 2017*. Epaimahaia, kultura batzordeko kideek eta herriko hainbat pertsonak osatuko dute.

PROIEKTUEN BIDEZKO
PUBLIKOA IKASKUNTZA
EUSKALDUNA
KALITATEZKOA
ARRETA GOIZTIARRA
HURBILA INKLUSIBOA

Zaintza zerbitzua (2 - 12 urte)

Bilera informatiboa: Urtarrilaren 26an
18:00etan

Matrikulazio epea: Urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era.

Telefona : 943 79 00 49

Bihotzez ikasi

Kurtzebarri Eskola

Haur eta lehen Hezkuntza
(2 - 12 urte)



Musika jaialdia Oier Bernal gaztea gogoan

Orain dela urtebete hil zen aretxabaletarraren aldeko jaialdia egingo dute urtarrilaren 28an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. Crisix talde kataluniarra eta Governors elkartuko dira, besteak beste, eta jasotako dirua minbiziaren aurka jarduteko izango da

Mirari Altube ARETXABALETA

Ondo gogoan dute Oier Bernal gazte aretxabaletarra senideek, kuadrillakoek eta hura gertutik ezagutu zutenek, eta hura omen du gura dute hil zenetik urtebete baino gehiago pasatu denean. Gasteizen izango da jaialdia, Jimmy Jazz aretoan, urtarrilaren 28an (20:00). Sarrera 10 euro da aurretik (Aretxabaletan: Haizea, Izotz eta Ezkutu tabernatan eta Raijin Tattoo dendan; Gasteizen: VSD dendan eta Joker eta Hor Dago tabernatan; eta Interneten: *entradium.com*) eta 13 euro egunean bertan leihatilan. Jasotako diru guztia minbiziaren aurka lan egiten duen HCxHC (Hardcore Hits Cancer) elkartearendako izango da, hardcore eta punkaren bidez minbiziaren dutenei laguntzen jarduten duen elkarte hain zuzen ere. "Gogorra izan da antolaketa lan guztia, baina Oierrek merezi du", dio Iker Bernal anaiak.



Iker Bernal jaialdiaren kartela esku artean duela. MIRARI ALTUBE

Lau talderen kontzertua

Lau taldek eskainiko dute kontzertua: "Oierren bueltan ibilitakoak dira talde horietako asko, lagunak eta ezagunak", dio haren anaiak. 13 Left to Die talde gasteiztarra, esaterako, Oierrek

jardundako taldea da; bateria jotzen zuen han: "Anaia hil zenean banandu egin ziren baina berriz elkartu dira". Hero Of The Day taldea, oster, jaialdirako bakarrik sortu dute Gasteizko lagun batzuek: "Metallica taldearen abesti bat da *Hero of the Day* eta anaiak oso gustuko zuenez talde hori halaxe jarri diote izena. Bertsioak joko dituzte, sei bat kantatu". Governors talde arrasatearra ere joango da: "Omenaldirako gertu agertu dira baina ez dute emango kontzertu handi bat; anaiari keinu bat egin gura diote bakarrik". Eta kontzertua borobilduko du Kataluniatik etorritako Crisix taldeak. "Gazteak dira baina izugarriak. Anaiak Bartzelonan ezagutu zituen bateria jotzera ikastera joan zenean, eta etorri egingo dira". 20:00etatik 00:00etara izango dira kontzertuak, eta ondoren, DJ saioari ekingo diote: "Oierren kuadrillako Asier Galianok eta Eder Soriak jardungo dute, baita nire kuadrillako Txutxik ere". Musikaren bueltan eta lagun giroan jaialdi dotorea egin gura dute datorren astean Oier Bernal adiskidea gogoan dutela guztiek.

Musikazale amorratua

2015eko urriaren 20an hil zen Oier Bernal, 29 urterekin, minbiziak jota. "Makarra handi bat zen", dio anaiak. "Musika zen haren bizitza eta metal doinuak izugarri gustatzen zitzaizkion. Musika, musika eta musika, eta argazkilaritza, horrek batzen du Oier".

Akordeioa jotzen hasi zen mutikotan herrian, baina laster pasatu zen bateriara.

Bartzelonara joan zen hori hobeto ikastera eta Alfred Berengenerekin jardun zuen han, SA taldeko kidearekin. Gasteizko 13 Left to Die taldean bateria-jolea izan zen: "Gaixo zegoela eta tratamendua hartzen taldearekin jo nahi izan zuen Azkena Rock jaialdian; abesti bat jo zuen". Metalcry aldizkarian kolaboratzaile izan zen, argazkiak ateratzen zituen eta kronikak idatzi.

"Gogoan dut Governorsek kontzertua zuela Eskoriatzan egubakoitz baten, eta ordurako oso makal egon arren derrigor joan gura zuen. Gupil aulki bat lortu nuen eramateko, baina eguaztenean hil zen".



Oier Bernal. IKER BERNAL

San Kanutoren omenezko jaia 17 urte bete ditu aurten

Atzo hasi zituzten ospakizunak eta bihar bazkaria egingo dute, kontzertuak ere izango dira bi egunotan

M.A. ARETXABALETA

Txupina botata eta salda eskainita hasi zituzten atzo ospakizunak hainbat tabernatan. Protagonista, baina, musika izango da aste bukaera guztian, baita bihar egingo duten bazkaria ere.

Kalamuaren legezatzaren eta normalizazioaren aldeko San Kanutoren jaialdia hainbat herritarrek jarri zuten abian 2000. urtean. Eta azken urteotan ospatu barik egon ostean berreskuratu egin dute. Gaur, egubakoitza, ere etxafuegoak botata ekingo diete ekitaldiei eta iluntzean kontzertuak izango dira: Crap (Haizean, 20:00etan), Krisis (Ezkutun, 22:00etan) eta karaokea (Kixkorren, 00:00etan).

Bihar, oster, eguerditik izango dira funk, soul eta reggae doinuak Marley Brothers DJaren eskutik eta 14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira Ezkutu tabernan.



San Kanuto. GOIENA

Arratsaldean, parrilla egongo da Aupa Hi!-k eskainita, eta iluntzean hasita kontzertuak Ezkutun bertan: Akerjembe (20:00), DJ Loro (00:00), Iban Borgas eta Iñaki Cerqueira.

Domekan, agurtzeko, dardo eta poker txapelketak jokatuko dituzte Ezkutun, 17:00etan hasita.

Ikusi Makusi taldeak antzezlan bi eskainiko dizkie erretiratuei

Basotxo erretiratuen elkarteak gonbidatuta, Oñatiko Ikusi Makusi antzerki taldea gerturatu da Arkupera datorren eguaztenean, hilaren 25ean, 18:00etan. Antzezlan bi eskainiko dituzte (gaztekeraz): *Itxarongela* eta *Eskutitza Ramoni*. Umoreak zipriztindutako lanekin etorriko dira oraingoan ere Oñatiko erretiratuei.

Ipuin kontaketa Kontu Kantoi taldearekin bihar liburutegian

Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil ameslariak ipuina kontatuko die Kontu Kantoi taldeak neska-mutikoei bihar, zapatua, 11:30ean, Udal liburutegian. Ipuinen bitartez hamaika abentura biziarriziko diete Aretxabaletako umeei Beatriz Egizabal ipuin kontalariak eta Zesar Marcos marrazkilariak.

Hirugarrenez gonbidatu dute taldea Aretxabaletara Basotxo kideek, eta aurrekoetan lez, oraingoan ere Arkupeko aretoa bete egingo delakoan daude antolatzaileak. Sarrerak bazkideen artean dabilta banatzen debalde (bazkideko bi sarrera bakarrik), eta dagoeneko erdia baino gehiago banatu dituztela jakinarazi dute zuzendaritzako kideek. Interesatuak gomendatu diete lehenbailehen pasatzeko Basotxoko bulegotik, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

Metal instrumentuen ikasleen emanaldia martitzenean

Leizarra musika eskolako metalezko instrumentuak (tronpetak, tronpak...) jotzen ikasten dabilta neska-mutikoei emanaldia eskainiko dute datorren martitzenean, urtarrilaren 24an, 18:00etan, Arkupe kultur etxean. Orain arte ikasitakoaren berri emango diete senideei, lagunei eta Zeraia aretora gerturatzen direnei.



Iaz, Areskoren Emakume Martxan Aretxabaletatik Eskoriatzara sartu berri. GOIENA

Areskoren II. Emakume Martxa, martxoaren 12an

Emakumea eta kirola indartzeko eta ezagutarazteko asmoz antolatutako ekimenaren bigarren edizioa izango da. Egunerako gastuei aurre egiteko, otsailaren 4an, Kinttaden Egunean, betaurrekoak eta kamisetak salduko dira Herriko Plazan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aresko emakumeen saskibaloitaldeak antolatuta, bigarren aldiz Emakume Martxa egingo da, martxoaren 12an. Aurten, Eskoriatzan hasi eta Aretxabaletan amaituko da.

Emakumea eta kirola indartzeko eta ezagutarazteko asmoz egindako martxaren lehen edizioak arrakasta handia izan zuen; izan ere, 400 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte ekimenean. Gehienek elastiko larrosak zituzten soinean, eta aurten ere atera dituzte egunerako propio egin dituzten kamisetak.

Lander Goikoetxea Aresko Saskibaloitaldeko koordinatzaileak hauxe esan du: "Emakumea eta kirola sustatu nahi ditugu ekimen honen bidez; izan ere, Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da, eta horren harira antolatu dugu aurten ere martxa. Bestalde, eguneko gastuei aurre egiteko, betaurrekoak eta kamisetak salduko ditugu...".

Betaurreko salmenta

Antolatzaileek Emakumeen Martxarako betaurreko eta kamisetak salduko dituzte otsailaren 4an, Herriko Plazan, martxoaren 12rako gastuei aurre egiteko. Bertsolariak, dantzariak, *speaker*-a, DJa, omenaldia egingo zaienei plakak erosteko, lasterketako aseguru... hori guztia ordaintzeko izango da. "Kinttaden Eguna egun aproposa da salmenta egiteko; izan ere, jende asko izaten da kalean. 17:30 inguruan, *Escolote* saltzen dugun gunean izango gara -Zarauzterra taberna zenaren atarian-. Dena den, alde aurretik betaurreko kopuruaren eskaera egin behar da, aresko.eskoriatza@gmail.com helbidera idatzita. Hala,

**KINTTADEN EGUNEAN
BETAURREKOAK ETA
KAMISETAK SALDUKO
DITUZTE
ANTOLATZAILEEK**

Kinttaden Eguna izanda aprobetxatuz, alde aurretik kintadaka eskatzea gura genuke, martxoaren 12an jende kopuru handia batzeko eta denok martxara bertaratzeko".

Oraindik zehazten ari dira martxaren nondik norakoak, baina, iaz bezala, hainbat ekintza izango dira martxaz gain, eta berrikuntza batzuk ere jarri nahi dituzte, iazko ekimena baino arrakastatsuagoa izateko.

Ekintza ugari martxaz gain

11:00etan, omenaldia egingo zaie Udalak zehaztuko dituen bi herritarri; horren ondoren, bertsolariak, dantzariak... izango dira eta 12:00 aldera hasiko da martxa Eskoriatzako Herriko Plazatik Aretxabaletaraino. "Antolaketa hasi berri dugu, baina aurten, martxaz gain, lasterketa ere egin nahi dugu, iazko ekintzez gain. Trikitilariak ere martxa egitera eramango ditugu bidean zehar musika eta giroa jarri dezaten...".



Santa Ana auzoan egiten ari diren lanak. I.B.

Santa Ana auzoko lanak astebe berru amaituko dituzte

Zebra bide altxatu bat jarri eta espaloia handituko dute bide zati horretan, irisgarritasuna hobetzeko asmoz

I.B. ESKORIATZA

Pagaldai harategiaren parean hasi dira mugikortasun eta irisgarritasun lanak egiten. Zebra bide goratu bat jarriko da autoek abiadura moteldu dezaten, espaloia jarriko da, eta zati horretan zirkulazioa aldiko norabide batekoa izango da hemendik aurrera.

Hori horrela, lehenasuna izango dute Antsoategiko biribilgurutetik doazen autoek, eta ez Zaldirabar aparkalekutik doazeneak. Bestalde, espaloia zabaltzen ari dira Pagaldai harategiko aldean, eta egokitu ere egingo dute, errepideari zati bat kenduta. Horiek dira Santa Ana auzoan egiten ari diren lanak, eta datorren asterako amaituta egotea aurreikusten du Udalak. Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasuneko batzordeburuak adierazi duenez, "lanen aurrekontua 16.000 euro izango da, eta lan

hauek egitearen arrazoia oinezkoen mugikortasunari lehenasuna ematea izan da, besteak beste".

2016ko azaroan onartu zen obra egitea, eta, azaroan hasi behar baziren ere, atzerapenak izan dira, eta aurreko astean hasi zituzten lanak Bergarako Artzamendi enpresakoek.

Arbiñosteko bidegurutzea

Bestalde, Aranburuzabala eta Arbiñosteko bidegurutzean ere lanak egiten ari dira. Bere garaian etxeak egin behar zituzten han, baina bertan behera geratu ziren. "Han joango ziren etxeekin batera, espaloia egin behar zen, baina, ez direnez etxeak eraiki, egoera larria zegoen bidegurutzean. Hala, eremu hori behar den moduan geratzeko eskatu genuen, eta obra Udalak egin beharrean promotoreak gauzatuko du".

Markiolara mendi irteera egingo da Eskoriatzatik abiatuta

Domekan mendi irteera egingo da Eskoriatzatik. Herriko Plazan 10:00etan batuta, Eskoriatza-Markiola-Eskoriatza bidea egingo da. Ibilbidea Mandobidetik igaroko da; 15 kilometroko *track*-a izan arren, gorabehera gutxikoa da, taldearen arabera hiru ordutan amaitzeko modukoa. Hurrek heldu edo arduradun batekin joan behar dute.

ESKORIATZAN AUKERA

Etxebizitza salgai
San Juan kalean. **140 m²**
Sukaldea, egongela
eta **3 logela**

Bista paregabeak
**Atxorrotxera, Kurtzebarrira
eta Asensiora.**

Ganbara etxebizitza
gainean, **80 m²**, gela
egiteko aukerarekin.

616 41 71 05



Tira! Aurrera! antzezlaneko momentu bat. PHANTA RHEI

'Tira! Aurrera!' antzezlanak domekan

Phanta Rhei antzerki taldeak egingo duen lana 'Corre, payasa, corre' antzezlanaren euskarazko moldaketa da. Txotxongiloak eta benetako aktoreak batuko dituzte oholtzan, eta suediarren kolaborazioa ere izango dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Domeka honetan *Auzokideak* lana izan behar zen Zaldibar antzokian, baina, antzerki taldeko kide baten osasun arazoengatik, Phanta Rhei antzerki taldeak beste antzezlan bat eramango du agertokira. *Tira! Aurrera!* lana, hain zuzen ere.

Hogeita bost urtetik gora lanean diharduten Phanta Rhei taldeko kideek *Corre, payasa, corre* lanaren euskarazko moldaketa egin dute, eta ikuskizuna 17:00etan izango da, domekan, Zaldibarren. Sarrerak alde aurretik hiru eurotan erosi daitezke Manuel Muñoz kiroldegian, edo *bibe.me* webgunean.

Familiatzako lana

Bost eta zortzi urte bitarteko haurrentzat zuzenduta dagoen arren, publiko guztientzat eskainitako saioa izango da. Honela adierazi du Unai Gartzia, Phanta Rhei taldeko kideak: "Komunikazioaren eta emozioen alde egiten dugu beti; hala, hau-

rentzako istorio bat izan arren, helduengana ere ailegatu nahi dugu. Familiendako lanak egiten saiatzen gara beti...".

Aktoreak txotxongiloekin

Phanta Rhei antzerki taldeak duela hogeitaz txotxongiloen eta aktoreen arteko harremanaren sakontzean eta hausnarketan egin du lan, eta Juan Rodriguezek zuzendutako *Tira! Aurrera!* lana ere hala egingo dute.

Inguruan ikusten dituzten gaiak taularatzen dituzte Phanta Rheiko kideek. Honela adierazi du Unai Gartzia: "Haurren inguruan egin nahi dugun hausnarketa bat da lan hau. Gaur egungo haurrak bakardadean

**"HAURRENTZAKO
ISTORIO BAT IZAN
ARREN,
HELDUENGANA ERE
AILEGATU NAHI DUGU"**

hezten eta hazten dira, etxeetan sartuta. Hala, gure istorioak haur baten eta kalean bizi den gizon baten arteko harremana kontatuko du. Atentziorik eza duen haur hau kalera irtengo da, eta kalean bizi den gizonak ez du ezertan sinesten... Biak elkartzean, euren arteko eboluzio bidaia bat kontatuko dugu".

Suediarrekin elkarlanean

Aurrez esan bezala, txotxongiloak eta benetako aktoreak nahastuko dituzte antzerki horretan, baina, horrez gain, suediarren kolaborazioa ere izango dute agertokian.

Nils Personne –Sabath Hela Veckan taldekoa– eta Ylva Varrick sortzaile suediarrekin lan-kidetzan taularatuko dute. Bost ikuskizun egin dituzte elkarlanean, eta txotxongiloak diseinatzeke eta soinu-banda egiteko ardura izan dute suediarrek. Hala, denek batera, abentura bizia sortuko dute *Tira! Aurrera!* lanean.

Eskoriatzarrak euskal selekzioarekin izan dira

Marta Gartzia, Nerea Pavo, Jokin Rayo eta Oier Saenz de Azkunaga areto futbol jokalariek, bide onetik

I.B ESKORIATZA

Marta Gartzia eta Nerea Pavo areto futboleko jokalariek eskoriatzarrak 21 urtez azpiko euskal selekzioarekin izan dira pasa den aste bukaeran, Kantabrian jokatzen, eta Portugaleten jokatuko den txapelketarako sailkatu dira. Asteburu honetan, berriz, Valentziako erkidegoaren eta Gaztela-Mantxaren aurka jokatuko dute.

Nerea Pavo atezaina da, eta, Eskoriatzako taldean urte askoz egon ostean, bigarren mailako Ordizia taldean ari da jokatzen iaiztik. Marta Gartzia, berriz,

duela hiru urte sortu zen Eskoriatzako emakumezkoen areto futbol taldean ari da, senior mailan.

Kadeteak ere bai

Bestalde, Jokin Rayo eta Oier Saenz de Azkunaga eskoriatzarrak, kadete mailan, euskal selekzioarekin izan ziren Valdepeñas (Ciudad Real) Espainiako txapelketan. Extremaduraren, Gaztela-Mantxaren eta Kanariarren aurka jokatu zuten, baina ez zuten partidurik irabazi, eta ezin izan ziren hurrengo faserako sailkatu.



Goian, Gartzia eta Pavo, eta behean, Rayo eta Saenz de Azkunaga. ESKORIATZA K.E

Eguaztenetan ingelesa praktikatzeko aukera

Eskoriatza's English Klub taldea sortu berri dute Eskoriatzan; ingelesa ikasi, mailaz igo, irakatsi edo momentu batez ingelesez hitz egin nahi duen ororentzat, hain zuzen ere.

Ekimenaren bultzatzailea izan den Patricia Rasok adierazi du lagunarteko zerbait prestatu nahi izan dutela: "Asmoa da lagunartean batu eta ingelesez

hitz egitea, eta taldetxo osatzen badugu, bikain. Beste hiri batzuetan ere egiten da, eta, arrakasta ikusita, Eskoriatzara ekartzea pentsatu dugu".

Hala, eguazteneko, 19:00etan, nahi duena Inkernu tabernara gerturatu daiteke, eta bertan ingelesa praktikatzeko aukera izango da. Bertan ingelesa dakitenak eta ez dakitenak batzea nahi dute taldea osatzen ari diren antolatzaileek. Batak bestearekin hitz eginez praktikatzeko eta dakitenek ez galtzeko.

Eskoriatzako kintoak motorrak berotzen

1999an jaiotako kintoak gogotsu daude Santa Ageda egunean Herriko Plazan dantza egiteko, kantu-eskean aritzeko eta, nola ez, festa egiteko. Hala, otsailaren 5ean eta otsailaren 12an 19:00etan egingo dituzten dantzak prestatzen ari dira egunotan

I.B. ESKORIATZA

1999an jaiotako kintoak Santa Ageda eguna heltzeko zain daude, eta dagoeneko prestatzen hasi dira plazan egingo dituzten dantzak: aurraskua, banakoa, fandangoa eta arin-arina. Horretarako, astean bi aldiz entseguak egiten ari dira kultura etxean, plazara irtetean bikain egiteko.

Santa Ageda eguna otsailaren 5ean da, domeka, eta egunean bertan 19:00etan plazan egingo dituzte dantzak, baina aurretik zaharren egoitzatik ere pasako dira, ohiturari jarraituz, egoiliarrei ere dantzak egiteko. Batzuk hobeto, beste batzuk traktetsago, hala ari direla adierazi du Ane Arrietak, aurten kinto izango denak: "Nik txikit dantza egin nuen eta bada-kizkit. Batzuei pixka bat gehiago kostatu arren, seguru, ondo ikasiko dugula guztiok. Oraingoz, banakoa egiten ondo ikasi dugu; fandangoa eta arin-arina, aldiz...".



1999an jaiotako kintoak dantza entseguak hasi aurretik talde argazkian. I.B.

Otsailaren 5ean dantzak egin ostean, 12an ere berriz egingo dituzte, Herriko Plazan, 19:00etan.

Otsailaren 2tik 5era bitartean

Eguren arratsaldean hasiko dira kintoak kantu-eskean, pintxo-potea dela aprobetxatuta. Egubakoitzean, baserriz baserri, ikastetxeetan-eta ibi-

liko dira. Zapatuan, Kinttada Egunean, kalean zehar, eta domekan, dantzak egingo dituzte herrian zehar ibili ondoren.

Gogotsu daudela adierazi dute aurtengo kintoek, eta Kinttaden Egunak sortzen duen giroak festa hobetzen lagunduko duela azpimarratu dute.

Eskoriatzako juniorrak igoera faserako sailkatu dira

Eskoriatzako emakumezko saskibaloi taldeko juniorrek igoera fasea jokatu dute, Bera-Bera taldeari 61-27 irabazi ostean. Horrez gain, Arri BKL taldeak galdu egin zuen 67-28 Internazional liderraren aurka, etxekoen onerako. Azken lau partiduak jarraian irabazita, pauso handia eman dute etxekoen, igoera faserako sailkatuta.

Talde lanean eta defentsan bikain aritu ziren etxekoak, eta, horren ondorioz, lehen hamarrean 22-8ko abantaila hartu zuten. Partidu guztian zehar abantailarekin jarraitu zuten. Aste bukaera honetan, berriz, atsedena izango dute, indarrak hartzeko.

Dokumentalaren ordutegiarekin nahasmena izan da

Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik dokumentalaren emanaldiak izan dira pasa den astean. Ordutegian nahasmena sortu da, eta barkamena eskatu nahi izan du Ibarraundik, Eskoriatzako Udalaren izenean: "Ibarraundi museoak Eskoriatzako Udalaren izenean barkamena eskatu nahi dizue dokumentala ikustera etorri zaretenoi, argitaratutako ordutegiarekin sortutako nahastea eta horren ondorioz sor izan diezazkizuegun eragozpenak direla eta". Gauzak horrela, emanaldiak ikusteko aukerarik gabe gelditu direnek ikusteko aukera izango dute Ibarraundiko ohiko ordutegian.

San Blas opilak egiteko ikastaroa astelehenean

Urtarrilaren 23an, astelehena, San Blas opilak egiteko ikastaroa egingo da kultura etxean, 18:00etan. Otsailaren 3an ospatzen da San Blas, eta egunerako opilak egiten ikasi nahi duenak aukera izango du, bost euroren truke. Izena kultura etxean eman beharko da.

Euskal Herriko leku askotan omentzen dute eztarriko gaitzez babesten duen San Blas santua. Eta egun horretan ez dira falta kordelak eta gozokiak. Tradizioak dioenez, kordelak bederatikuta bederatzitik egunez lepoan ipinita egon behar du. Denbora hori pasatutakoan kordela erre eta santu honek eztarriko edozein infekzioz babestuko gaitu.



2016an diru sarrerak %30 hazi dira Gatz Museoan, 2015arekin alderatuta. GOIENA

"Azkeneko bi urteetan bikoiztu egin ditugu diru-sarrerak"

2016. urtea "oso ona" izan da Gatz Museoarentzat, bisitari kopuruak eta irabaziek gora egin dute eta

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Aitor Larrañaga Gatz Museoako arduradunak 2016aren balorazio positiboa egin du. "2015arekin alderatuta, %30 hazi dira diru-sarrerak. Gainera, azkeneko bi urteetan -2014tik 2016ra bitartean- bikoiztu egin dira irabaziak eta bisitari kopurua ere asko igo da. Pozik egoteko moduan gaude", adierazi du Larrañagak.

Hazkunde horren arrazoiak batez ere bi direla aitortu du museoako arduradunak. Batetik, egin den promozioa. "Promozioak eragin nabarmena izan du. Izan ere, ahalegin handia egin dugu bai webgunea eguneratzen, baita sare sozialetan ere". Bestalde, gatza salgai jarri izanak asko lagundu duela aitortu du Larrañagak. "Gerturatzen direnek, museo bisitatzeaz gain, gatza etxera eramateko aukera dute eta horrek bisitari gehiago erakartzen ditu".

Euskaraz eta gaztelaniaz

Bisita gidatuen hizkuntzari dagokionez, urte osoa kontuan hartuta, euskaraz ematen direnak zein gaztelaniaz ematen direnak nahiko orekatuta daude.

Astean zehar egoten diren bisitak euskaraz izaten dira, gehienbat, eta asteburuetakoak gazte-

laniaz. Izan ere, astean zehar Euskal Herritik etorritako bisitariak izaten dira, gehienbat, eta asteburuetan Estatu mailako bisitariak. "Astean zehar ikasleak eta erretiratuak etortzen dira, oro har, Euskal Herri oso-tik. Asteburuetan eta zubietan, aldiz, lagun kuadrillak eta familiak; Debagoienetik, EAEko hiriburuetatik eta Espainiako Estatutik etorritako bisitariak izaten dira. Kataluniakoak, Valentziakoak eta Madrilgoak, gehienbat", azpimarratu du.

Asteburuetan eta astean zehar egoten den bisitari kopurua oso parekatuta dagoela adierazi du.

Gatza merkaturatzea helburu

2017ari begira, helburu nagusia da gatz ekoizpena kanpora begira martxan jartzea, merkaturatzea. "Gaur egun, museoan eta herriko dendan bakarrik dago salgai gure gatza. Baina orain, merkaturatu egin nahi dugu. Gipuzkoa mailan hasiko gara, ondoren Euskal Herri mailan eta gero Estatu mailan", dio museoako arduradunak. Beraz, helburua da gatza ekoizteko behar den produkzio linea hori "definitiboki" martxan jartzea. Bestalde, 2017an bisitari kopurua handitzea ere beste helburu garrantzitsu bat dela dio.

Bisita gidatuak

Zapatuetan eta domeketan 12:00etan izaten dira euskarazko bisitak eta 13:00etan gaztelaniazkoak. Astean zehar bisitatzeak, aurrez eskatu behar da txanda.

"GURE GATZA MERKATURATZEA DA 2017ARI BEGIRA DUGUN HELBURU NAGUSIA"



Jausitako lurra eta harriak baserria ukitzeraino heldu ziren. XABI GOROSTIDI

Lur-jausia Gantzaga auzoko Pelatza baserrian

Asteburua ezkerro etengabe egindako euriteak izan dira ezbeharraren eragile nagusiak. Hala ere, Udaleko teknikariek esandakoaren arabera, uda partean pinuak bota zituzten bertatik gertu eta horrek lur-jausiak izateko arriskua handitu du

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Azken astean botatako euri-jasa handiak hainbat kalte eragin ditu Aramaion. Denetan larriena Gantzaga auzoko Pelatza baserrian astelehen eguerdian gertatutako lur-jausia izan zen. Lurrak eta harriak etxea ukitzerara heldu ziren, etxeko autoetako bat tartean harrapatuta. Baina ez zen euriak eragindako ezbehar bakararra izan.

Etxea kalterik gabe

14:00 aldera, Gasteizko suhiltzaileen bi teknikari baserrira bertaratu ziren egoera ikuskatzera eta ez zuten interbentziorik egin behar izan.

Pilatutako hondakin eta zikinkeriaz gain, baserriak ez zuen kalte material larririk jasan, eta harrapatuta geratutako autoa ere atera ahal izan zuten. Hala eta guztiz ere, suhiltzaileek emandako gomendioak jarraituz, bizilagunek etxebizitza uztea erabaki zuten segurtasun arrazoiengatik.

Euria baino gehiago

Ezbeharra gertatzeko faktore nagusietako bat euria izan da. Hala ere, Udaleko teknikariek esandakoaren arabera, Pelatza baserri inguruan uda partean pinuak bota zituzten, eta hori ere izan daiteke asteleheneko lur-jausiaren beste eragile bat. Pinuak botatzeko pistak egin dituzte. Era horretako lanak egitean, ura kanalizatzeko bideak egin arren, urak bere bidea topatzen du, eta lur-jausiak gerta daitezke", adierazi du Lierni Altuna alkateak.

"Guk pista publikoak kontrolatzen ditugu, baina inork ez du kontrolatzen urak ondo hartuta geratu diren. Eurite handi bat

**PINUDIAK
KENTZERA KOAN EZ DA
ERRAZA IZATEN URAK
ONDO HARTUTA
DAUDELA ZIURTATZEA**

jasan gabe ezin daiteke jakin lan hori benetan ondo eginda dagoen, eta ondoren sorpresak etorri daitezke", azaldu du Altunak.

Aramaioko Udala arazoa konpontzeko tramite lanak errazten aritu da. "Baserria bi partikularrena da. Hala ere, hura kudeatzen duen administratzailearekin kontaktuan gaude, tramitazioak arintzeko". Gaur bertan hasiko dituzte konpontze lanak.

Kiroldegiko ermita hesituta

Lur-jausi horrez gain, euriak eragindako bestelako gertakari batzuk ere izan dira Aramaion. Kiroldegi pareko ermitan, esaterako, teila batzuk jausi egin ziren, eta hesiarekin itxi zuen esparrua Udalak. Altuna alkateak esandakoaren arabera, Iturrizuri kalean ere ur pilaketatxoak izan zuten, eta Ibargoia kaleko etxe baten ura sartu zen. Kasu horretan, bertatik gertu kendutako pinudi baten eraginez izan den aztertzen ari dira.

Itur Zuri Elkartearen etorkizuna definitzeko batzar erabakigarria

Urteroko batzar orokorra ospatuko dute hilaren 27an Itur Zuri Emakume Elkarteko kideek.

Hitzordua 18:00etan da, kultura etxeko eskulan gelan. Aurtengo batzarreko puntu nagusia *elkartearen etorkizuna* izeneko izango da. Antolatzaileek parte hartzearen garrantzia azpimarratu dute, batik bat, azken urteetako asistentzia txikiagatik.

Korrikaren inguruko batzordearen lehen bilera

Korrikaren 20. edizioari begira batzordea antolatu dute Aramaion. Aurten Aramaiotik igaroko ez den arren, ekimena babesteko herrian egingo diren ekintzak antolatzeko lantaldea izango da.

Eguaztenean egin zuten lehen bilera, eta hamar lagun inguru batu ziren bertan. Arrasateko AEKko Oskar Elizburuk edizio berriaren aurkezpena egin zuen, eta hurrengo bilera otsailaren lehen egitea adostu zuten.

"Atzo batutako lagunez gain, badakigu herriko beste eragile batzuek parte hartzeko asmoa dutela, eskola kasu", adierazi du Rosa Mondragonek, Udaleko Euskara teknikariak.

Zahartzaro aktiboa lortzen laguntzeko erlaxazio tailerra

Alaiak Jubilatuen Elkartearen eskutik beste tailer interesgarri bat dator.

Oraingoan, erlaxazio teknikak erabiliz zahartzaro aktiboagoa izateko helburua duen tailerra ekarriko dute Aramaioa. Psikologian lizentziadun Belen Martinez Sagasti izango da saio guztiak zuzenduko dituen aditua.

Hiru saio

Hurrengo martitzenean hasita, hiru saioko tailerra izango da. 10:30etik 12:00etara iraungo dute saioek eta udaletxeko osoko bilkura aretoan egingo dira. Ikastaroak plaza mugatuak izango ditu eta, gehienez, hamabost laguneko taldea izango da.



NIRE USTEZ

MARIA
IZAGA

Eskerr... nola zen?

Euskaltzaindiko web orrira sartu naiz gaur. Kontsulta txiki bat egitera nindoan: "Corpus hitza euskaraz c edo k-rekin izango da? Master madarikatua...". Kontsulta bat besterik ez zen, baina orduan web orriaren izkina batek begiratu nau. Beno, begiratu nau edo begiratu dut, ez nago oso ziur.

Hortxe, izkinan, eguneko hitza eta hitz bilatuenen lista. Eguneko hitza? *Sandwich*, *exotikoa*, *very English*, *very fashion*. Ordura arte dena ondo, aurreko eguneko hitz bilatuena bijilia zela kontuan izanda, asuntoa, behintzat, betetzen zihoan. Dena ilundu da hitz bilatuenen listari begira jarri naizenean.

Lehenengo hamar hitz bilatuenen artean espero ez nuen baina aldi berean harritu ez nauen hitz bat aurkitu dut, begira: *Milesker*. Zortzi letra, hitz bakarra eta ironia zukukada bat erori zaizkit buru gainera. *Milesker*, *grazie*, *merçi*, *thank you*, *danke schön*, *gracias*... hamaika hizkuntzatan dakigu esaten. Irribarre batekin, hitzez, besarkada batekin edota begirada batekin azalarazteko gai gara. Baina hor, bilatuenen listan agertzen da. Hamaika modu desberdinetan adierazteko gai garela diogu, baina, hala ere, esker bila gabiltza.

Demode Quartet laukotearen ikuskizuna bihar

Txirritola elkarteak abenduaren 10erako antolatutako ikuskizuna zen, baina, tamalez, taldekide baten osasun arazoengatik atzeratu egin behar izan zuten.

Ahots distiratsuekin egindako umore ikuskizun musikala eskainiko dute zapatuan, kultura etxean, 19:30ean. Sarrerak bost euroren truke eskuratu ahal izango dira, 17:30ean hasita.

Aramaio lau haizetara ikusita

Arabako Foru Aldundiako Hirigintza Sailak martxan du probintziako herri eta hirigune guztiak airez erretratatuko egitasmoa. Herritarrei argazkiek eskura jartzeaz gain, hirigintza planak errazteko erreminta bilakatzea du xede proiektuak



Azkoaga auzoko eraikinak berdez inguratutako zelaien artean. ARABAKO FORU ALDUNDIA

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Inoiz galdetu badiozue zuen buruari: nola ikusiko dute txoriek gure bailara? Bada, hona hemen erantzuna.

Bi helburu dituen proiektua

Arabako Foru Aldundiak probintziako herri eta hirigune guztiak airetik nola ikusten diren irudikatzen dituen egitasmoa jarri zuen martxan agintaldi hasieran. Era horretan, hirigintza planak egitea errazagoa izango da, eta argazkiak Hirigintza Sailak aurrez zeuzkan kartografia eta ortoargazkiei gehituko zaizkie.

Foru erakundeak Arabako herritar guztien eskura jarri ditu kalitate handiko aireko argazkiak. Interesdunek www.araba.eus atarian aurki ditzakete, edo baita Aramaio Udalaren webguneko albisteko lo-

turatik ere. Herri bakoitzaren barruan, auzoka antolatuta ageri dira irudiak. Ondoren argazki horiei erabilpen publiko bat emanez gero, beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundiaren egiletza aitortzea.

Bigarren fasea

Aramaio argazkiak bigarren fasekoak dira. Bertan, hamazortzi udalerriren eta 87 herriguneren aireko panoramikak atara dituzte. Horren aurretik, hamalau udalerrirekin ireki zuten proiektuaren lehen fasea, eta 32 udalerrri eta 212 hirigune erretratatu dituzte oraingoz.

Legealdi amaierarako

Foru Aldundiaren asmoa da Arabako geografia guztia osatuko duen argazki bilduma legealdia amaitu orduko bukatzea.



Foru Aldundiko droneak beste ikuspegi batetik ateratako irudia. ARABAKO FORU ALDUNDIA HIRIGINTZA SAILA



Arexola auzoa. AFA HIRIGINTZA SAILA



Untzillako eliza beste eraikinei begira. AFA HIRIGINTZA SAILA



Barajuen, eta atzean Udalatx. AFA



Uribarri auzoko elizaren ikuspegi bitxia. AFA HIRIGINTZA SAILA




Oleta auzoa, errepideak erdibituta. AFA HIRIGINTZA SAILA



Gantzaga auzoa txori baten ikuspegitik. ARABAKO FORU ALDUNDIA HIRIGINTZA SAILA



Etxaguen auzoa Anbotoren magalean babestuta. AFA HIRIGINTZA



Patxi Larrañaga, Bergarako Udal Artxibategian, liburu orriak nolakoak izango diren erakusten. JULEN IRIONDO

Herriko baserrietan jatorria duten abizenak

Patxi Larrañagak prest du Bergarako oinetxe eta leinuen gaineko lehen liburua izango duenerako materiala. Azken ukituak egin eta inprentara bidaltzekotan da. Hainbat dira baserri batean, mendeetan atzera, sortu eta leku berean segitzen duten abizenak

Julen Iriondo BERGARA

Harluxet hiztegi entziklopedikoak honela definitzen du oinetxea: *Leinu edo familia baten sortetxe edo jaiotetxea*; leinua, berriz: *Familia bateko belaunaldien segida, familia bateko aurrekoen edo ondorengoen multzoa*. Ezaguna eta aspaldikoa da Patxi Larrañagaren herriko baserriko interesa eta haien berri

gehiago jakiteko eta zabaltzeko egindako lana *Bergarako baserriak* izenburupean Interneten du jasoa-, eta, hori abiapuntu, baserri horietako zenbaitek duten ezaugarrian -abizen jatorri izatea, oinetxeak- arreta jarri eta liburuan batzeko lan egin du azkenaldian: oinetxeen eta mendeetan zehar hura bizitoki izandako leinuaren gaineko in-

formazioa eta bitxikeriak jasoko ditu liburuak. Gaur egun ebakuntza batetik errekupekatzen, uda parterako bere lana aurkeztu eta azaltzeko moduan egotea espero du Larrañagak.

400 baserri denera

400 inguru dira, gaur egun, Larrañagak Bergaran lokalizatuta dituen baserriak -kasu batzue-

tan, hondakinak edo aztarnak baino ez dira geratzen-; horietatik, 138 dira bertako familiari izena emandakoak -Larrañaga, Garitano, Agirre...-, eta, azken horietatik, hamar bat, mendez mende, belaunaldiz belaunaldi, abizena etxean bertan mantendu dutenak -lehenengo edo bigarren abizen bezala-.

Datuen irakurketa egiten hasita, hasteko: zergatik baserrien herena bakarrik abizen emaile? Honela azaltzen du Larrañagak: "Abizen jatorri izan ez diren baserri horiek gerora sortutakoak dira. Gerren ondorioz, udalek publikoak ziren lur asko saldu behar izan zituzten; lau jauntxo ziren dirua zutenak, batzuek administrazioan eginda, baina, batez ere, merkataritzarekin, eta Ameriketara: Bergaran, adibidez, hamar-hamabi familia ziren horietakoak, eta bakoitzak zituen, bota, hamar baserri. Eta baserriok errentan jartzen zituzten".

Hori azalpena, beraz; ze, berez, Euskal Herriko berezitasuna bada abizenak etxearen izena edukitzea jatorri; eta horren atzean dago sorlekuekiko atxikimendua eta haren garrantzia familiaren, leinuaren, muin bezala. Hain da horrela, gizon bat beste etxe batera ezkontzean bere abizena gal dezakeen etxe berriak, abizenak, *balio* -Larrañagak dio garai hartan oso kontzeptu erabilia zela- handiagoa zuelako, eta zuzenean etxe berriko izena, abizena, hartu -emaztearena, beraz; edo, berea galdu gabe, berearekin eta berriarekin abizen konposatua sortu: Elkoro-Berezibar, Elkoro-Barrutia...-

Eta mendeetan zehar, gaur arte, abizena eman zien etxean mantendu diren leinuak, esanda

bezala, hamar bat dira. Horietako bat da, adibide bat jartzearen, arandotarrena. Osintxuko Muskiritu auzoan dago Arando baserria. Larrañagak artxi-boetan topatutako oinetxe honen eta bertako bizilagunen gaineko berri zaharrena 1555 urtekoa da, non aipatzen diren Martin de Gomezcorta de Arando eta Gracia de Arando senar-emazteak etxe haren jabe gisa; eta oinetxe eta leinu honen gaineko azalpenean ikerlariak aipatzen duen azken arandotarra da Eusebio, Ines Beristainekin izandako seme-alaben bitartez abizenak XXI. mendean sorlekuan jarrai zezala egin zuena.

Bitxikeria ugari

Oinetxeen eta leinuen historia- ren testuinguruan -edo hura osatzeko edo sortzeko-, hainbat informazio eta bitxikeria jasoko ditu Patxi Larrañagaren liburuak, garai bakoitzaren, bizi-moduaren eta abarren berri eman dezaketena. Adibidez, eta familiari, abizenari, garrantzia handia ematen zitzaion garaiak izanda ere, Larrañagak dio deigarria dela familiako kideen arteko auzietarako -*pleitoetarako*- zenbaterainoko joera zegoen: "XVI. mendetik XX.era denek denek kontra jotzen zuten auzitara, denagatik. Semeak aitaren kontra, herentzia kondiziotan ez uztearren. Edo iseka egitearren... Eta, egia esan, horri esker ere badago dokumentazio asko, dena idatziz jasotzen baitzen".

Patxi Larrañagak laster argitaratuko duen *Bergarako abizenak*. *Leinuak eta oinetxeak* liburua hiruko sorta bateko aurrenekoa izango da, A eta B hizkiekin hasten diren 50 abizen inguru jasoko dituen.

Korrika batzordearen bilera, martitzenean kultura etxean

Ekimenen parte hartzeko moduak askotarikoak dira, eta horien guztien gainean jarduteko batzarra izango da

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Korrikarekin gozatzeko aukera izango dugu aurten, berriz ere. 2017ko martxoaren 30ean Otxandiotik abiatuko da Korrika 20, apirilaren 9an Iruñera heltzeko.

Hori posible izan dadin, ehunka pertsonak egiten dute, aurretiaz, hainbeste lan.

Martitzenean, 18:30ean hasita, egingo dugun bileran aurtengo edizioaren nondik norakoak eta gure herrian egingo direnak

ezagutzeko aukera izango da, eta, horrela nahi izanez gero, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzeko ere bai. Horrez gain, herrian egin beharreko lanak zerrendatu eta banatuko dira. Jakina da denok ez ditugula aukera berberak gure ekarpenak egiteko eta, horregatik, hain zuzen ere, etortzeak ez du ezertara konprometituko. Bertan entzundakoaren arabera erabakiko duzu, gero, zeure ekarpena zein izan daitekeen; eta, inolako aukerarik izango ez bazenu ere,

Korrika geure herrian izango dela ezagut eta zabal dezazun da gure nahia.

Korrikak hasieratik aldarrikatu duen moduan, ekimenaren helburuak bete daitezten guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezkoak. Denon parte-hartzearekin lortuko dugu Euskal Herri euskalduna, eta guztion esku eta oinei esker eraman ahal izango dugu euskararen lekukoa Otxandiotik Iruñera. Ahalegin horretan zeure laguntza estimagarria izango da.

Domekan ospatuko dute San Bixente Angiozarko Partaitian

Urteroko ohiturarekin jarraituz, 12:00etan meza izango da, domekan, San Bixente ermitan. Ondoren, hotzari aurre egiteko, salda beroa eta luntxa izango dira, urdaiazpikoaren zozketa... Eta guztia, trikitilariak alaitutako erromeriarekin. Festa egun ezaguna da Angiozarko Partaitia auzoan San Bixenteren omezez egiten dutena.

Azoka berezia atzera ere hilean behin egingo dute

2016ko urtarriletik aurrera astean behin egin dute eguazteneko azoka Oxirondon, baserritarren produktuez eta pintxo-poteaz gain, ekintza bereziren bat antolatuaz. Maiztasun horrek indarra kendu diola baloratuta, lehengora itzultzea erabaki dute

Maite Txinturreta BERGARA

Oxirondon eguazteneko egiten den azoka berezia berriro ere hilean behin izatera pasako da. Hain zuzen, 2016ko urtarrilean, duela urtebete, hasi ziren azoka berezia astero egiten Azoka Bergaraten proiektuaren baitan, ordura arte hilean behin egiten zenaren harrera ona ikusita.

Azoka berezi horretan, herriko baserritarren produktuak, pintxo-potea eta ekintza bereziren bat antolatzen dituzte: tailerrak, emanaldiak, hitzaldiak... 2016. urtean azoka dinamizatzeko 8.770 euro erabili ditu Udalak. Diru horretatik 5.000 euro herriko komertzioetan erabiltzeko



Baserritarren produktuak Oxirondoko azokan. IMANOL GALLEGU

bonutan banatu dituzte –esaterako, lehiaketa bat antolatzen dutenean hori izaten da saria–. Gainontzekoa, nagusiki, azokaren bueltako ekintzak antolatzeko erabili dute.

Hilean behin biltzen dira azokan parte hartzen dutenak, egitasmoari jarraipena egiteko. Urte bukaeran balorazio orokorra egin dute, inkestak eginez merkataria eta baserritarrekin. Hala, atera duten ondorioa izan da astero egiteak nolabait indarra kendu diola egitasmoari. Hala, lehengora bueltatzea erabaki dute, eta hilean behin egingo dute azoka berezia, hileko lehenengo eguaztenetan, hain justu ere. Hala, otsailaren batean izango da hurrena.

Merkatarien iritzia

Azokako merkatariek diote euren ere igarri dutela azkenaldian jende kopurua ez dela lehen bestekoa izan, eta eguraldiak eta urte sasoiak ere eragin handia duela horretan. Adibidez, eguraldi onarekin jende gutxiago animatzen dela diote; bestetik, nabarmendu dute sasoi honetan, Gabon ostean, nabaritzen dute-

la jende gutxiago dabilela. Adierazi dute "ezinbestekoa" dela azokaren alde lan egitea, oro har herriko komertzioak herriarendako "bizitza" direlako.

Pintxo-potea eta postuak astero

Azokaren bueltan antolatzen den ekintza hileko eguazten barrean egitera pasako diren arren, eguazteneko azokaren bereizgarri diren beste bi elementuek, pintxo-poteal eta baserritarren postuek, astero egoten jarraituko dute.

Hala, astero herriko taberna bat arduratuko da azokara gerturatzeko direnei edatekoa eta pintxoak eskaintzeaz, eta herriko baserritarrek euren postuak jarriko dituzte, bertako eta sasoioko produktuekin.

Umeendako jardueren arrakasta

Sabino Azkaratek, Udaleko Ekonomia Sustapeneko batzordeburuak, azaldu du eguazteneko azokaren balorazioarekin ikusi dutela umeei zuzendutako jarduerak izan ohi direla arrakastatsuenak eta jende gehien erakartzen dutenak "Eta hori salmentetan islatzen da", dio.

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte uending zerbitzua eskaintzen

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com



www.bidebarri.org

Autoentzatzat itxita egongo da Komenio, hiru astez

Seminarioaren argindar hornidurarako kanalizazio lanek eragindako aldaketa da. Beste alde batetik, Ipintzako harmailen lanak eta autobus geltokikoak hasi dituzte; aurrenekoak apirilean amaitzea da asmoa, eta bigarrenak hilabete geroago

Julen Iriondo BERGARA

Seminarioa argindarrez hornitzeko, hura eta epaitegi ondoan egiten ari diren transformadorea artean Gabonen aurretik hasitako kanalizazio lanei berrekin egin diete aste honetan –Eguberrietan kaleko bizitza ez oztopatzeko eten zituzten–. Komenio kalea eta epaitegia artean lanak egiteko, aipatutako kalea itxi egin dute ibilgailuentzat –oinezkoentzatzat zabalik jarraitzen du–; bestetik, Komenio kaleko edukiontzia plaza mugitu dituzte, kamioiak ezingo lukeelako bestela hondakinak jasotzera sartu. Lanek iraun bitartean, hiru astez, luzatuko da egoera hau. Seminariotik epaitegirako kanalizazio lanak Gabika enpresak egingo ditu, 66.404,80 euroko aurrekontuarekin.

Ipintzako harmailak

Berrekin diete, bestalde, Ipintzako harmailen lanei. Eguraldi txarra tarteko, ezin izan zuten, aurreko astean, aurreikusitako garaian hasi; prestaketa batzuk egin zituzten, dena den, eta oraingo astean martxa normalean ibili dira. Azaroan Gabika enpresak lanak bertan behera utzi ostean, Sasoi Eraikuntzak da harmailak egingo dituenak. Exekuzio epeak hiru hilabetekoa izaten jarraitzen du; beraz, hasiera batean otsail hasieran prest behar zuena apiril erdi alderako amaitzea espero da. Aurrekontua 152.600 euro da.

Autobus geltokiko lanak

Azkenik, Urteaga kalearen eta geltokiaren arteko bidegorri zatiaren lanak ere hasi dituzte; hasteko, geltokia bera berrantolatzen ari dira, eta ondoren hasiko dira bidegorria egiten. Morga enpresak lau hilabete ditu lanak egiteko, eta aurrekontua 144.668 euro da. Udalak azaldu du lanek ez dietela zerbitzuari eta erabiltzaileei eragingo.



Komenio kalea, ibilgailuentzatzat itxita. BERGARAKO UDALA



Harmailak egiteko lanak, martitzenean. JULEN IRIONDO



Obrak autobus geltokian. J.I.



NIRE USTEZ

IGOR OIARBIDE

Beharrezkoa al da egunero trebatzea?

Ariketa fisikoa modurik onena da diabetesa, kantzerra eta heriotza goiztiarra bezalakoetarako aukerak txikiagotzeko. Baina, benetan, beharrezkoa al da egunero trebatzea?

Osasun arloko adituek astean 150 minutu, gutxienez, gomendatzen dituzte neurrizko jardueran, edo 75 minutu jarduera bizian. Eguneroko entrenamendu ohitura mantentzeko zailtasunak ditu jendeak, baina ikerketa berriek frogatu dute entrenamendu maiztasunak, akaso, ez duela eragiten pertsonaren bizitza-luzeran.

Ikerketa hauen emaitzek adierazten dute heriotza goiztiarraren arriskua, gutxi gorabehera, %30 murrizten dela astean bitan entrenatzen diren pertsonetan, eta %35 egunero entrenatzen direnetan. Aldi berean, ez da alde nabarmenik ikusten bihotzeko arriskuen murrizketan.

Ikerketa berriek gai honi buruz orain dauden gomendioak alda ditzakete. Oraingoz, argi dagoena da, nahiz eta aste osoa lanpetuta izan, asteburuan kirola egitea mesedegarria dela eta mundu guztiak bere errutinan barneratu beharko lukeela.

Erretzeari uzteko ikastaroa hasiko dute datorren egunean

Erretzeari uzteko osasun zentroan egingo den ikastaroak bost saio izango ditu; astean saio bat, egunetan, 17:30etik 19:00etara. Osasunarentzako kaltegarri den ohitura hori amaitzea nahi duen edonork eman dezake izena ikastaroan, bere medikuari edo erizainari esanda. Ikastaroa doan da, eta urtarrilaren 26an hasiko da, esan bezala.



Zigarrokinak. GOIENA

Zeramika tailerrerako izena, hurrengo egubakoitza bitartean

Otsailaren 4an hasita, lau zapatutan izango da zeramika tailerra, 10:00etatik 12:00etara; hasitako ikastaroa da, helduentzat. Buztinzale Zeramika elkartea da tailerraren antolatzailea –Udalaren laguntzarekin–, eta bertako kideak izango dira irakasle lanak egingo dituztenak; Zabalotegiko zeramikako lokalean egingo dute tailerra. Izena emateko epea urtarrilaren 27ra artekoa da: Kultura Zerbitzuan edo 943-77 91 59 zenbakian eman behar da. Leku kopurua mugatua da; sei lagunendako dago: Bergarakoek lehentasuna izango dute, eta interesatuak gehiago balira zozketa egingo lukete. 25 euroko kostua du tailerrak.

'Ume anitz, adimen anitz', egunean Mariaren Lagundian

Familia esperientzia proiektuaren barnean, *Ume anitz, adimen anitz* izeneko hitzaldia eskainiko du Javier Bahonek egunean, hilak 26, Mariaren Lagundian. Tuinovaseko zuzendaria da Javier Bahun.

"Gaiaren funtsa hau da: ikasleen gaitasunak lantzeko paradigmatik baliagarrienetako adimen anitzena da. Izan ere, adimen ezberdinen, ikasteko era ezberdinen eta ikasleen gaitasun ezberdinen arteko lotura ezartzea erraza da", azaldu dute ikas-tetxetik.

Hitzaldia 18:00etan izango da, eta gazteleraz. Izena ematea ezinbestekoa da: 943-76 25 40 edo ikastola1@mlagundia.net.

Pol-Polen lokalean obra egiteko saiakera berria

Ohiko eta ezohiko batzar orokorrak egingo ditu mendizale taldeak urtarrilaren 30ean, eta zuzendaritzak atzera ere jarriko du mahai gainean San Pedroko lokal berriko obren gaia: elkarteren kontuak ezagututa, bazkideek iritziz aldatzea espero dute

Julen Iriondo BERGARA

Pol-Pol Mendi Taldearen 2017ko ohiko batzar orokorrean 2014, 2015 eta 2016 urteetako kontuak aurkeztuko dituzte –19:00etan hasiko da batzarra, bigarren deialdian, Irizar jauregian–. Bittor Alberdi presidentearen itzaropena da, horiek ezagututa, San Pedroko lokalean egin beharreko obren bideragarritasunaz jabetu eta bazkideek, oraingoan bai, onartuko dutela egoitza berria atontzeko urratsa egitea.

Izan ere, azaro amaieran egindako ezohiko batzar orokorrean ere izan zuten puntu hau gai-zerrendan. Orduan, baina, baz-

kideek ez zioten argi berderik eman lokal berrian obra egiteari: "Azken hiru urteetako balantzeak ez zeuden eginda. Guk azaldu genien bazegoela obra egiteko aukera, baina bazkideek balantzeak nahi zituzten aurrena. Nahi genuke orain baiezkota esatea", dio presidentek.

Lokalaren gaia ezohiko batzarrean jorratu dute, ohikoaren ostean –19:45 hasiko da, bigarren deialdian–. Aukeran, obra osoa egitea, 97.706,17 euroko aurrekontuarekin, edo, oraingoz, fatxada, egitura eta bulegoak egitea, 48.824,87 euroko aurrekontuarekin. Obra osoa

egiteko, 61.000 euroko mailegua ere onartu behar luke Batzarra; hamar urtera litzateke, baina interesik gabe –partikular batek emango luke–. Batzar aurretik, lokala ikusteko aukera izango dute bazkideek, hilaren 27an 19:00etatik 20:30era eta 28an 11:00etatik 13:00etara.

Zuzendaritzarako aurkeztea

Bestalde, Pol-Pol zuzentzeko hautagaitzak aurkezteko hamabost eguneko epea irekitzea ere onartuko du Batzarra, lau urte bete baititu egungo zuzendaritzak. Alberdik berriro aurkezteko asmoa agertu dio Goienari.

Eguenean egingo du Lokatzak urteko ohiko batzar orokorra

Lehen deialdia 18:30ean da, eta bigarrena 19:00etan, Irizar jauregian, hilaren 26an. Gai-zerrendako puntuen artean, elkarteko ekonomia eta administrazio kontuak jorratu dituzte, lasterketak izango dituzte hizpide, txirrindulari taldeak eta zikloturistak ere bai, eta herrian egindako beste ekintza batzuei buruz ere jardungo dute.

Mutilen saskibalo talde nagusiak Zarautz hartuko du

Aurreko astean azkenaurrekoaren kantxan, oraingoan etxean jokotuko du sailkapenean bigarrenaren kontra. Atzeko postuekiko aldetxo mantentzeko garaipen garrantzitsua lortu zuen BKEk Ordizian, 52-63, eta gauza bera egiteko aukera du bihar Labegarietan, Zarautzen kontra, 16:30ean hasiko den norgehiagokan.

Futbol partidua eta kromoak trukatzeko aukera Agorrosinen

Aretxabaletan 0-3 irabazi eta kanpoan laugarren garaipena jarraian lortu ostean, bihar –zapatua– etxean ariko da Bergara, 16:00etan, sailkapenaren erdi aldeko Zumaiakoren kontra. Partidua aprobetxatuz, kromo trukeko deia egin du klubak. Lagun batek amaitu du dagoneko albuma, baina aurreneko hirurek jasoko dute saria.

Gaur eta domekan izango dira partidua Udal Pilotalekuan

Udaberri Txapelketako nagusi mailako partidua jokotuko da gaur, 19:30ean. Harri Oterminek eta Aritz Rezustak Legazpiko pilotariak izango dituzte aurkari. Domekan, berriz, 17:00etan, Euskal Ligako bi lehia: Ander Etxaniz Kureneko ordezkariaren kontra kadeteetan, eta Ander Murua eta Markel Gartzia Amurriokoen kontra gazteetan.

DIZIPLINARTEKO PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIAN SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA EREDU

Aurreko ikasturteetan EAEko ikastetxe desberdinetako irakasleek gure eskola bisitatu izan dute, Txokoen zirkulazioan oinarritutako metodologia edo Hizkuntza Trataera Bateratuaren kudeaketa gertutik ezagutzeko asmoz. Aurten, berriz, diziplinarteko proiektuetan oinarritutako metodologia izan genuen mintzagai urtarrilaren 17an egin ziguten bisitan eta baita ere 24an egingo den bigarrenean.

Jakin badakigu gizartea aldatzea dela eta, hortaz, etengabe eraldatzen ari dela. Hala, ikasteko moduek ere garapena behar dute ezinbestean. Hori horrela, guretzat, diziplinarteko proiektuetan oinarritutako metodologia dago hezkuntzaren gakoa, ikasleei ikaskuntza eta garapen pertsonal egokia eskaintzeaz gain, gizartean jasotzen diren aldaketetara moldatzeko aukera eskaintzen baitu.

Informazio kopuru mugagabea duen gizarte honetan, metodologia tradizionalak ez du laguntzen ezagutza eraiikitzen eta ikaskuntza eredu berriak barneratzen. Zaharkituta dagoen eredu horren aurrean, galdera bat edo egoera bat planteatzea eta pentsatzen, bilatzen, ikertzen, antolatzen, taldean zein banaka aritzen, galderak egiten uztea... eta azkenean, hori guztia antolatzea da diziplinarteko proiektuen giltza. Metodologia hau integrala da, eta aldi berean sustatzen du oinarritutako gaitasunak, hainbat ikasgaitako edukiak proiektu bakar batean uztartuta, zein ikasten ikasteko gaitasuna.

Ikaslea da deskribatzen ari garen metodologiaren protagonista, bere ikaskuntza eraiikitzen duena.

Ondorioz, ikaslearen arreta bereganatzea dagokigu irakasleoi; sormena eta informazioaren zein edukiaren manipulazioa ez ezik, ezagutzaren aurkitzaile aktibo izateko ere eskatu behar diogu. Hori horrela, ikaslearen ikaskuntza prozesua eta ezagutzaren eraiikitza gidatu behar ditu irakasleak, ikerketetan baliabideak zein aholkularitza eskainiz. Txanponaren beste aldean, bere errealitatearekin lotuta praktikan jarriko dituen proiektuen plangintza eta ebaluazioa egiteaz arduratuko da ikaslea. Prozesu horretan guztian gaitasun ugari lantzen ditu: pentsamendu kritikoa, problemen ebazpena, elkarrizketa... eta askotariko komunikatzeko moduak. Azken finean, ikasketa funtzionalak, bizitzan eta gizartean modu eraginkorrean aritzeko balioko diotenak.

DIZIPLINARTEKO PROIEKTUAK SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLAN

Gure eskolaren helburu garrantzitsuenetarikoa bat da kompetentziak izango diren pertsonak hezteak. Helburu hori lortze bidean, ezinbestekotzat jotzen dugu berrikuntzaren alde egindako apustua indartzen jarraitzea. Esaterako, Haur Hezkuntzan alde aurretik



martxan zeuden irakas-praktika aldaketak maila guztietara hedatu genituen 2009. urtean.

Ordutik, diziplinarteko proiektuetan oinarritzen da gure hezkuntza proiektua; metodologia aktiboa bultzatzen dugu ikasleak **eginez** ikasten duela sinesten baitugu; gaitasunak garatzeko bidean, ikasleari heziketa prozesuaren protagonismoa eta ardura emanez.

Bidea eraiikitzen jarraitu behar dugula badakigun arren, egindako ibilbidean ikasitakoa partekatzeari oso garrantzitsua deritzogu, metodologia tradizionalak alde batera utzi eta XXI. mendeko ikasleei era integrarean garatzen laguntze aldera.

Hasieran aipatutako bisiten harira, gure eskolan egon diren irakasle guztiek balorazio positiboa egin dute. Aurten ez da salbuespena izan; eskolak egiten diharduen berrikuntzaren aldeko lana goraipatu dute praktika gertutik ezagutzera etorritako EAEko irakasleek, are gehiago, hezkuntza-praktika bikain gisa definitu dute.

San Martin Agirre
herri eskola
BERGARA



"Txistuaren kultura indartu egin nahi dugu"

JOSE MIGEL LASKURAIN BERGARAKO TXISTULARI BANDAKO ZUZENDARIA
Urteetan Bergarako Udal Txistulari Bandako zuzendari izandako Ramon Etxanizek irailan hartu zuen erretiroa, eta orain, Jose Migel Laskurain da zuzendari berria

Maite Txintxurreta BERGARA
Musika munduan "mila saltsatan" sartuta dago Jose Migel Laskurain eibartarra. Orain, Ramon Etxanize erreleboa hartuta, Txistulari Bandako zuzendari ere bada. Domeka eguerdian kontzertua eskaini zuten udaletxeko arkupeetan.
Domekan izan zenuen estreinako kontzertua Txistulari Bandako zuzendari moduan.

Urritik datorren kontua da. Orduan, Udalak proposamena luzatu zidan, ea Txistulari Bandaren zuzendari izateko prest egongo ote nintzen. Izan ere, Ramon Etxanizek sanmartinetan hartu zuen erretiroa. Hala, Musika Eskolan txistu irakasle nabilenez, eta urte luzez Eibar-ko txistulari bandan egondakoa naizenez, pertsona egokitzat jo ninduten. Orduan, egin genuena izan zen, lehenik, partaideak ezagutu, eta tarte bat hartu genuen ikusteko ea elkarrekin ondo funtzionatzen genuen, eta baietz ikusi genuen, posible zela.
Hain zuzen, hileko domeka banatan egin nahi dituzue kontzertuak orain. Bai. Asmoa da urtean zehar hainbat kontzertu ematea, izan udaletxeko arkupeetan, izan auzoetan... baita kalejirak eta bestelako ospakizunak egitea ere. Domekakoak balio izan zuen



Laskurain, txistuaz eta danbolinaz. J.M.L.

beldurra kentzeko eta herritarrei inziatiba hau ezagutarazteko.
Nola joan zen kontzertua? Ondo. Txistulariek ez dute horrelako emanaldiak egiteko ohiturarik, eta urduri samar zeuden batutako ikusle kopurua ikusita. Baina ondo joan zen.
Zein da ekimen berriaren helburua? Entseguen eta piezen prestaketan errutina bat finkatzea, eta horren bitartez txistua ezagutzera ematea. Txistuaren kultura Bergaran beti egon izan da, baina orain asmoa da beste buelta bat ematea, gehiago nabar-

mentu dadin. Kontzertuetan pieza desberdinak sartzen joango gara. Esaterako, hurrengo emanaldia Aratusteetan izango dugu, eta pieza jostalariak eta dibertigarriak sartuko ditugu: balsak, dantzaren bat... erreperitorio arina eta eramangarria.
Txistua nola dago osasunez? Herriaren arabera da hori. Esaterako, Antzuolan tradizio handia dago, Gervasio Legorburen lanari esker. Bergarako Musika Eskolan duela 25 urte eskolak ematen aritu nintzen, txistua bultzatzeko apustua egin zutelako. Urteak pasata, ikusi duguna izan da txistulariek irteerarik ez zutela. Bada, orain asmoa da eskolatik maila onarekin ateratzen diren neska-mutilek txistua jotzeko toki bat izatea Txistulari Bandan. Orduan, esango nuke txistuaren osasuna ona dela, baina *stand by* egoeran dagoela. Ea indartzen dugun.
Orain ere Musika Eskolan irakasle lanetan zabilta. 15 ikasle ditut, eta helburua da eurek txistuarekin disfrutatzea. Nik honekiko pasioa daukat, eta saiatzen naiz eurei transmititzen.
Zer edo zer gehitu nahi? Udalaren, Musika Eskolaren zein Bandako kideen partetik jasotako jarrera ona eta prestutasuna eskertu nahiko nuke.



Asteon, Garikoitz Goikoetxearen liburu aurkezpena izan da. IBAN ARANTZABAL

Animatu eta parte hartu arte ikastaroan eta antzerki eskolan

Jardun Euskara elkartearen sorkuntzarekin lotutako ekintza ugari antolatu ditugu datozen egunetarako

Goiena komunitatea
Jardun Euskara Elkarte / BERGARA

Gelditu barik gabiltza Jardunen egunotan. Aste honetan, esaterako, Garikoitz Goikoetxeak *Euskara irabazteko bidean* liburua aurkeztu zigun. Atzo, berriz, haurren hezkuntzaz hausnartu eta ikasi genuen Ttiklikekoen eskutik. Bada, datozen egunetarako ere hainbat hitzordu antolatu ditugu; arte tailerra eta antzerki eskolako ate irekiak kasu. Animatu eta parte hartu!

Arte tailerra

Bihar, zapatua, Ana Abajo bergararrak arte ikastaroa emango du gazte zein helduentzat Barenkaleko lokalean. 11:00ak bueltan hasita, lehenik, teoria apur bat landuko dugu, eta gero, praktikarekin hasiko gara.

Parte hartzeko, izena eman behar da. Jardunen bulegoan egin daiteke, 605 71 24 69 telefo-

no zenbakian edota jardunkultura@gmail.com helbidera idatziz.

Antzerki eskola

Helduendako antzerki eskola ere jarri dugu martxan, eta otsailetik ekainera bitartean izango dira saioak. Kasu horretan ere, Abajo arituko da gidari. Astelehenean, hilak 30, ate irekiak izango dira 20:30etik 22:00etara Errotalde jauregian. Ekimenaren helburua ahozkotatasuna lantzea, euskaldunen arteko harreman sarea sortzea eta herriko sorkuntza bultzatzea dira.

Izen ematearen prezioa: 15 euro bazkideentzat eta 17 euro gainontzekoentzat.

Amodiozko esaldien lehiaketa

Hilaren 26ra arte izango da Amodiozko Esaldien I. Lehiaketan parte hartzeko aukera. Esaldiak Whatsapp bidez bidali behar dira 605 71 24 69 telefonora.

Txistulariak kontzertu formatuan

Domekan, aurtengo lehen kontzertua egin zuten Txistulari Bandakoek. Urtean zehar hainbat emango dituzte, eta, harrera ona izanez gero, hilero bat antolatzea da asmoa.

Hurrengo, Aratusteetan

Txistulari Bandak egingo duen hurrengo emanaldia Aratusteetan izango da, otsailaren amaieran.



Txistulari Bandaren kontzertua domekan, udaletxeko arkupeetan. I. S.

Udal Bandak kontzertua emango du domekan frontoian

Domekan, hilak 22, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen Udal Bandak kontzertua emango du Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Hona programa: Chirlaqueren *Ibarrik Tolosara* martxa, Saint-Saënsen *La Princesa Amarella*, Gordonen *Unforgettable*, Caballeroren *El dúo de la africana* eta Schwarzen *Terra Vulcania*.

Izaroren kontzertua gaur iluntzean Zabalotegi aretoan

Gaur, egubakoitza, Izaro Andres musikari mallabitarrak kontzertua emango du, 20:00etan hasita, Zabalotegi aretoan. Bizkaitarra *Om* izeneko lana aurkezttera dator; lehendabiziko diskoa, hain zuzen. Sarrerak bost eurotan izango dira salgai emanaldia baino ordubete lehenago irekiko duten leihatilan.

goienagida" 2017

DEBAGOIENeko MERKATARITZA GIDA



**LASTER JASOKO DUZU
DEBAGOIENeko GIDA OSATUENA!**

Eskerrik asko bertan parte hartu
duzuen bezero guztiei!

**ARRASATE ARETXABAETA
ESKORIATZA LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO OÑATI BERGARA
ANTZUOLA ELGETA**

DESKARGATU DOAN GOIENA APP-A: GIDAKO TELEFONOAK ESKURA

WWW.GOIENA.EUS/GIDA



Anelkarko Jabier Etxaniz Eroskiko elikagaien bilketa-gunean. MAIDER ARREGI

Gertutasunak eraginda itxaropena pizten delako

Abian da urtarrilaren 21era arte, zapatua, 'XIII. Piztu Itxaropena' kanpaina. Helburua da Saharako Tinduf-eko kanpamenduetan dauden errefuxiatuei elikagaiak bidaltzea. Herri Eskolan eta Amaia, Eroski eta Aixa dendetan ari dira elikagaiak batzen

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Anelkar elkarteak, Udalarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean, bat egin du, beste urte batez, aurten XIII. edizioa duen *Piztu Itxaropena* kanpainarekin. Urtarrilaren 21era bitartean elikagaiak batuko dituzte Tinduf-eko errefuxiatu sahararrei elikagaiak bidaltzeko.

Oraingoz, Anelkarko kide Jabier Etxanizek dio elikagaien bilketa martxa onean doala. "Urtero 500-600 kilo elikagai batzen dira Antzuolan. Herritarren erantzuna oso ona da; izan ere, sahararrak gurera etorri izanak bi hilabetez eta gurekin jolasean aritzeak badauka eragina herrian. Gertutasun horrek eta euren errealitatea zein den bi-

zitzeak itxaropena pizten du herritarrengan", dio Etxanizek.

Hegaluzea eta sardinak oliotan, arroz, azukrea, pasta, lekaleak, helduentzako fardelak eta konpresak. Horiexek batzea egokitu zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoari. Oraindik ere guztiaren beharra dagoela azpimarratu du Etxanizek. Hala, Herri Eskolan eta Amaia, Aixa eta

Eroski dendetan dute herritarrek euren borondatea emateko aukera, bihar arte. Iaz, esaterako, 649 kilo elikagai batu ziren antzuolarren borondateari esker. "Iazkoa, baina, berezia izan zen. Izan ere, uholdeen ondorioz, laguntza ekonomikoa eskatu genuen beste kanpaina baten bitartez. Helburua sahararren etxeak berriro eraikitzea eta zituzten zerbitzuak berriro martxan jartzea izan zen. Gazte txokoa, musika eskola, herriko musika taldeak... askok parte hartu zuten kontzertu bikaina eskaini genuen. Denen laguntzari esker, bost mila euro pasatxo lortu genituen Saharara bidaltzeko", argitu du.

'Oporrak Bakean'

Lehentasuna *Oporrak Bakean* programak dauka orain. Hala,

'OPORRAK BAKEAN' BULTZATZEKO DIRU BATZE BEREZIA EGINGO DUTE SANTA AGEDA EGUNEAN

Saharako haurrak gurera ekartzeko kanpaina indartuko du Anelkarrek. Eta bultzada emateko, otsailaren 4an Santa Agedako diru batzea helburu horrekin egingo duela iragarri dute. "Kasu honetan, asmoa da Saharako haurrek osasun azterketak egiten jarraitzea. Familien eskaria jaitsi egin da, baina aterpetxeetara ekartzeko aukera daukagu; euredako beharrezkoa da eta osasunean eragin handia dauka. 40 graduko beroetatik aldentzea garrantzitsua dute".



Iaz egindako elikagaien kontaketa, Orlan etxean. MAIDER ARREGI

Iaz 52 kaxa eta 649 kilo elikagai

Urtetik urtera erantzun ezin hobea dauka *Piztu Itxaropena* kanpainak. 52 kaxatan 649 elikagai batzea lortu zuten iaz. 2015ean, aldiz, 40 kaxa eta 612 kilo. Goraka doan joera da eta aurten ere 600 kiloak gainditzea espero dute Anelkarkoek.

Azken urteetan egonkortu egin da Antzuolako biztanleria

Antzuolak 2.160 biztanlerekin hasi du urtea; iaz baino 17 gutxiagorekin. 2016an jaiotako haurrak 15 izan dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolak 1.075 emakumezko eta 1.085 gizonezko ditu errolatuta. Guztira, 2.160 biztanlerekin hasi du urtea -2016. urtea, 2.177 biztanlerekin hasi zuen-. "Iaztik hona ez dago gorabehe-

ra handirik; 17 gutxiago bizi gara. Egia da orain urte batzuk biztanleriari dagokionez *boom* bat egon zela. Etxebizitzak garesti zeudenean jende asko etorri zen Antzuolara bizitzera inguruko herrietatik. Baina

orain horiek ere joan dira eta egonkortu egin da biztanleria", dio Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Jaiotzei dagokienez, 15 haur jaio ziren 2016an eta 27 herritar hil ziren.

"Biztanleria finkatuta dago; jaio eta hiltzen direnen kopuruaren arabera da egun Antzuolako errolda. Baina kopurua haztea ere ondo egongo litzakeela uste dut. Egoera ekonomikoa ez da txarra eta herriko enpresak ere ondo daude".



Antzuolako Herriko Plaza. MAIDER ARREGI



Herriko Mus txapelketako lehen kanporaketako irabazleak. JESUS KORTABARRIA

Musean jokatzeko ohiturari sendo eutsiz

Martxa onean abiatu da aurten ere Antzuolako mus txapelketa. Irabazleak Gipuzkoako txapelketarako sailkatuko dira. Lurreko finala otsailean Ibarren jokatuko dute, eta, sailkatuz gero, Euskal Herriko finala Gipuzkoan bertan, Anoetan, jokatuko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Musean jokatzeko zaletasuna, ohitura, errotua dago Antzuolan. Hala ere, gutxika beheraka dola ohitura hori dio herriko mus txapelketako antolatzaile Jesus Kortabarría *Kaxeta*-k.

Horrelako txapelketek, ordea, musean jokatzeko ohiturari eusten laguntzen diote. "Oraingo gazteen artean ohitura hori jaitzi, gutxitu egin dela uste dut", azaldu du *Kaxeta*-k. Baina, txapelketa honek badaukala oihartzuna ere azpimarratu gura izan du: "500 bikotetik gorak parte hartzen dute urtero. Jendea animatzen da eta horrek musean egiteko zaletasuna egon badagoela azaleratzen du".

Zortzi erregetara jokatzeko ohitura dagoela Antzuolan dio *Kaxeta*-k. "Egun Antzuolan bizi den aizpurutxoar batek ekarri zuen lau erregetara jokatzeko ohitura. Guk, ordea, beti zortzi erregetara jokatu izan dugu. Orain, txapelketako finalak beti lau erregetara jokatzeko ohitu-

ra dago hemen Antzuolan ere", argitu du *Kaxeta*-k.

Lehen kanporaketa

Mox tabernan jokatu dute jada lehen kanporaketa. Bost bikote antzuolarrek hartu zuen parte urtarrilaren 13koan. Xabier Arregik eta Igor Larreak osatutako bikotearen kontra kanporaketako final estua jokatu ostean, Beñardo Kortabarría *Berni*-k eta Juan Simon Arrieta *Juanshi*-k lortu zuten hilaren 29an jokatu den finalerako txartela.

Kanporaketa gehiago

Gaur, egubakoitza, zapatuan eta domekan izango dira hurrengo kanporaketak. Horietan parte hartu dezakete lehen kanpora-

tuak izan ziren bikoteek izan ezik beste edonork. Kanporaketa bakoitzaren aurretik eman daiteke izena.

Lurreko finala otsailaren 25ean, zapatuan, Ibarren jokatu da. Euskal Herrikoa, aldiz, martxoaren 25ean Anoetan jokatu da.

Txapelketa

Kanporaketak

- Urtarrilak 20: Gailur tabernan, 22:30ean.
- Urtarrilak 21: Ongietorri jatetxean, 16:00etan
- Urtarrilak 22: Eperla elkartean, 16:30ean.

Finala

- Urtarrilaren 29an: Arin jatetxean, 16:30ean.

Korrika batzordea abian da eguna ekintzaz janzteko

Bigarren batzar irekia otsailaren 1ean egingo da, 18:30ean, udaletxean, herriko eragileen ideiak batzeko

M.A. ANTZUOLA

Asteon jarri da martxan Antzuolako Korrika batzordea. "Herriko eragileak identifikatu ditugu eta orain gura duguna da eurekin harremanetan jarri eta euren ideiak batzea eta aztertzea", azaldu du Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk. Izan ere, aurten Korrika apirilaren 8an, zapatua, 01:00 inguruan helduko da Antzuolara. Zapatu goizaldean iritsiko denez, festa giroa indartu gura du Korrika batzordeak eta "bezperatik afaria edo musika giroa" antolatzea.

Bergararik Antzuolara

Martxoaren 30ean abiatuko da Korrika20. Debagoienara apirilaren 8an iritsiko da. Gauerdian, 00:20 inguruan sartuko da Osintxutik Bergarara; Bergarako irteerara 00:45ean iritsiko da, Antzuolara 01:00etan helduko da eta Deskargara, berriz, 01:30ean. Zumarragatik Goierri alderako bidea hartuko du ostean, eta 11:15ean iritsiko da Udanara berriro Debagoienara sartuta Oñatitik 11:45ean. Arrasateko noranzkoa hartu, eta Leintz Gatzagatik irtengo da.

Kalegoiko teilatuan sutea

Eguen eguerdian Kalegoi kaleko 12. atarteko etxebizitzako teilatuan su hartu zuen. Tximiniaren inguruan gertatu zela sutea jakinarazi dute suhiltzaileek eta ikertzen dihardutela jatorria. Hiru kamioi gerturatu ziren bertara eta berehala kontrolatu zuten. Sutea piztu zen unean, zorionez, inor ez zegoen etxean eta ez du inork minik hartu.



AMAIJA MUNDINANO

Odola emateko aukera datorren eguaztenean

Antzuolan odola emateko eguna aldatu egin dute. Hala, eguenean izan beharrean, eguaztenez pasatu dute eguna. "Odola eman gura duenak eguaztenez eman beharko du aurrerantzean; hiru hilean behin egiten dugu Antzuolan. Hala, urtarrilaren 25ean izango da aukera, Orlanen etxean, 17:30ean", azaldu du Begoña Letek, odol emateko elkartearen kideak. Izan ere, eguaztenez Orlanen ekintzak izaten dira eta eguaztenez aretoa libreago egoten dela esan dute.

Letek gaineratu du Antzuolan jaitzi egin dela azken urteetan odola emateko joera hori, eta gazteei eskatu gura die animatzeko: "Garrantzitsua da".

Udalerriko txosna batzordeak bilera egingo du gaur

Txosna batzordeak helburuak zehaztu ditu egindako batzarretan: plurala izatea. "Askotariko eragileen artean antolatutakoa izango da eta jaietan zentratuko da. Hala ere, urteko beste egun batzuetan ekintzak egingo lirarteke, daudenak aprobetxatuz eta zeudenak berpiztuz edo berriak sortuz".

Gaurko batzarrean, aurrez bilerara aurkeztutako elkarteak eta norbanakoak zeintzuk diren aurkeztuko dira. Batzordea erakitzeke zein oinarri edo balio jarraitu behar diren aztertuko da. "Deialdi irekia da eta gogoz dagoen edozein animatzaile gura dugu gaurko bilerara: Orlanen 18:30ean egingo da".



Txulokua baserrirako bidean berriki konpondutako zatietako bat. ELGETAKO UDALA



Asentzioko bidea konpontzea da baserritarren batzordearen aurtengo egitasmoetako bat. L.Z.

Lanak landaguneko zenbait bidetan

Txulokua eta Iturbe baserrietarako bideak konpondu dituzte aurten baserritarren batzordetik. Mendrakorta baserrira, berriz, ura eraman dute. Hurrengo lanak izango dira Asentzioko eta Iturbe-Etxeberri baserriko bideak konpontzea

Larraitx Zeberio ELGETA

Ez zeuden egoera onean eta urte hasieran hormigoiarekin konpondu dituzte Txulokua baserrirako eta Iturbe baserrirako bideak. "2016ko diru laguntzekin, bestalde, ura eraman dugu Mendrakorta baserrira. Jausita dago, baina herritar bat jasotzeko asmotan dabil bertan ganadua

jartzeko", azaldu du baserritarren batzordeburu Sebastian Arantzabalek. Lanok 16.600 euro inguruko aurrekontua izan dutela adierazi du. Foru Aldundiak %60 hartzen du bere gain.

2017ko egitasmoen artean daude Asentzioko eta Iturbe-Etxeberri baserrirako bideak konpontzea. Lan horiek 5.637,97

euroko eta 8.168,75 euroko aurrekontua dute, hurrenez hurren.

Hitzaldia baserritarrendako

Nekazarien kooperatibak jakinarazi du hitzaldia antolatuta dutela eguenerako, hilak 26, Amaia Irazustarekin. Iraunkortasunari buruz ariko da, 19:30ean, kultura etxean.

"Auzolanaren zentzua galdu egin dugu"

SEBASTIAN ARANTZABAL
BASERRITARREN BATZORDEA



L.Z.

Makina bat lan dago landagunean eta auzolanerako dei egiten jarraituko dutela dio batzordeburuak.

Baserri bideek ematen dute batzordean lan handiena?

Aurrekontuaren zati handi bat da, bai. Udazken inguruan, urtero garbitzen ditugu bide bazterrak, eta makinaren kostua soilik 5.100 euro inguru da.

Auzolanean egiten da, ezta? Bai. Iaz, gainera, 2007ko udal ordenantza bat

aplikatzen hasi ginen. Garbi jasota dago jabeak deituak izango direla auzolan egitera. Ezin duenak etorri ordezko bat jar dezake, edo, bestela, orduko hamar euro ordaindu. Zigor modura ulertu du neurria jendeak, baina kontzientziatu behar dugu Udala diruz larri dabilela eta auzolanarekin jarraitu beharko dugula bideak egoera txukunean nahi baditugu. Auzolanerako dei egiten jarraitzeko asmoa dugu.

Holokaustoko bi biktima elgetar omenduko ditu Udalak

Tomas Reboloren eta Pascual Askasibarren omenez ekitaldi berezia iragarri dute hilaren 27rako

L.Z. ELGETA

Holokaustoko biktimak oroitzeko nazioarteko eguna urtarrilaren 27a da, eta Elgetako Udalak ekitaldi berezia iragarri du bi biktima elgetar omentzeko: Tomas Rebollo Etxaniz eta Pascual Askasibar Iriondo. "Ezin dugu ahaztu euskaldun askok sufritu zuten nazien kontzentrazio eremuetan. Frankismoaren biktima izan zirenak errekuuperatzen ari garen moduan, kontuan eduki behar ditugu bi biktima elgetar hauek ere. Azkenean, frankismoak eta nazismoak antzerako

faxismoa aplikatu dute. Memoria antifaxista osatzeko bidean urrats bat gehiago da honako hau", adierazi du Elgetako alkate Iraitz Lazkanok. "Uste dut, gainera, Reboloren eta Askasibarren kasuak nahiko ezezagunak direla herrian".

Bi biktima elgetar

Antzina aldizkarian holokaustoko biktima euskaldunen zerrenda argitaratu dute, abenduan. Horrela izan dute udaletxean Pascual Askasibarren kasuaren berri. Erregistro zibileko jaiotza-agiriak jasotzen du Galarra baserrian jaio zela, 1903an. Oraingoz lortutako informazioaren arabera, Alemanian hil zen, Wöbbelin kontzentrazio eremuan, haren liberazioa baino hamabost egun lehenago: 1945ko apirilaren 17an. Udal arduradunak biktima horren inguruko informazio gehiagoren bila ari dira.

Tomas Reboloren kasua eza-gunagoa da. 1907an jaio zen, Elgetan, eta 1942ko ekainaren 28an hil zen, Austriako Mauthausen-en; plaka bat dago han haren oroimenez. Udala Bartzelonan bizi den Tomas Rebollo semearekin harremanetan da, eta omenaldi ekitaldira etortzeko gogotsu dagoela esan du alkateak.

Ekitaldia urtarrilaren 27an egingo dute, arratsaldean. Hurrengo astean emango ditu argibide gehiago Udalak.

'Berdinen arteko harremanak' tailerra, etzi, gaztelekuan

Domekan emango diote hasiera Elgetako gazteleku zerbitzuan *Berdinen arteko harremanak* izeneko hiru saioko formazio tailerrari. Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik gorako neska-mutikoendako tailerra da, eta ate irekiak egingo dituzte gaztelekuan. Beraz, sarrera irekia izango dute baita erabiltzaile ez direnek ere. Kalexka elkarte Mikel Zurutzak eta Eneritz Errastik gidatuko dute saioa. Helburua da gazteekin batera elkarbizitza hobe batean eragiten duten faktoreak aztertzea eta lantzea emozioei garrantzi berezia emanez eta haiek identifikatzeko, ezagutzeko eta adierazteko teknikak landuz.

Danborrada San Sebastian kofradiako nobleendako

San Sebastian eguna da gaur, eta, urtero moduan, Herri Eskolako haur danborradak bizpahiru pieza eskainiko dizkie Elgetako eta Uberako San Sebastian kofradiako nobleei. Neska-mutikoen saioa 12:00etan izango da, elizpean. Ondoren, nobleek meza entzungo dute eta urteko gorabeherak jasotzeko batzarra egingo dute sakristian. Taldeko idazkari Juan Noble Irazabalek adierazi du 24 noble elkartuko direla aurten; 22 Elgetakoak eta bi Uberakoak. Bazkaria, aurten, Maialde hotelan egingo dute. Herri Eskolako haur danborradak beste emenaldi bat egingo du gaur, 15:30ean, frontoi zaharrean.

"Irudimena da gure sexu organo indartsuena"

BEGO ALABAZAN IPUIN KONTALARIA

Ipuin 'berotikoekin' dator gaur Elgetara, eta 22:30ean egingo du helduendako saioa, liburutegian. Aurretik, umeendako bi saio egingo ditu liburuzainak (16:40 eta 17:25)

L.Z. ELGETA

Helduendako zazpi bat saio ditu eta ipuin *berotikoena* da arrakastatsuen. Elgetan ere harre-ra ona izatea espero du. Gure buruari plazererako baimena ematen ikasi behar dugula dio.

Zer dira ipuin berotikoak?

[Barre] Hitz joko bat da jendearen jakin-mina pizteko. Esaten dutenez, irudimena da gure sexu organorik indartsuena, eta horik abiatuta *berotu* nahiko nuke giroa Elgetan, eta, ahal dela, gorputzak ere bai. Irudimenetik, betiere, noski.

Zein jarrerarekin joan behar du entzuleak saio horretara?

Saio horretara zein beste edozeinetara jarrera irekiarekin joatea da onena. Tarte bat hartuko dugu elkarrekin ondo pasatzeko. Ipuinak kontatzen ditudanean, asko gustatzen zait nik neuk ondo pasatzea, eta, noski, entzuleek nirekin ondo pasatzea. Hitz egingo dugu sexuaz, plazeraz... eta saiaturako gara tabuak alde batera uzten.

Lotsatiek ere badute lekua saioan?

Noski. Entzuleen artean denetarik egoten da, eta norberak erabakitzen du non kokatu bere burua. Parte hartzea ez da derigorrezkoa. Lotsatiagoek jakin behar dute lasai egon daitezkeela, ez dut-eta inor agertokira ateratzen. Helduendako saioetan, jendeak atzean esertzeko joera du. Atzean esertzen dira beti eta hutsik gelditzen dira lehenengo lerroak. Tira, ba, ez dago motiborik aurrean ez esertzeko!

Zenbat ipuin berotiko ekarriko dituzu Elgetara?

Hiru bat ipuin kontatuko ditut. Berez, ordubeteko iraupena du saioak, baina gertatzen dena da beti luzatzen naizela. Beraz, eta errealistagoa izateko, kalkulatu behar duzue ordu eta laurdeneko saioa izango dela, gutxi gorabehera. Entzuleen parte-hartzeak, noski, badu bere zerikusia kontu honetan.



Bego Alabazan jostailu erotikoz inguratuta. ALABAZAN

Eta nondik ateratzen dituzu ipuinak?

Handik eta hemendik... Lehenengo ipuina, esaterako, herrikoia da; bigarrena Juan Martin Elexpurren *Txakur zaunkak atean* liburutik atera dut; eta hirugarrena, egia esan, ez dakit... aldizkariren batetik, ziu-rrenik, baina ez dut gogoan.

Berotikoak izateaz gain, badute beste ezaugarririk ipuin horiek?

Egia esan, saioa gorpuztu nuen ez nintzen jabetu, baina esan didate ikuspuntu oso femeninotik kontatutako ipuinak direla, eta horrela da. Gerora

konturatu naiz. Magda Labarga narratzailearen laguntzarekin lotu nituen errepertorioan neuzkan hainbat ipuin, eta esan izan digute gizonak batzuetan ez ditugula oso leku onean uzten. Eta onartu behar dut emakumeak askoz ere toki hobean gelditzen garela, orokorrean.

Saio arrakastatsua da?

Hainbat proposamen dauzkat helduendako, eta, zalantza barik, hauxe da gehien eskatzen didatena. Aho narrazioaren harra helduen artean sartzeko amu oso erakargarria izaten ari da.

Txoko tematiko 'beroa' liburutegian

Ipuin berotikoen emanalditik abiatuta txoko tematiko berria izango du Elgetako udal liburutegiak. "Barikurako prest izango dut eta dagoen mailegu mugimenduaren arabera hamabost egunez edo denbora epe luzeago batez egongo da martxan", adierazi du udal liburuzain Geaxi Ezpeletak. "Batez ere, egongo dira nobela erotikoak —euskaraz zein gaztelaraz—, sexualitate liburu batzuk eda umeen sexualitatearekin lotutako edukiak". Liburutegian aurretik ere eskuragarri dauden liburuak dira gehienak, baina txoko berezi batean kokatuak orain. Liburuaren artean daude *Kamasutra*, *Itzulipurdika*, *Krabelin beltza*... Aurretik ere hainbat txoko tematiko gertatu dituzte liburutegian: nekazaritza txokoa, Euskal Herriko txokoa, euskararen txokoa edo gurasoen txokoa.



Itzalak! taldeko laukotea. ITZALAK!

Ondarroako Itzalak! taldearen kontzertua bihar Spaloian

Emanaldia 19:30ean da. Aurretik umeen marrazki lehiaketako sari banaketa egingo dute antzokian

L.Z. ELGETA

Zuzeneko musika emanaldi berria iragarri du Spaloia kafe antzokiak biharko, zapatua. Ondarroako Itzalak! taldeak egingo du emanaldia, 19:30ean. Sarrera doan da.

Ondarroako laukoteak askotariko bertsioak egiten ditu. Errepertorioan dituzte, esaterako, Ken Zazpiren *Haizea*, Fito & Fitipaldis-en *Que me arrastre el viento*, Jason Mrazen *I'M Yours* eta Jarabe de Palo taldearen *Depende*. Gozatu egiten dute musikarekin eta une atsegin bat eskaini gura dute Elgetan.

Marrazki lehiaketako sariketa

Itzalak! taldearen emanaldia hasi aurretik, marrazki lehiaketako sari banaketa egingo dute, bihar, antzokian. Domekan egin zuten lehiaketa Spaloian eta harrera ona izan zuen. Herriko neska-mutikoen 28 lan aurkeztu dituzte sariketara. As-tebetez egon dira antzokiko hormetako batean marrazkiak ikusgai, eta bezeroek onena aukeratzeko botoa eman dute. Bihar, 19:00etan, saritutako marrazkia zein den jakinaraziko dute antzokiko arduradunek, eta egileak saria jasoko du.

Goibekok Korrikako kilometro bat erosiko du Nafarroan


Elgetako Korrika batzordea astelehenean, hilak 23, elkartuko da lehenengo aldiz 18:00etan udaletxean

L.Z. ELGETA

Martxoaren 30ean Otxandiotik abiatuko den Korrika 20 ez da Elgetatik pasako. Apirilaren 8an gauaz igaroko da Bergararik, eta eguerdian Oñatitik, Arrasatetik, Aretxabaletatik, Eskoriaztatik eta Leintz Gatzagatik. "Hori jakinda eskaera egin dugu apirilaren lein Erriberri eta Iruberrri artean kokatuta dagoen kilometro bat erosteko", adierazi dute Elgetako Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik. Familia giroan egiteko moduko egun pasa proposatu gura dute

eta elgetar guztiei zabaldu. "Asmoa da joan etorria egiteko autobusa antolatzea: goizean irteera, Korrika batzordeak antolatutako jairen batean parte hartzea, kilometroa egitea eta iluntzean Elgetara itzultzea". Egokitutako kilometroaren erdua zehaztuta dagoenean erango dituzte argibide gehiago.

Elgetako Korrika batzordea astelehenean elkartuko da, 18:00etan, udaletxean. Zabalik dituzte ateak herritar guztiek. Herri Eskolatik, berriz, Korrika txikia egiteko asmoa agertu dute.



Eguazten goizean joan zen Edurne Urteaga Madrildo Fitur azokara. OINATUR

Oñati nolakoa den eta zer dagoen erakustera

Eguaztena ezker Madril zabalik dagoen Fitur turismo azokara joan dira, beste behin, Oñatiko Oinatur kooperatibako ordezkariak. Hara joan diren bidaia agentzia handiekin dituzte hitzorduak eginda, Oñatiko monumentuak, historia eta natura erakusteko

Oihana Elortza OÑATI

Oinatur kooperatibako Edurne Urteaga joan da Madrildo Fitur azokara. "Oso azoka handia da eta aurrez lanak eginda izaten ditugu. Hango eta hemengo agentzia asko elkartzen dira, eta, nortzuk doazen ikusita, aukeraketa bat egin eta eurekin bilerak lotzen ditugu. Bilera bat baino gehiago egin ditugu aurtengo ekitaldian ere", dio Urteagak.

Zabala

Eguaztenean goizean goiz joan zen Edurne Urteaga Madrileren eta egun hartako zein eguneko agenda beteak zituen. "EAEko agentzia batekin, Espainiako batekin eta turista ingelesekin lan egiten duen beste enpresa batekin egon naiz, adibidez. Eta Oñati erakusten saiatu naiz", dio oñatiarrak.

Oñati nolakoa den eta bertan zer dagoen ikusteko, egiteko edo jateko azaldu die, esate baterako, azokan parte hartu du-

ten agentzia ezberdinei. "Hemen dauden agentzietako batzuek umeekin lan handia egiten dute. Horiendako, beraz, Arrikruzen egiten ditugun espeleoabenturak aproposak izan daitezke. Gastronomian oinarritzen diren enpresendako, berriz, Gomiztegi eta Txokolateixia izan daitezke aproposagoak", zehaztu du Urteagak. Bisitatze moduko eraikinak, monumentuak, ere baditu Oñatik, baita ezagutzeko moduko historia ere, eta horien berri ere eman die oñatiarrak Madrilen bisitatu dituen agentziei.

Oñatin bazkaldu

Guztira 1.500 agentzia edo turismo alorreko enpresa daude

**2016AN 31.232
BISITARI IZAN DIRA
OÑATIN ETA %20
ATZERRITARRAK IZAN
DIRA**

egunotan Fiturren, 100 herrialde baino gehiagotik joandakoak. Bakoitzaren ezaugarriak ondo aztertuta joan da Urteaga hara eta bisita luzeak egiten dituztenekin saiakera berezia egin du. "Hemen daudenetako askok autobus asko betetzen dituzte. Horiendako batzuek, baina, egonaldi laburrak antolatzen dituzte, bizpahiru ordukoak. Oñati ezagutzera etorri bai baina egonaldia pixka bat luzatzen dutenenekin ere egon gura izan dugu. Bazkaltzeko plana ere Oñatin egitea ederra izango litzateke eta horrelako aukerak ere eskaini dizkiegu", dio Urteagak.

Debagoieneko eskuorriak ere badituzte EAEko postuan, eta hango mahaitxo baten egin dituzte bilerak gehienak Urteagak. Beste herri batzuetako turismo agentziek zer eskaintzen duten ikusteko tartea ere izan du. "Besteek zer eta nola eskaintzen eta norekin lan egiten duten ere interesatzen zaigu, noski".

Bidebarrietan eta agustindarren parean jarri dituzte isun gehien

Bertakoen aparkaleku gunean aparkatutako ibilgailuak txartel barik egotearen izan da horren arrazoi nagusia

O.E. OÑATI

Hilabete pasa da araututako aparkaleku sistema berria herrigunean jarri zutenetik, eta, Mugikortasun zinegotzi Irati Etxeberriaren esanetan, "oso ondo" doa. "Jendeak hasieratik ondo erabili du sistema berria, bai txandakako aparkalekuak eta baita bertakoenak ere".

Bigarren gune horietan, baina, txartelik ez duten ibilgailuak ere aparkatu dituzte hainbatetan eta udaltzainek isunak jarri dizkiete jabeei. "Hiru astetan oharrak bakarrik jarri dituzte eta Errege ostean hasi ziren udaltzainak isunak jartzen. Oraingoz, isun gehien jarri dituzten guneak Bidebarrieta kale bukaerako bertakoen aparkaleku gunea eta Dentistarenekoak dira", zehaztu du Etxeberriak. Bertakoendako espazioen seinaleak, lurreko marraz, indartu egingo dituzte datozen egunetan.

Isunak 30 eurokoak dira, behar ez den tokian aparkatzeagatik, baita denbora muga pasatzeagatik ere. Azkar pagatuz gero, erdia ordaindu beharko dira. Txandakako eta bertakoen guneetako isunak udaletxean ordaintzen dira eta lur azpiko aparkalekuetakoak bertako parkimetroetan ere bai. Bestalde, hilabete honetan Aita Madina kaleko parkimetroa birritan apurtu dute.

Urtarrilaren 31

Orain arte 150 herritarrek egin dute bertakotze txartela ateratzeko eskaera. Beste 24 atzera bota dituzte. Arrazoi nagusia izan da



Herritar bat txartela ateratzen. O.E.

jabeek ez dutela ibilgailua euren bizilekuan erregistratuta, beste helbide batean baizik. Irati Etxeberriak azaldu duenez, legez egon behar du ibilgailuak norberaren bizilekuan erregistratuta. Urtarrilaren 31 da tramite horiek egiteko azken eguna.

Helburuak

Etxeberriak azpimarratu du sistema berria "helburuak betetzen" ari dela. "Hau da, erdiguneko agitzio trafikoa gutxitzea eta erdigunean bizi diren herritarrei aparkatzeko aukerak erraztea". Herritarrek izandako erantzuna "ona" izan dela uste du eta gogorazi gura izan die bertakoek 24 orduz utz dezaketela ibilgailua dagokien tokian. Eta txandakako aparkaleku plazak eguerdian, gauetan eta zapatu eguerditik astelehen goizera libreak direla azpimarratu du Etxeberriak.

Zubikoako urteko bazkide kuota gaur kobratuko dituzte

Kiroldegiko urteko bazkide kuota zuzenean kargatuko zaie helbideratuta dutenei; horretarako agindua gaur emango dute. Helbideratu gabe dutenek oharra jasoko dute etxean tarifikak eta ordainketa bideak azalduz. Baja emateko, ordainagiria eta bazkide txartela aurkeztu behar dira udal bulegoan.

Korrika pasako den egunean ekitaldiak egingo dira Oñatin

Martitzenean egin zuten kultura etxean Korrikari Oñatin ongietorria egiteko lehen bilerak. Apirilaren 8an, zapatuan, eguerdian pasako da eta adostu zuten egun hori ekitaldiz indartzea. Udalak Korrika Kulturaleko ekitaldiren bat ere ekarriko du Oñatira. Hurrengo bilera otsailaren 8an egingo dute.

"Norbere irizpideetan sinistea ezinbestekoa da"

IRENE ORMAZABAL DJ-A

Otsailaren 4an, DJ tailerra egingo da gaztelekuan Oñatiko Jabetze Eskolak antolatuta, Irene Ormazabalen eskutik. Parte hartzeko, izena eman behar da udal webgunean

Miren Arregi OÑATI

Elgoibarren jaio bazen ere, Donostian bizi da duela urte askotik Irene Ormazabal, *Placida Ye-Ye* DJa. Donostiako Berdintasun Saileko teknikaria da lanbidez eta musikaria afizioz. Urte asko egin ditu Donostiako tabernetan musika ipintzen. Orain, bere esperientzia eta ezagutzak azaltzen ditu, ikastaroetan.

Nolatan hasi zinen alor horretan?

18 urte nituen nik Donostiako Etxekalte tabernan DJ batzuk musika ipintzen hasi zirenean. Bakalao musikaren garaia zen eta haiek ipintzen zuten guretzat zoragarria zen musika. Soula, musika beltza... Musika desberdina, azken finean. DJak ziren, baina ez zuten *techno* gogor hori ipintzen. Sirope DJ kolektibokoek eskaini ziguten musika ipintzeko aukera eta ni animatu egin nintzen.

Non hasi zinen musika ipintzen?

Garai hartan Iruñean nengoen ikasten eta ni Donostiako Etxekalten eta Iruñeko beste taberna baten hasi nintzen musika ipintzen. Ez zen orain bezain erraza. Garai hartan biniloekin eta CDekin ipintzen genuen musika. Oso musika gutxi neukan, baina lagunek uzten zizkidaten diskoak... Eta horrela hasi nintzen.

Oraindik jarraitzen duzu?

Oraindik ere egiten dut, baina ez lehen bezala. Orain, gehiago interesatzen zait nire esperientzia neska gazteei transmititzea.

Zein helbururekin egiten duzu?

DJ izateak norbere buruan sinistea eskatzen du, jendearen aurrean ipini eta proposamen bat defendatzeko. Tailerrean saiatzen naiz segurtasun hori transmititzen. Musika gustatzen bazaizu, kontsumitzaile bezala eduki dezakezu irizpide bat eta askotan ematen du gizonezkoen irizpidea dela hobea, hori delako *cannon* bat eta hori delako onartuena. Norbere irizpideetan



Irene Ormazabal. 1.0

"ASMOA DA MUSIKA AUKERAKETAREN BITARTEZ ISTORIO BAT KONTATZEA"

sinistea ezinbestekoa da. Gainera, emakume eta feminista bezala konturatu nintzen nire musika aukeraketak mutilen aukeraketatik desberdinak zirela eta musika asko neukala emakumeek egindakoa. Konturatu nintzen baita ere, musika ipintzen nuenean, gehiago konektatzen nuela emakumeekin gizonezkoekin baino. Neskek dantzatzeko badute dena eginda duzu.

Emakumeek egindako musika ipintzen duzu orain, bereziki?

Hasieran inkontzienteki egiten nuen eta konturatu nintzen emakumezkoen musika asko nuela esku artean. Hori ez zen kasualitatea, bazegoen irizpide bat. **DJena ere gizonezkoen mundua da...**

Duda barik. DJ munduan bi gauza daude: batetik, musikaren aukeraketa, eta bestetik, alde teknikoak. Badaude liburuak esa-

ten dutenak DJ mundua gizonezkoendako klub bat izan dela. Gizonezkoek ezagutza teknikoak transmititzen zituzten batetik bestera eta emakumea baztertuta egon da. Nik balio gehiago ematen diot musikaren aukeraketari eta hor ere konfiantza behar duzu.

Musika aukeraketaren bidez diskurtso ez patriarkalak sortzen ikasiko duzue ikastaroan.

Idea da musika aukeraketaren bitartez istorio bat kontatzea. Nik nahastan badut Britney Spears, Sabrinarekin, esaterako, ari naiz zentzu bat ematen hasiera baten beste zentzu bat duen abesti bati. Diskurtso bat sortzen dut besteen kantuekin eta agian hasieran zentzu bat duen abestiari beste bat ematen diot.

Nola egituratuko da ikastaroa?

Alde teorikoa landuko dugu lehenik, eta ikusiko dugu DJ munduaren bilakaera. Hausnarketa ere egingo dugu emakumeak eta musikaren inguruan. Alde teknikoak ere landuko dugu eta oinarritzeko ezagutza batzuk helaraziko ditut. Musika ipini eta dantzatzera animatzen badira, primeran!

Udala gertutik ezagutzeko, ate irekiera saioa urtarrilaren 28an

Urtarrilaren 28an egingo da bisita, 11:00etan hasita. Erreserba egiteko azken eguna hilaren 23a izango da

M.A OÑATI

Udalaren eguneroko jardunaren nondik norakoak ezagutzeko aukera egongo da datorren zapatuan, hilaren 28an, 11:00etan hasita. Bisitan, udaletxeko gune desberdinak ezagutzeko aukera izango da; tartean, osoko bilkuren aretoa, alkatearen bulegoa eta udal artxiboa.

Oñati dabilen herria irudi berria aurkeztearekin batera, herritarrek Udalaren jardunera hurbiltzeko asmoa agertu zuen Udal Gobernuak eta erabaki horren baitako ekimena izango da

hilaren 28an udaletxean egingo den bisita gidatua.

Esan bezala, goizeko hamaiketan izango da hitzordua, udaletxeko arkupeetan. Mikel Biain alkateak eta hainbat zinegotzik egingo diete harrera bisitarietara eta eurak izango dira saioa gidatuko dutenak. Bisitak ordu bete inguru iraungo du. Gehienez ere 15 pertsonako taldea osatuko da eta interesatuek tokia erreserbatu beharko dute hilaren 23a baino lehen, udaletxeko harreraren bertan, 943 78 04 11 telefonoan edo partaidetza@onati.eus-en.

Larreratze kanpainarako jakinarazpen epea luzatu dute

Urtarrilaren 31 izango da larretara ganadua eramateko asmoa dutenek jakinarazpena egiteko azken eguna

M.A OÑATI

Aloña-Urbi-Oltzako larreetara ganadua eramateko asmoa dutenek horren berri eman beharko dute udaletxeko bulegoetan urtarrilaren 31 baino lehen. Hala, artzain eta abeltzainek larreratu gura dituzten ardi, bildots, behor eta behi kopuruaren berri eman behar diote Udalari. Herri lurretan eraikitako txabolen erabiltzaileek ere horren berri eman beharko dute. Bide batez, larreratze tasak kobratzeko kontu korrante zenbakia jakinaraztea ere eskatzen da. Tasei dago-

kienez, auzolanean aritzea sarritu da aurrean ere. Alegia, Udalak eta Aloabel elkarteak deituriko auzolanetan parte hartzen duten ganaduzaleek %100 hobia aplikatuko zaie larreratze tasetan.

2017ko larreratze kanpainaren inguruan Udalak zabaldu duen oharra ganadua Aloñara eraman gura dutenei zuzenduta dago, baina baita Artia-Txirikilaleku-Aitzgain inguruan larreratzen dituztenei ere. Kasu horretan, ez da tasarik ordaindu behar.

'#lekaitxoka' argazki lehiaketako irabazlea aukeratzeko aukera

#lekaitxoka selfie lehiaketa bukaerara iritsi da; izan ere, bihar da finalera iritsi diren hiru argazkietatik onena aukeratzeko azken eguna. Argazki gustukoeneri botoa emateko aukera dago, Facebooken, bihar, zapatua, 12:00ak baino lehen. Argazki irabazlearen egileak Txokolaitxoko produktuekin osatutako saskia irabaziko du.



Deskontu interesgarriak gure artikulu guztietan.

Bergaran gaude!
Larunbat arratsaldeetan zabalik

Ibargarai 32 - BERGARA
Tel.: 943 76 01 18



lazo txapelkeko finalean, jokalar bat baloia babesten. GOIENA

Bide erdia eginda, orain arteko balorazioa ona da

Asteburuan ekingo diote Beteranoen Futbol Txapelketako bigarren itzuliri; beste edizioetan baino talde kopuru txikiagoa badago ere, antolatzaileak gustura daude orain artekoak eman duenarekin; oraingoz, bi talde ari dira nabarmentzen

Xabier Urzelai OÑATI

Bide erdia egin dute, Beteranoen Futbol Txapelketak dagoeneko sei jardunaldi jokatu ditu eta beste horrenbeste gertatzen zaie fase erregularri amaiera emateko: "Orain artekoarekin gustura gaude. Bigarren urtea da talde kopurua dela-eta txapelketako lehen zatia fase erregular moduan antolatzen duguna, eta emaitza positiboa da", adierazi du Iban Oruetak.

Egun Oruetak ez du sasoi bateko pisua antolaketa taldean, Anton Sierra da benetako *alma mater*-a, eta halako txapelketa bat antolatzeko atzean dagoen lana ikusita, eskertzekoa da, besteak beste, talde berriek txapelketaren dinamika erraz barneratu izana: "Eguaztenoro sei taldetako ordezkariak batzarra egiten dute, gertatutakoak komentatzeko... Eta taldeen dinamika barneratuta dago dagoeneko. Zozketaz egokitu zaie batzarkide izatea, eta

datorren urtean beste sei aukeratu dituzte". Hala, talde horien –eta batzarretan parte hartzen ez dutenen– inplikazioa ezinbestekoa da gauzak behar den moduan egiteko: "Azken urteotan ez dugu apartekorik izan. Sasoi batean bai, jendea komeni baino gehiago berotzen zen berdegunean eta epaileekin arazoak izaten ziren. Orain, egoera bestelakoa da. Hau da, baliteke partidu konkreturen batean, momentuko beroaldigatik haserreren bat sortzea, baina jendea oso kontziente da epaileek zelako lana egiten duten, ezinbestekoak dira txapelketa antolatu ahal izateko, eta errespetua lehen baino askoz handiagoa da".

ORAIN ARTEKOA IKUSITA, ALBOK ETA SASQUATCH KOSKA BAT GORAGO DAUDE

Epaileak boluntarioak dira

Partiduetan epaile lanak egiten dituztenak boluntarioak dira, txapelketako kolaboratzaileak, azken batean: "Izugarri baloratzeko dugu epaileen lana, eta marrazain lanak, berriz, taldeetako ordezkariak egiten dituzte.

"Koska bat gorago daude"

Orain artekoa ikusita, badirudi bi talde gainontzekoak baino koska bat gorago daudela, Albok eta Sasquatch. Albokek sei norgehiagoka jokatu ditu, eta horietako bost irabazi ditu. Sasquatch taldeak, berriz, jokatutako bostak irabazi egin ditu: "Hamaika jardunaldi horietatik jokatu ostean liga erregularreko lehenengo laurek fase finala jokatuko dute, eta gainontzekoek Kopa jokatuko dute. Bistakoa da txapelketa garrantzitsua Ligakoa dela, baina Kopak badu bere grazia, posible da-eta Ligan makal samar ibili denak ezustekoa ematea.

Ziklo-kros denboraldia ondo, eta etxeko lasterketa oso ondo

Amaitu dute ziklo-kros denboraldia, eta dagoeneko hasi dira errepideko urtea prestatzen Aloña Mendikoak

X.U. OÑATI

Txirrindularitza taldeetan atsedena zer den ez dakite. Aste gutxi dira ziklo-kros denboraldia amaitu zutela, eta 2017ko errepideko denboraldia prestatzen dabiltza dagoeneko Aloña Mendikoak: "Urte positiboa izan da, eta taldeko gazteak ondo ibili dira. Guztira lau kadete eta gazte mailako ordezkari bat izan ditugu. Egutegian lasterketa mordoia izan dituzte, bi lasterketa asteburuko, eta ez genituen larregi kargatu gura. Azken batean, ziklo-krosarekin gozatzea zen helburu nagusia, eta eurek aukeratu dituzte lasterketak. Eta, edozelan ere, sailkapen orokorrean ondo ibili dira, lasterketa askotan lan txukuna egin duten seinale", adierazi du Ruper Arkauzek. "Eta bestalde, herrian egindako lasterketa boro-bila izan zen, eguraldia, zirkuitua... Oso pozik geratu ginen".



Oñatiko lasterketaren une bat. I.S.

2017a prestatzen hasita daude

Klubeko gazteekin hasi dira 2017a prestatzen, eta otsailaren 4an egingo dute aurkezpena. Gaietan dira lasterketak.

Aloña, bost onenen artean dagoen Real Unionen zelaia

Kanpoan berdintzea emaitza txarra ez bada ere, joan den astean zapo gazia utzi zuen Zarautzen lortutako puntuak, oñatiarrek eskura izan zuten-eta garaipena. Zapatuan (15:00), ostera ere, etxetik kanpora jokatuko du talde oñatiarrek, bosgarren postuan dagoen Real Unionen zelaian (15:00).

Kontrario zuzen Sallekoren kantxara Natra Oñati, bihar

Behetik gora egiteko kontrario zuzena den –14na puntu dituzte bi taldeek– Salleko Renault Autonervionen kantxan jokatuko du Natra Oñatik bihar, zapatua (19:30, Sestao). Hala, joan den asteko partiduak utzitako zapo txarra ahazteko aukera ezin hobea dute, nahiz eta etxetik kanpora irabaztea ez den erraza.

2017a bide beretik hasi du Izarraitz Muñoz taldeak

Joan den asteko kontrarioa ez zen ligako gogorrena, Tolosa azken postuan dago-eta, baina urteko lehen hitzordua ondo gaintu zuen talde oñatiarrek (31-21). Asteburuko beste kontu bat da: Deustuan jokatuko dute. Neskek, berriz, kontrario zuzena izango dute: aurrean Pulporen bisita izango dute.

Eskola Kiroleko monitoreen 'on line' ikastaroa, abian

Foru Aldundiak eta Asmoz fundazioak elkarlanean antolatu dute *on line* ikastaroa, eta aste barruan zabaldu dute izen emate epea. Lehiaketetan parte hartzen duten taldeen edo kirol ekintzetan hasi berriak diren arduradun izan nahi duten pertsonen zuzenduriko ikastaroa da (eskolakirola.asmoz.org).



Ospitale batean kokatzen da antzezlan, modu ateporalean, orainalditik iraganera joan-etorriak eginez. F.B.G.

Frankismoaren eragina, iraganean eta orainean

Francoren bilobari gutuna antzezlan ikusteko aukera izango da etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean; frankismoak euskaldunengan –komunitate moduan– izan duen eragina azaleratzen da obra horretan eta sendatzeko baliabideak ematen dira

Eneko Azurmendi OÑATI

Artedrama –Bizkaia–, Dejabu Panpin Laborategiak –Gipuzkoa– eta Le Petit Theatre de Pain –Lapurdi– taldeek osatzen dute *Francoren bilobari gutuna* antzezlan, hiru taldeek elkarrekin egiten duten hirugarren obra, hain zuzen.

Ximun Fuchs da antzezanaren zuzendaria eta aktoreak, berriz, Ander Lipus, Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko R. Pescador, Erika Olaiola eta Pako Revueltas dira.

Obraren oinarria frankismoa da, Igor Elortza gidolarietako baten arabera. "Tratatzen duena zera da, frankismoak euskaldunengan, gerra bizi izan zuten zein gaur egungo euskaldunengan, izan duen eta duen eragina komunitate moduan zelan bizi izan dugun; eta zelan sendatu dezakegun elkar, ez dira-eta auzi pertsonalak", dio.

Trama "amaraun" bat dela dio Elortzak, Espainiako gerrako zein gerraosteko hainbat ger-

taerek eta gertaera horiek gaur egun kokatutako ospitale batean batzen diren pertsonaiengan eragiten dituzten bizipenek osatutako amaraun bat. "Zinta-dantza bat da. Ardatz berean korapilatzen doazen istorioak dira, elkarrekin askatu behar direnak", azaldu du.

Ospitalea

Ospitale batean kokatzen da antzezlan, Elortzaren esanetan, "gaixorik dagoen jendarte baten metafora moduan".

Egileen arabera, hau da obraren sinopsia: Iñakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeita sei urte eta gerra zibileko obus baten txatala buruan. Etorkizun bideragarririk ez duen

"ETXERA JOAN ETA HURRENGO EGUNEAN ERE BURUAN BUELTAKA IZATEN DU IKUSLEAK OBRA HAU"

ospitalean iragana eta oraina kateatzen dira Migel eta Kristina medikuen ametsetan.

Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da Francoren bilobari gutuna.

Arrakasta handia

Urriaren 31n estreinatu zen antzezlan, eta, geroztik, arrakasta handia izaten ari da. Elortzaren esanetan, oso intentsua da obra eta ikuslea "tripatatik" harrapatzen du. "Etxera joan eta hurrengo egunean ere buruan bueltaka izaten du ikusleak antzezan hau", zehaztu du.

Sarrera erdiak, salduta

Esan moduan, domekan egongo da lan hau ikusteko aukera, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Bibe.me webgunean dago sarrera erosteko aukera, 10 eurotan. Eskuragarri dauden sarreren erdia baino gehiago saldu da dagoeneko.

Zabalik da Oñatiko Udala Grant izeneko beka jasotzeko deialdia

Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten giza zientzien eta zuzenbidearen alorretako proiektuak sustatu nahi dira

E.A. OÑATI

Pasa den uztailean lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Oñatiko Udalak eta Lege Soziologia Institutuak, Oñatiko Udala Grant izeneko beka babesteko.

Beka horren helburua da Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizarte zientzien eta zuzenbidearen alorretako ikerketak proiektuak sustatzea.

Hori horrela, tokiko autogobernuaren, hiritartasun aktiboaren edota nazioarteko alderdi sozio-juridikoak aztergai dituzten ikerketak proiektuak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak Oñatiko Lege Soziologia Masterreko ikasle izandakoak edo une honetan direnak izan daitezke, edota Lege Soziologia Institutuarekin harreman estua duten ikerlariak. Hala, beka eskuratzeko, proiektua garatu eta aurkezterakoan Oñatin bizitzen egotea eskatzen da. Ikerketa amaituzat emateko, zientzia artikulua bat prestatu beharko da gutxienez.

4.000 euro

Oñatiko Udala Grant beka 4.000 eurokoa izango da eta hiru or-

dainketa fase izango ditu: lehen ordainketa, ekarpenaren %20, ikertzaileari hautatua izan dela jakinarazi eta hilabetera egingo da. Bigarrena, ekarpenaren %50, ikerketa lanaren garapeneren berri ematean –txosten baten bitartez– egingo da. Hirugarrena eta azkena, ekarpenaren %30, proiektua amaitzean helaraziko zaio ikertzaileari.

Urtarrilaren 31ra arte

Eskaerak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 31 izango da, 13:00ak baino lehen.

Eskaera onartua izateko, Lege Soziologia Institutuaren webguneko formularioa betetzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da: ikerketa proiektuari buruzko xehetasunak jasotzen dituen 2-5 orri arteko plana laburpena, bibliografia, hautagaien curriculum eta behin-behineko aurrekontu eta kronograma.

Behin betiko proiektua irailaren 7a baino lehen aurkeztu beharko da, posta arruntez edota onati@iisj.es helbidera bidaliz. Institutuak izango du ikerketa argitaratzeko lehentasuna.

Hitzaldi bat eta kontzertu bat aste bukaeran Antixenean

Gaur, egubakoitza, hitzaldia izango da, 22:00etatik aurrera, *Zer ostia gertatzen da Iruñeako Alde Zaharreko gaztetxearekin?* izenburupean. Gaztetxea lortzeko egindako lan nekezaren ondoren, kanporatuak izan dira gazteak eta hori nola bizi izan duten azalduko dute Iruñetik etorritako gazte batzuek.

Bestalde, bihar, zapatua, Lie Detectors taldeak kontzertua eskainiko du, 22:00etan. Argitaratu berri duten *Cymbalta* izeneko singlea aurkeztuko dute. Rock-and-roll, garage eta punk-rock musika estiloak dira talde horren oinarria.

Horiekin batera, Crap taldeak ere eskainiko du kontzertua.

Debagoieneko piano ikasleen kontzertua, urtarrilaren 25ean

Datorren asteazkenean, urtarrilaren 25ean, Debagoieneko musika eskolako piano ikasleek kontzertua eskainiko dute Santa Ana antzokian, 18:30ean.

Kontzertu horren helburuetako batzuk dira, besteak beste, otsailaren 4an eta 5ean Andoainean egingo den 12. piano jaialdian parte hartuko duten ikasleen prestakuntza sakontzea eta agertokian trebetasuna lantzea.

Kontuan izan behar da ikasle batzuekiko lehenengo aldian izango dela publiko aurrean azaltzen.

Oñatiko 10 piano ikaslek hartuko dute parte jaialdian, Ainhoa Galdos eta Arantzazu Saiz irakasleen gidaritzapean.

"Ibilbidean aldaketa batzuk izango dira"

ENKO URRIZALKI ETA IÑIGO ALZOLA MONDRAITZ TALDEKO KIDEAK

MENDI LASTERKETAK Apirilaren 2an egingo dute Arrasate-Udalatx lasterketaren hirugarren edizioa; bihar, zapatua, gauerdian zabalduko dute izenemate epea

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondraitz taldeko lagunak babiltza apirilaren 2an egingo duten Arrasate-Udalatx lasterketa antolatzeko lanetan. Aurten lasterketa hainbat nobedadekin dator, eta baita albiste onekin ere: antolatzaileak eurak ate joka ibili dira babesle bila, baina eurengana etorri denik ere egon da. Hori pentsaezina litzateke duela urte gutxi.

Eneko, badator lasterketaren hirugarren edizioa.

E.U. Bai, iaz ere arrakasta handia izan zuen lasterketak, eta hori ikusita hirugarren edizioa antolatzera animatu gara.

Nobedadeak izenemateetik datoz.

E.U. Iaz bi aukera eman genituen izenematerako, Loramendi Kirolak bidez, eta Internetez. Aurten dena Internetez egingo dugu, *herrikrosa.eus* atarian, baina ondoren, bai emango dugu aukera dortsalak dendan bertan jasotzeko.

Itxaron zerrenda ere egongo da izenematean.

E.U. Halaxe da. 300 laguneko kupa betetzen dugunean itxaron zerrenda zabalduko dugu, izan ere, lasterketa aurretik lesioak egoten dira, edo agenda arazoak... Hau da, izena eman duten denak ez dira lasterketara azaltzen, iaz esaterako 50 izan ziren, eta aukera eman gura dugu etorri behar ez duen horrek beste bati lekua egiteko.

Poztekoa da azken urteotako babesleek eman duten erantzun ona.

E.U. Bai, lehenengo eurekin jarri ginen harremanetan, eta denek eman digute baiezkua, lasterketa babesten lagunduko digutela, iazko probak inpaktu positiboa izan zuelako eurengan. Ondoren *mailing* bat ere egin genuen, beste enpresei ere egitasmoa azalduaz, eta guregana ate jota etorri denik ere egon da, laguntzeko interesa daukatela esanaz. Askok harritu gaitu horrek, eta neurri berean poztu, noski.



Antolaketa taldeko Sanmiguel, Aranguren, Alzola eta Urrizalki, aste barruan. X.U.

"POZGARRIA DA BABESLEEN PARTETIK ERANTZUN ONA JASOTZEA; IAZKOEN BAIETZKOA DUGU"

Hori pentsaezina izango litzateke duela ez askora arte...

E.U. Bai, pozgarria da. Gurea ez da lasterketa handia, baina urtean zehar Arrasaten egiten den ekimen garrantzitsueta bat da, beste askoren artean. Eta, uste dugu Arrasateko eta inguruko enpresendako interesgarria dela hor egotea. Horrenbestez, beste inork interesa izango balu, gure ateak zabal-zabalik daude.

Enpresek eta marken orokorrean geroago eta garrantzia handia ematen diote horri, herri ekimenak babesteari, kirolarekin lotura dutenak...

E.U. Lehen aipatu moduan herri mailako lasterketa da gurea, badira mendi lasterketa entz utetsuagoak, baina gurera kanpotik ere jendea etortzen da, eta badakigu halako lasterketek geroago eta oihartzun handiagoa daukatela. Hori enpresendako ere ona da.

Iñigo, aurreratu moduan ibilbidean nobedade batzuk izango dituzue.

I.A. Funtsean lasterketa ez da asko aldatuko, distantzia berbera izango du -21 kilometro pasa- eta desnibela ere antzera. Mendi lasterkariak Udalatxeko ton-torrera igo beharko dute, eta Besaidera joango dira handik. Baina, ibilbidea erreparatzen hasi gara, eta seguruenik ibilbide hori egiteko bidexka berrien bat edo beste erabiliko dugu. **Joseba Iglesiasen omenezko tarte kronometratuak bere horretan jarraituko du.**

I.A. Bai, hori ere ez dugu aldatuko. Arrasatearrok beti izan dugu Udala eta Udalatxeko gurutzerara arteko tarte neurtzeko ohitura, edo erreferentzia moduan erabili izan dugu. Eta, egia da lasterketa barruan beti egiten direla denbora hobeak. Hala, tarte horretan denbora hartzen jarraituko dugu, eta sari berezia izango du, gainera.

Iaz topaketa bat egin zenuten lasterketaren egunaren aurretik.

E.U. Eta aurten ere badugu egiteko asmoa, aitzakia polita delako taldean korrika egin eta ibilbidea erreparatzeko. Baina oraindik ez dugu eguna zehaztu.



Joan den astean Beti Gazteri bost gol egin zizkion taldearen hamaikakoa. R.AZKARATE

Etxean jokaturako biak irabazi gura dituzte Mondrak eta UDAk

FUTBOLA Joan den astean hasitako bidea ondo amaitu gura dute bi taldeek, zaleei bi garaipen eskainita

X.U. ARRASATE

Mondrak eta Aretxabaletak bigarren astez jarraian jokatu dute etxean. Joan den astean oso ondo ibili ziren, Iñigo Velezen mutilek garaipenen sikuteari agur esan eta 3-1 irabazi zioten Amaiak Bati. Mondrak, berriz, sasoiaren dagoela erakutsi eta erreparatzea eman zion Beti Gazteri (5-1).

Hain zuzen, Lesakako taldea izango da domekan Ibarren (16:30) UDAREN kontra indarrak neurtzen. Mondrak, berriz, 2017a kontrako ezterrira joan zaion Elgoibarren -bi partiduak galdu

dituzte- bisita izango du bihar Mojategin (16:30).

Aloña Mendi, berriz, bestelako egoeran dago, bi partidu jokatu dituzte jarraian kanpoan. Eta, bigarrena Irunen izango da zapatuan (15:00).

Bergarak liderra hartuko du

Erregional preferentean Bergarak zazpi garaipen jarraian eskuratu ditu, eta boladari jarraipena eman gura diote Zumaiakoren lepotik (zapatua, 16:00). Lehen erregionalean Antzuola Igoera Fasean dago, eta bihar Irunen jokatu dute (15:30).



FACEBOOK

Epeletik talde aurkezpenera

ZIKLISMOA Levantek eskaintzen duen epeltasunean ibili dira entrenatzen Murias taldeko Eneko Lizarralde eta Julen Irizar, Benidormen izan dira-eta talde kontzentrazioan. Dagoeneko etxean daude; astelehenean Bilbon taldea ofizialki aurkeztuko dute.

Asobaleko eskubaloirik onena bihar Iturripen

ESKUBALOIA Frantzia Munduko Txapelketa jokatzeko aprobetxatuta, Arrasateko taldeko ordezkariak lagunartekoa antolatu dute Asobal mailako bi talde gonbidatuta. Hala, 19:00etan hasita Bidasoa Irun eta Kantabriako DS Auto Gomas Sinfín lehiatuko dira

Xabier Urzelai ARRASATE

Egunotan munduko eskubaloio jokalaririk onenak euren selekzioekin Frantzia dabilta lehia. Eta horrek atsedendia ekarri du liga gehienetara, baita Asobalera ere. Atsedean apur bat hartzeko egunak dira, baina ez da komeni erritmoa galtzea, eta, horretarako, maila goreneko taldeak lagunartekoak jokatzeko dabilta. Bada, horrelako partidu batekin gozatzeko aukera izango dute ibarreko eskubaloio-zaleek Iturripen (Zapatua, 19:00): "Lastima gure txapelketetan ez dagoela atsedetik, talde askok ligako partiduak izango dituzte ordu horretan. Dena dela, aukera aparta da maila goreneko eskubaloio etxean bertan ikusteko", dio Andoni Arandok.

Iaz maila gorenera igo zen Bidasoa Irun eta Kantabriako DS Auto Gomas Sinfín taldeak izango dira zein baino zein gehiago: "Bi taldeak dabilta mailari eusteko borrokan, eta, Espainiako selekzioan talde horietako jokalaririk ez dagoenez, esango nuke jokalaririk gehienak ekarriko dituztela Iturripera".

Sailkapenean 11 punturekin

Ligako etena ondo aprobetxatu gurako dute bi taldeek –otsailaren 4an ekingo diote osteraren



Bidasoa Irun taldeko ordezkariak Naturhouse-n kontra jokatutako lehia. CD LOGROÑES

BIDASOA IRUN TALDEAK IRABAZI ZUEN LIGAN JOKATUTAKO PARTIDUA (28-21)

Asobal Ligari-, eta ez daude opariak egiteko. Kantabriako taldea 14. postuan dago (11 puntu), jokatutako 15 partiduetatik 5 irabazita, eta gertu ditu jaitziera postuak. Bidasoa Irun ez dago askoz ere hobeto, gipuz-

MAILARI EUSTEKO BORROKAN DABILTA BI TALDE HORIEK, BIEK ERE HAMAIIKA PUNTU BATU DITUZTE

koarrek ere 11 puntu dituzte, garaipen bat gutxiagorekin, baina hiru partidu berdinduta: "Bidasoa Irunek, gainera, gainean du Euskal Kopa, eta txapelketa horretara begira prestatuta moduan ere ondo etorriko zaie Iturripen lehia".

Ligan Bidasoak irabazi zuen

Ligako bigarren jardunaldian jokatu zuten bi talde horiek elkarren kontra, Bidasoa Irunen kantuan, eta orduan gipuzkoarrek 28-21 irabazi zuten. Ikusteke dago zein egokitzen den azkarren Iturripen kantzara. Ligan, berriz, otsailaren 11n izango dira bi talde horiek, osteraren 4an, aurrez aurre.

Norgehiagoka ikusteko sarre 5 euro kostako da, baina gazteek eta klubeko bazkideek doan ikusi ahal izango dute partidua.

Bidasoaren itzulera 12 urteren ostean

Tarteka, Debagoieneko kantzeta Asobal mailako eskubaloiaz gozatu ahal izan dute bertako zaleek. Europako eta Munduko Txapelketek ematen dute horretarako aukera, ligan etena egiten dutelako. Duela bi urte, esaterako, Oñatiko Zubikoan izan ziren Bidasoa eta Anaitasuna. Eta 2012an Helvetia Anaitasuna eta Balonmano Huesca izan ziren aurrez aurre, osteraren 4an, Oñatin. Hala, hamabi urte egin behar dira atzera halako mailako partidu bat Iturripen jokatu zutela gogorazteko.

2005ean, Arizmendik antolatutako Kilometroak jaiaren bueltan –eta Pitxi Herreroren lehenengo oroimenezkoa zela aprobetxatuta–, Bidasoa Irun eta Teka Kantabria taldeen arteko partidua jokatu zuten Iturripen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Real Union-Aloña M.

Zapatua. 15:00. Gal.

Mondra-Elgoibar

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-BetiGazte

Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREF.

Tolosa-Mondra

Zapatua. 15:30. Tolosa.

Ikasberri-Aretxabaleta

Domeka. 15:30. Azpeitia.

Bergara-Zumaia

Zapatua. 16:00. Agorrosin.

LEHEN ERREG. IGOERA

Landetxa-Antzuola

Zapatua. 15:30. Irun.

EMAKUMEZKOAK

Bergara-Mutriku

Domeka. 16:30. Ipintza.

Eibar-Arizmendi

Domeka. 15:30. Unbe.

Anaitasuna-Mondra

Zapatua. 15:30. Azkoitia.

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-Hirukide

Zapatua. 18:00. Musak.

SENIOR EMAKUMEZK.

Ibarra-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Ibarra.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Pas Pielagos

Zapatua. 16:00. Iturripen.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Salleko R.-Natra Oñati

Zapatua. 19:30. Sestao.

GIP. SENIOR MAILA

MU-Bosteko

Domeka. 18:00. Iturripen.

GIP. BIGARREN MAILA

Soraluce BKE-Zarautz

Zapatua. 16:30. Labega.

GIP. HIRUGARREN MAILA

Aloña Mendi-MU C

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR EMAKUMEZK.

Eskoriatza-STL Bilintx

Gaur. 20:15. Manuel M.

ESKUBALOIA

ASOBAL MAILA

Bidasoa Irun-DS Auto

Zapatua. 19:00. Iturripen.

EUSKADIKO GIZONEZK.

Ford Mugarri-Basauri

Domeka. 11:00. Iturripen.

Deusto-Izarraitz M.

Zapatua. 18:00. Bilbao.

EUSKADIKO EMAKUME.

Aloña Mendi-Pulpo.

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Leizaran-Soraluce BKE

Domeka. 12:00. Andoain.

GIP. BIG. SENIOR M.

Muñoz I.-Gure Auzune

Domeka. 12:00. Zubikoa.

Munttarpe-Arrasate

Zapatua. 18:15. Lezo.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKET.

Kanpanzar ART-Bilbo

Zapatua. 17:00. Mojategi.

PILOTA

Aretxabaletan:

Gaur. 19:00. Bi partidu.

Oñatin:

Gaur. 19:00. Lau partidu.

Zapatua. 16:15. Hiru

partidu.

Bergaran:

Gaur. 19:30. Partidu bat.

Eskoriatzan:

Gaur. 20:00. Partidu bat.

Arrasaten:

Gaur. 20:00. Partidu bat.

FUTBOLA Bergarako neskek Mutrikuren kontra jokatuko dute

Emakumezkoen erregional mailan, Bergara da asteburuan etxean jokatuko duen ordezkari bakarra; mahoneroek sailkapenean bigarren dagoen Mutrikuren kontra neurtuko dituzte indarrak domekan (16:30) Ipintzan. Norgehiagoka zaila dute aurrean, Bergara azkenaurreko postuan dago eta. Hala ere, joan den astean

Arizmendi liderraren aurrean bergararrek erakutsi zuten edonor geratzeko gai direla.

Lider jarraitzen du Arizmendik

Joan den asteko 1-lekoarekin ere Arizmendik lider jarraitzen du, eta oraindik 7 puntuko alde daukate. Domekan (15:30) Eibarraren jokatuko dute, eta Mondrak ere etxetik kanpora jokatuko du. Zuri-moreak bosgarren dade, eta Anaitasunaren zelaira joango dira zapatuan (15:30).

ESKUBALOIA Iturritxo Taberna Aloña Pulpo hartuko du bihar

Jaitziera postuetatik urrunduan dabilta Iturritxo Taberna Aloña Mendiko neskek Garaje Axiri Pulporen bisita izango dute bihar, zapatua, Zubikoan (18:00). Partidu garrantzitsua da, bi talde horiek ondo-ondoan daude eta sailkapenean, ia egoera berean; puntu bakar bat gehiago dute zarautzarrek.

ATLETISMOA Ibarreko hainbat atleta izango dira Mugerza krosetan

Domekan egingo dute Elgoibarraren –Mintxetan– Juan Mugerza krosaren 74. edizioa, eta bertan izango dira lehia ibarreko atleta onenak. 10:00etan hasiko dira gaztetxoek, alebinak, eta ondoren etorriko dira gainontzeko kategoriak. Maila absolutuan emakumezkoak 12:30ean hasiko dira eta gizonezkoak 13:10ean.

"Bukaera hunkigarria izan zuen Andoaingoak"

XABI BASTIDA SU TA GAR

Urrian argitaratu zuten 'Maitasunari pasioa' diskoa aurkeztuko dute bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Sarrerak 15 eurotan eskuragarri, 'Arrasate.eus' atarian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Andoainen abiatu zuen Eibarko taldeak *Maitasunari pasioa* bira, zapatuan. Lan berriaren ezauzgarriek bultzatuta, aretoetan eskainiko dituzte kontzertu guztiak -maiatzera bitartean-.

Estreinaldiaren aurreko urduritasun eta beldurrak gaindituta?

Baietz esango nuke; hala ere, astean gogor egingo dugu lan detaile guztiak ondo josteko. Emanaldia ondo prestatuta eraman genuen arren, urduri hasi ginen, poliki-poliki joan ginen sartzen eta oso gustura jardun genuen. Bukaera oso hunkigarria izan zen; ikaragarria izan zen areto guztia zutik, txaloka eta txistuka ikustea. Aste honetan laino puntu baten gaude.

Kantu lasaiekin osatu duzue diskoa. Zerk bultzatuta?

Publikoaren eskaera izan da, alde batetik; jende askok esan izan digu gure kantu lasaiekin bildumak egin izan dituztela. Era berean, guk ere bagenuen



Xabi Bastida, Su Ta Gar taldeko gitarra-jolea. SU TA GAR

era puntualean zerbait ezberdina egiteko gogo. Laster 30 urte beteko ditugu, eta estudioko hamar lan baino gehiago kale-ratu ditugu, eta horietan guztietan dago kantu lasairen bat. Lauzprobost kanturekin disko

labur bat egiteko asmoarekin hasi ginen eta hamabost bat sortu genituen, azkenean; hortik aukeraketa eginda osatu genuen *Maitasunari pasioa*.

Disko ezberdina izanda, egiteko modua ere ezberdina izan da?

Aitor [Gorosabel] bere kabuz konposatzen joaten da eta lokalerak ekartzen ditu nahiko ondo zehaztuta ideiak, eta guztien artean egiten dizkiegu moldaketak gero. Oraingoan ere nahiko antzerakoa izan da prozesua. **Bira honetan, publikoa eserita dago, eta, aulkitik beste modu batera entzuten direnez kantuak, hitzak bereziki landu dituzue?**

Arreta berezia ipini diogu, dudu barik, baina beti egiten dugun moduan. Abestiak lasaigoak izanda, aldarrikapen gutxiago dituzten hitzak idaztera bultzatu gaituzte, akaso. Musika gogorarekin hitzak ere gogorra-koak izaten dira, normalean. Lan honetakoak intimoak dira oso, barrura begira egindakoak. **Diskoko hamaika kantuak ez dira errepertorioa betetzeko nahikoak.** Hogei bat kantu inguru joko ditugu, eta ez dira azkeneko diskoko guztiak izango. Presentzia majoa du azkeneko lanak, baina aurreko lanetako abesti asko joko ditugu. Errepertorioa osatzen hasi ginenean, aurreko diskoetako kantu lasaiekin zerrrenda bat osatu genuen eta berrogei bat batu genituen; kantu lasaiak betidanik egin ditugun erakuslea da hori. Ordu eta berrogei minutu inguruko emanaldia izango da.

Andoaingo emanaldia gogoan, zuen publikoa aldatu egin dela esango zenuke?

Ez genuen aldaketa handirik sumatu; aurrekoetan izan dena-

ren nahiko antzerakoa, esango nuke. Egia da kontzertua bukatutakoan hainbat haur etorri zitzaizkigula argazkiak ateratzeko eskatzen; orain arte jo izan dugun aretoetan ez dute adin txikikoek sartzeko aukerarik izaten. Bitxia izan zen, era berean, bukatutakoan 78 urteko gizonezko bat etorri zitzaidala kontzertua asko gustatu zitzaio- la esatera; hura ere ez dut uste aretoetara joango zenik.

Taularen gainean zuen jarrera edo egoteko modua ezberdina da?

Une batzuetan jarrira gauden arren, orokorrean, ohiko itxura eta jarrera dugu; plazetan baino lasaigo, hori bai. Berritasunak ere badaude, baina ez nuke larregi kontatu gura; une baten, adibidez, Aitorrek teklatura aterako du, argiekin muntaia polita egingo dute teknikariek....

Martxora bitartean astero kontzertu bat duzue lotuta.

Horrela da, bai; eta ari gara gehiago ere lotzen. Ermuan, Bilbon eta Iruñean izango gara, hurrenez hurren, eta gero etorriko dira Gasteiz, Eibar.... Pozik gaude orain arteko harrerarekin, aurre-salmentak oso ondo doaz. Maiatzean plazetara berriz!

"GURE LAN GUZTIETAN IZAN DITUGU KANTU LASAIK, NAHIZ ETA AZKENEKO HORIEKIN JENDEA HARRITU"

Mahai-ingurua eta 'Baga Biga emanaldia' Jardunen eskutik

Gotzon Barandiaran, Leire Palacios, Anari, Enaut Elorrieta eta Mikel Markez gonbidatu dituzte

A. A. BERGARA

Bazkide musikari bat joan zitzaieen kultur gintzari buruzko zikloa antolatzeko proposamenarekin. Ideia gustatu eta *Plazara!* ekimena antolatu dute datorren asterako. Euskal kultur gintzari bultzada ematea dute helburu; eta, era berean, sortzaileen eta ekintzaileen ahotik gaiaren gainean hausnartzeko bidea ere ematea.

Mahai-ingurua, eguaztenean

Gotzon Barandiaran, idazlea eta musika arloan askotariko proiektuak dituen, Anari abeslaria eta Leire Palacios kazetaria izango dira hizlariak; azken horrek gidatuko du solasaldia.

Ordu eta erdi inguruan, euskal kultur gintzarekin lotutako adar askoren inguruan berba egin gura dute: kultura politika, merkaturia, hedabideak, transmisioa...

Barrenkalean dagoen Jardunen egoitzan egingo dute, 19:00etan.

Musika emanaldia domekan

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezena da *Baga Biga Higa: Euskarazko musikaren transmisioa*



Elorrieta eta Markez, Antzuolako Torresoroan, iazko abenduan. IMANOL SORIANO

eta *sustapena* egitasmoa. Emanaldian, 60ko hamarkadan hasi eta gaur egunera bitarteko hamarkadaz hamarkadako gainbegiratu egiten diote, 90 minututan, euskal kantagintza berria deitu den horri. Zabalotegin

eskainiko dute, domekan, 19:00etan.

Antolatzailleen esanetan, guztiendako daude ateak zabalik. Zikloa ekimen puntuala da, baina gehiago egiten jarraituko dutela aurreratu dute.

Sumision City Blues, urtarrileko azken Kooltur Ostegunean

Zestoako Grises taldearen indie-rocka izan zen urtarrilaren 12an protagonista, eta Bergarako What A Band taldearen county-rocka nagusitu zen atzo Arrasateko gaztetxean. Hilabete honetako eskaintza borobiltzeko, Gasteizko Sumision City Blues igoko da taularen gainera.

Obligaciones, Joseba B. Lenoir Gang eta bestelako rock taldeetan zein blues eta jazz proiektuetan ibilitako eskarmentu handiko musikariek osatzen dute boskotea, eta rock doinuak dituzte oinarri. Ohi duten moduan, zuzeneko indartsua egingo dute datorren egunean Arrasaten, azaroan kaleratu zuten lan berria abiapuntu hartuta.

Lagunartean bertsoan egiteko bi saio bitxi

'Bertsotruk' egitasmoaren barruan bertso-poteoa egingo dute Aretxabaletan, bihar, zapatua. Oñatiko Antixena gaztetxean, berriz, Eskoriatzako, Zarauzko eta Oñatiko bertsoarien arteko lehiaketa egingo dute, gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek abiarazi zuen iaz *Bertsotruk* ekimena, herri ezberdinetako helduen bertso eskolen arteko harremana sustatzeko asmoarekin.

